

---


Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia  
1995





Memoria  
1995  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia

---











EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA



Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia

1995

Bilbo, 1996

Testu-idazketa: J. L. Lizundia, P. Telleria, I. Rekalde, R. Badiola  
Testu gainbegiratzea: Endrike Knörr

© Euskaltzaindia  
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.  
Cuevas de Ekain, 3, 1.º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.  
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-1800-1996

# AURKIBIDEA

---

<b>Bi hitz</b> .....	7
<b>I. Akademi ekintza orokorrak</b> .....	9
I.1. Hizkuntz Arauak .....	11
I.1.1. Sarrera .....	13
I.1.2. Oraingo araugintza .....	15
I.2. Zenbait erabaki garrantzitsu .....	17
I.3. Gertakari akademikoak .....	25
I.4. IX. Barne Jardunaldiak .....	33
I.5. Gertakizun behinenak .....	37
<b>II. Sailak eta batzordeak</b> .....	45
Sarrera: batzorde-lana, lan-metodologia, bilerak .....	47
II.1. <i>Iker</i> Saileko batzordeak .....	49
II.1.1. Hiztegi gintza batzordea: .....	51
II.1.1.1. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH) .....	53
II.1.1.2. Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF) .....	59
II.1.1.3. Hiztegi Batua .....	61
II.1.2. Gramatika batzordea .....	63
II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea ( <i>Hizkuntz Atlas</i> ) .....	67
II.1.4. Onomastika batzordea .....	77
II.1.5. Literatura batzordea: .....	83
II.1.5.1. Herri Literatura .....	85
II.1.5.2. Literatura Ikerketa .....	89
II.1.6. Batzorde suntsikorak: .....	91
II.1.6.1. Euskara Batua .....	93
II.1.6.2. Ahoskera .....	95
II.2. <i>Jagon</i> Saileko batzordea .....	97
<b>III. Erakunde zerbitzu orokorrak</b> .....	103
Sarrera .....	105
III.1. Egoitza .....	107
III.2. Ordezkaritzak: .....	113
III.2.1. Gipuzkoakoa .....	115

III.2.2. Arabakoa .....	117
III.2.3. Nafarroakoa .....	121
III.2.4. Baionakoa .....	125
III.3. Azkue Biblioteka .....	127
III.3.1. Azkue Biblioteka .....	129
III.3.2. Azkue Biblioteka batzordea .....	133
III.3.3. Azkue Bibliotekako katalogazio-lanak .....	135
III.4. Argitalpenak: .....	137
III.4.1. Argitalpen batzordea .....	139
III.4.2. Argitalpen banaketa zerbitzua .....	143
III.5. Ekonomi zerbitzua: 1995eko balantzea .....	145
III.6. Prentsa zerbitzua .....	149
<b>IV. Herri Aginte eta erakundeekikoak .....</b>	<b>155</b>
<b>V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia: .....</b>	<b>159</b>
V.1. Euskaltzainen eta karguen zerrendak .....	161
V.2. Euskaltzaindiko batzordeak .....	163
V.3. Euskaltzaindiaren barne-organigrama .....	167
V.4. Aurkitegia .....	169



## **Bi hitz**

*Eskuetan duzun liburu honek, irakurle, Euskaltzaindiaren 1995eko lanaren berri eman nahi du. Ez dakar, ezin lekarke, xehekiro gure Erakundeak egin duen lan osoa. Urteko txostena da, irakurri ahala Euskaltzaindiak egin duena, euskararen eta Euskal Herriaren alde, garbiro erakusten duena.*

***Oroitidazki** honetako multzoan ezer bereizi beharko bagenu, Euskaltzaindiaren Arauak izenekoaren plazaratzea aipatuko genuke. Sortaka ateratzen dira bertan eta interesatu guztien eskuetan ezartzen Akademiaren erabakiak, alor honetaz eta hartaz. Argitaratu baino lehen, bide luzea egin behar izaten dituzte eskuarki erabaki horiek. Batzordeetan ikertzen dira lehenik eta osoko batzarrera pasatzen dira azkenik, beti ere testu horiek irakurriko eta erabiliko dituztenak kontuan harturik. Ez da ahaztu behar bide horretan Euskaltzaindikoak ez diren beste pertsona anitzek dutela toki garrantzitsua; haiek ematen dute iritzia, Euskaltzaindiari interesatzen zaiona.*

*Zinez pozgarria da Euskaltzaindiaren Arauak sorta-liburu honek jendartean izan duen harrera. Zalantzarik gabe, hizkuntzaren profesionalak, dela administrazioan, dela irakas-kuntzan, dela komunikabideetan, idazleak, itzultzaileak, e.a., edota, besterik gabe, ororen euskara landu nahi duten euskaldunak ohartuak dira oso egiteko garrantzizkoa dela hau, hizkuntza orain eta gero biziko bada. Euskaldun guztien lokarri izatea nahi dugun euskararako arauak ematea ez da aski den baldintza, baina bai beharrezkoa dena, euskararen biziraupen eia garapenerako. Anarkiak eta eredurik ezak tribu egoerara eramango luke gure hizkuntza ezinbestean, hain arau-multzo estua duten beste hizkuntzen aurrean desagertu baino lehen.*

*Inork ez luke, ordea, pentsatu behar Euskaltzaindiak, 1918ko bere sorreratik, muzin egin ziola edozein Akademiak bere-berea duen arau emate eginkizun honi. Inola ere ez. Gure Erakundearen estatutu guztietan ageri da xede hau, eta ikaragarria da gure egunetarainoko arau eta gomendioen mukurua, giroa askoz ere kontrakoa zelarik.*

*Beste alderdi batzuk dira Euskaltzaindiak 1995ean burururikoak, Oroitidazkiak isladatzen dituenak. Desagun, berriro ere, lan hori, hainbeste eremutan baina dena Euskal Herria zerbitzatzeko asmoz, ezina gertatuko zatekeela, Erakunde eta gizabanako askoren laguntza eta atxikimendurik gabe. Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko aginteek, maila batekoek eta bestekoek, eta ordezkari politiko guztiek badakite euskararen aldeko gure ahaleginak dituztela eskumenean, edozein pentsamolde eta sineskeraren gainetik. Orobat euskaldun guztiek, baita euskaradunak ez direnek ere. Eskerrik asko, aurten ere, uste on honengatik.*

Endrike Knörr,  
idazkaria

## **I. Akademi ekintza orokorrak**



## **I.1. Hizkuntz Arauak**



### 1.1.1. SARRERA

Euskaltzaindiak, Arautegi eta Barne Erregeletan agertzen den bezala, hasiera-hasieratik izan du bere xedetzat hizkuntza arauak ematea. Sortu zenetik arau horiek *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkarian barraiaturik daude. «Oñatin, Eusko Ikaskuntzak 1918. urtean egindako Biltzar ospetsuan erabaki zen Euskararen Akademia sortzea eta han izendatu ziren lau euskaltzain fundatzaileak. Hurrengo urtean martxan jarri zen, beste zortzi hautatuz», dio A. Luis Villasantek. 1919-20. urteetako lehen *Euskeran* agertzen dira Hizkuntz Akademiaren lehen erabakiak. Euskaltzainburu ohiak 1953ko *Euskeran* «Euskararen lehen aroa-Primera época» 1920-27 arteko erabaki, txosten eta batzar agirien aurkibidea egin zuen. «Sobre la ortografía a emplear hasta que la Academia decida/Euskaltzaindiak euskal ortografia erabaki dezan arte...». *Euskera* ala *euskara*, *euskeldun* ala *euskaldun*, «euskaraz erabili behar den *abc* edo idazkeraz...», «*s* bustiari dago-kion letra *x* izan dedila...», «Euskaltzaindia'k gure izkerazko idazle guztiei eskatzen die arren, ahal dalarik beintzat idazkera auxe, ta besterik ez, erabili dagiela...», «*r* marratua, bokal artean datorrenean izan ezik, ez dedila idatzi...», «deklinazioan gidoia edo marra-txoa erabiltzeaz...», «izenak nola erabili...». Hauek dira aipatzen dituen lehen arau garrantzitsuenak.

Hara hor, A. Luis Villasantek oraintsu egindako lan batean zer dioen orain arte *Euskeran* barraiaturiko arau edo erabakiez:

«*Euskera*-n, bada, Euskaltzaindiaren arauak edo erabakiak agertu, bai, agertu izan dira, baina beste gauzeekin nahasian, eta errebistan edo liburuan erdi galdurik daude, eta guti ezagunak direla uste dut, euskaltzain berengandik hasita. Uste dut, bada, komenigarri dela beroien bilduma egitea. Horretarako beharko da, nik uste, zenbakiak bana-banaka ikusi eta arauok hitzez hitz hartu, nondik hartu diren zehaztu, eta ez dakit beste modu batera odenatzea ere -gaien arabera edo- ez ote den egin behar. Baina ordenatze kontu hau agian hobe izango da gerorako uztea, biltze-lana eginik dagoenerako. Euskaltzaindiaren erabakiok, nik uste, eman ziren bezala jaso beharko dira, ezer aldatu gabe, ez ortografia, ez euskalkia, ez beroien mamia eta ez beste ezer ere, eta erabaki bakoitzaren data jarriaz, beti ere...»

«... Nahi dugu, alegia, Euskaltzaindiak sortu zenetik eta gaur arte, euskarari buruz, eman dituen arau edo erabakiak biltzea eta bildurik agertzea. Zergatik edo zertarako? Lehenik, gerok hobeki ezagut ditzagun, eta, noski, euskaldunek, euskal irakasle, ikasle eta abarrek, ikasi edo kontsultatu nahi dutenean, nora jo izan dezaten. Horren beharra badago, zeren eta urte dexente pasatu baitira Euskaltzaindia sortu zenetik hona, eta arauok barraiaturik eta erdi galdurik daude *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkariaren multzoan.»

Horrez gainera, Euskaltzaindiak bere Barne Erregela berrietan honela finkatua du arauen irizpen eta erabakien mailakatzea, ideia nagusiak hauek direlarik:

«1. Euskaltzaindiak onartze, mailakatze hauek ditu: arauak, gomendioak, akademi batzorde mailakoak, oniritzi edo diktamenak.

## 2. Arau eta gomendio mailakoak

2.1. Dagokion batzordeak jarritako epe baten barruan, proposamen txostena landuko du. Prestatu ondoren, egoitzara bidaliko du euskaltzainburuari batzar gaietan sar dezan eskatuz.

2.2. Horretarako batzordeak izendatzen duen batek lanaren aurkezpena egingo du. Zuzenketa epe zehatz bat iragarriko da, euskaltzain oso guztiei, batzordekideei eta espreski igorritz eskatzen duen beste ohargile edonori emanaz edo igorritz.

(...)

2.6. Proposamena hileroko bilkuran eztabaidatuko da eta erabakia hartuko. Egun berean eztabaida amaitzen ez bada, zatika ere har daitezke erabakiak hurrengo bilkuretan.

(...)

## 3. Batzordeei araugintza edo gomendiogintzarako eskuemate osoaz

3.1. Garrantzi handirik gabeko araugai edo gomendiogaietan, dagokion batzordeak eskuemate osoa erabiliaz, erabaki dezala onar lezake Euskaltzainen hileroko bilkurak.

## 4. Batzorde mailakoak

4.1. Onarpena ez da maila osokoa izango, eta, lana Euskaltzaindiarena izanik ere, erakundeak ez ditu izen edo forma guztiak banan banan ontzat bere gain hartzen. Batzordearen onarpen soila izango du, beraz. (...)

## 5. Irizpen edo diktamenak

5.1. Euskaltzaindiak bere Arautegiaren 1.j. artikularen arabera, erakunde, elkarte do gizabanakoentzako, bere irizpen edo diktamen emaile eginkizuna betetzeko ahala du.

5.2. Herri Aginte, erakunde, elkarte edo gizabanakoentzat prozedura honekin emango dira irizpen edo diktamenak: 1. Idazkaritzak, gaiaren arabera, dagokion batzordera pasatuko ditu. 2. Batzordeburuak bilkura gaietan sartuko du eta batzordeak bi eratara eman dezake irizpena: 1. Batzordeak bere gain hartuz. 2. Batzordekide bati edo batzordeño bati aurrelana aginduz eta proposamenari bere onikusia emanaz.»



## **I.1.2. ORAINGO ARAUGINTZA**

Euskaltzaindiak *Euskera* agerkari ofizialean argitaratzen ditu aldiro-aldiro onartzen dituen hizkuntz arauak, beste gai askorekin batera. *Euskera* agerkaria harpidetza bidez banatzen da, baina ez da nahi hainbatengana heltzen, era honetako aldizkariak adituentzako izan ohi direlako, eta horregatik, hizkuntz erabakiak jakinarazteko erabiltzen zen bideak ez zuen behar besteko hedapenik.

Behar honetaz oharturik, araei buruzko berariazko argitalpenak eskaintzen lehenagotik hasia zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua Akademiaren baimenarekin, eta bihoazkio Euskaltzaindiaren izenean eskerrik beroenak hizkuntz arauen barreiatzarekin euskaldungoari, eta bereziki Sail horrek kudeatzen duen irakaskuntza-eremuari, egin dion mesedeagatik.

Euskaltzaindiak 1994ko urriko osoen batzarrean erabaki zuen hizkuntz arauak berariazko argitalpen batean kaleratzea, eta argitalpen horri izenburutzat *Euskaltzaindiaren ARAUAK* jartzea. Ordurarte hartutako eta indarrean zeuden hizkuntz arauak berrargitaratzea oraingoz alde batera utzita, 1994ko urritik aurrerantzekoak argitaratuz joatea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Hala ere, bidea zabalik geratzen da, *Euskaltzaindiaren ARAUAK* argitalpenaren sarrerako euskaltzainburuaren hitzetan esaten denez: «...eta haiekin batera Euskaltzaindiak bere sorreratik hartuak dituen gainerako erabaki guztiak ere -bere horretan nahiz, hala behar denean, aldaketak egin ondoren-».

Argitalpenaren lehen atala, 1-8 arteko hizkuntz puntuak hartzen zituena, 1994ko abenduan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokarako kaleratu zen, non izan baitzen, antolatzaileek esan dutenez, gehien saldu zen euskarazko testua. 1995eko lehen hiruhilabetean hezur-mamitu da argitalpenaren nondik-norakoa. Aldiro-aldiro hartzen diren erabakien berri emateko, karpetaen sistema aukeratu da, argitaratzen diren orri solteak han sartzen joateko. Banaketari begira, berriz, harpidetza eskaintzea eta bultzatea erabaki da. Era honetan, hiritarrak berehala jakin dezake hizkuntz erabakiak hartu direla, eta horrekin batera eskuetan eduki ditzake inora joan gabe.

Euskaltzaindiak, sei mila gutunetik gora banatu ditu Euskal Herrian zehar euskaldungoari argitalpen honen berri emanez, eta harpidetza-orria eskainiz (administrazio desberdinetako gunek eta zerbitzuak, ikastetxeak, unibertsitateak, euskaltegiak, komunikabideak, kultur elkarteak, profesional ugari,...).

Harpidetza bidez ezezik, liburudendetan ere banatzen da argitalpen hau. Aurtengoa, 1995ean, karpetaekin batera bi aldiz banatu ditu Euskaltzaindiak hartutako hizkuntz erabakiak: maiatzean 1-29 artekoak, eta abenduan 30-45 artekoak. 1995. urteko harpidetzaren barnean, 1994ko urritik 1995eko irailera artean hartutako hizkuntz arauak sartu dira, eta hurrengo urteetan ere antzera izango da, beraz, urte naturala eta arauak hartu direnekoa beti bat etorriko ez direlarik.

Argitalpen honen harpidetza eta honekiko gestioa Euskaltzaindiaren bulegoetan egiten da, eta banaketa-lanerako, propioki horretarako dagoen etxe batekin egina du hitzarmena Euskaltzaindiak.

Euskaltzaindiak arauak kaleratzeko jarri duen berariazko argitalpen honek izan duen arrakastak garbi adierazten du honelako zerbaiten beharra bazegoela, eta asmatu egin dela. Euskaltzaindiak hartzen dituen hizkuntz erabakiak, horrela, harpidedunen etxera bidaliz, orain arte inoiz izan ez duten zabalkundea izatea lortu da, interesatuaren eskuetan arrazoizko epean eta era erosoan jarritz.

### ***Euskaltzaindiaren ARAUAK***

Euskaltzaindiak bere arauen zabalkunderako berariazko argitalpena egitea erabaki ondoren, argitalpen zerbitzuburuak eta eragile teknikariak plan bat burutu dute eta Zuzendaritzan aurkeztu. Larrabeen egindako IX. Barne Jardunaldietan, osoen bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren, argitalpen hori Euskaltzaindiak bere gain hartzea erabaki du. Hortik abiatuta, egoitzako zerbitzu orokorren bidez eman dira gainerako urratsak: propaganda zabaldu, harpidetzak jaso eta harpidedunen zerrendak egin, testua inprimatzeko egokitu, banaketa eta kobraketa sistema antolatu, eta horren guztiaren jarraipena egin. Harpidetza Euskaltzaindiaren bulego guztietan jasotzen da.

## **I.2. Zenbait erabaki garrantzitsu**



## ZENBAIT ERABAKI GARRANTZITSU

Euskaltzaindiak ia sorreratik bere hileroko osoko bilkurak azken ostiraletan egin ohi ditu. Bertan euskaltzain osoek hartzen dituzte hizkuntza erabaki nagusiak, arau mailakoak, alegia, normalean dagokion batzordeak proposamena prestatu eta Euskara Batukoa batzordeak kidekatu ondoren.

### Urtarrila

#### *Erabakiak*

Euskara Batuko batzorde idazkaria den Pello Salaburuk egin du, bestetan bezala, egungo batzarrera ekarri diren txostenen aurkezpena. *Hitz elkartuen osaera eta idazkera* izenekoak izan da lehenbiziko erabakizuna. Euskaltzaindiak aurretik onarturiko proposamen bera da, salbu elkarteko lehen osagaiak *-ia* amaiera duenean; kasu horretan *-a* bokalarekin nahiz gabe idatzi ahalko da. Adibidez, *biologia azterketa* eta *biologi azterketa*, biok izango dira zilegi.

Horrez gainera, *basa-*, *ber-*, *bir-* aurrizkiak eta *giza* eta *sasi* osagaiak aipatzeaz eztabaidatu da. Eratze berrietan, *giza eskubideak* eta beste bereiz idazten direnez, *basa* eta *sasi* berdin idaztea dirudi egokien. Hala onartu da.

Onomastikari dagokionez, *Euskal Herria* izena ere izan da une batez eztabaidagai.

-z *gero* izenekoak ikertu ondoren, honako erabaki hau onartu da: aditzaren ondoren, kasu guztietan *-z gero* idatziko da; orduekin eta denbora posposizioetan, *ezkero* ere erabili daiteke eta, azkenik, *honezker*, *horrezker* eta *harrezker* aditzondoak honela idatziko dira.

#### *Erabakizunak*

«Aditzoin berezien forma» txostena banatu da euskaltzainen artean. Proposamena ohargileei ere helaraziko zaie.

«*Hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkera» deitzen den txostena aztertu da ondoren. Zenbait euskaltzainek hitz egin dute arazo honetaz eta ingurukoez: *hori delata; ikusi eta / ikusita; harrituta*, e.a.

### Otsaila

#### *Erabakiak*

Urtarrileko batzarrean erabaki gabe gelditu zen «*Hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkera» deritzan txostena aurkeztu du P. Salaburu Euskara Batuko batzorde

idazkariak, moldaketa berrian. Eztabaida luze baten ondoren hau izan da erabakitakoa: egitura hauetan guztietan esan nahi dena erraz ulertzen bada, bereiz eta osorik idatziko dira beti aipatutako juntagailuak eta marratxorik gabe, nahiz eta ondoren koma ere jar daitekeen. Perpaus konplexuetan, argitasunerako beharrezko ikusten denean, marra jar daiteke.

Ondoren, Beñat Oihartzabalek, «Aditzoinen forma» izeneko txostena azaldu du. *Eutsi* eta *iritzi* aditzen formak eztabaidatu dira eta hau izan da erabakia: *euts* nahiz *eutsi*, *iritz* zein *iritzi*, biok izango dira aditzoinak, eta *itxi* izango da forma bakarra.

«Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea» deritzan txostena aztertu da gero. P. Salaburuk egin du azalpena. Testua onetsi da, baina *deiez* eta (*zenbait*) *gaiez* bezalako esamoldeak izango dira forma arautuak.

### *Erabakizun*

«Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen eta Frantziako Errepublikako departamenduen eta herrialdeen izenak» deritzan txostena eta «Grezieratik hitzen letraldaketa-taula» izeneko aurkeztu dira, Onomastika batzordeak bere azken bilkuran onartu ondoren. Hurrengo bilera batera ekarriko da berriro gai hau.

## **Maiatza**

### *Erabakiak*

Frantziako departamendu eta herrialde izenen azterketa izan da lehen puntua.

Onomastika batzordeak Euskara Batuko batzordearen bidez aurkezturiko proposamenak banan-banan ikusi dituzte batzartuek. Zenbait izen eztabaidagai gertatu dira, hala nola *Bourgogne*, *Ardennes* eta *Provence*-ren ordainak. *Ñ* letraren tokiaz ere mintzatu da.

### *Erabakizun*

*Atlantiar* ala *Atlantiko* (*Pyrénées Atlantiques* departamenduaren izenerako) formen gainean ere iritziak agertu dira. Hurrengo batzarrean bukatuko da azterketa.

## **Ekaina**

### *Erabakiak*

«Frantziako Errepublikako departamendu eta herrialdeen izenak» deritzan erabaki proposamena, Onomastika batzordeak ondu eta Euskara Batuko batzordeak aurkeztua, izan da lehenbiziko gaia. Hiriburuak ere ikertu dira, maiatzeko batzarrean bezala.

Hasierako proposamenetik zenbait aldaketa egin dira batzarrean. Besteak beste, *Paue* izango da euskarazko forma arautua, *Pabe* eta *Paube*-ren kaltetan. Halaber, ekarri diren lekukotasunak (Euskara Batuko batzordearen eta A. Irigoyenen txostenak) kontuan harturik *Pirinio Atlantikoak* erabaki da, ez *Atlantiar*. Gainerakoan, departamenduen izen gehienetan frantsesez duten forma onartu da. Era berean, *Edinburgh*, *Fribourg*, *Hamburg*, *Luxembourg* eta *Salzburg* forma jatorrizkoak onartzen dira, euskal itxuradunen ondoan (*Edinburgo* eta abar). *Burgu* eta *burgo* hitzak mintzagai izan dira, puntu honi datxekola.

Aldiz, *Tolosa* erabaki da forma bakartzat, behar denean *Okzitaniako* ezarririk. *Auch*-en ondoan *Auski* ere erabili ahalko da.

Gainera, irizpide-orri bat erantsiko da, izenon deklinabideaz sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

«*Ongi etorri!*» izenburuko txostena inolako aldaketarik gabe onartu da. Azken urteotan zabaldu den *Ongi etorria(k)!* forma baztertzeko asmoz egin da.

«*Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia*» izenburua duen txostena. *Zazpi orritako txostena, Bost liberatako aldizkaria* eta antzeko perpausak arrunt hedatu dira, orobat, azken urteotan. Luze eztabaidatu ondoren aho batez onetsi da erabakia, hots, nongo galderari erantzuten zaionean: *hiru etxetako haurrak, hiru etxeetako haurrak*, eta ez *\*hiru etxeko haurrak*. Beraz, *-(e)tako* egoki da. Baina galdera honi erantzuten ez dionean, ez da *-(e)tako* behar. Guztiz zilegi dira, hortaz, tradizioak erakutsi bezala, *adineko pertsona, hiru kilometroko bidea, sei asteo egonaldia* eta abar.

«Orduak nola esan» txostenari dagokiola, *ordu* (eta *oren*) *bata, ordu biak, ordu batean, hiruretan* eta gisako esapideetan ez da zalantzarik agertu, salbu zenbait euskaltzainek proposaturiko *ordu batean / ordu batetan* bereizketa, ontzat eman ez dena. Ondorioz, hau erabaki da: *ordu bat eta erdiak, hiru eta erdiak, ordu bat eta laurdenak* eta abar. Besteak honela hobetsi dira: *bostak laurden gutxi(ago), hamarrak hamar gutxi(ago), hirurak eta hemezortzian* eta abar.

Zifrak ematerakoan, inguruko hizkuntzetan bezala, 00:12, 14:10 eta antzekoak erabiliko dira; deklinatzean ordua pluralean ezarriko da eta minutuak singularrean: *15:03an*, adibidez, nahiz irakurtzeko *hirurak eta hiruan* esan. Horrekin batera zilegi izango da egitarau, kartel eta horrelakoetan erdiko bidea hartzea: *arratsaldeko 5etan, gaueko 12ak arte*.

#### *Erabakizunak*

«Data nola adierazi», «Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarrak», «Zenbait aditzen erregimena» eta «*Topiko(a) bihurtu*» izeneko txostenak aurkeztu dira.

#### **Uztaila**

##### *Erabakiak*

Lau izan dira batzarrean ontzat eman diren txostenak: «Data nola adierazi», «Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarrak», «Zenbait aditzen erregimena» eta «*Topiko(a) bihurtu*» izenekoak.

Lehenbiziko proposamena zegoen-zegoenean onartu da: a) Toki- eta denbora-marka osorik ematen denean, *-n* kasu-marka erabiliz edo erabili gabe, aukeran uzten dira. b) Denbora zenbaki hutsez ematen denean, idazkera hauek ematen dira aukeran: *1995/03/07; 1995-03-27; 95-III-27; 1995/III/07*. Deklinatzerakoan: *1993-03-07ko...* c) Ez da ontzat ematen, data arrunta emateko, *urtarrilak 20* bezalako formarik. Forma hau aposizioetan bakarrik erabil daiteke.

«Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak» txostenari dagokiola, zenbait proposamen erabaki bihurtu dira.

«Zenbait aditzen erregimena (*gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu*)», deritzan txostenean aldaketa txiki batzuk egin dira. *Itxoin / itxaron* aditzari nork-nori ala nor-nori-nork saila dagokion eztabaidatu da. Aditz horrek *nor* ez duenez, nork-nori sailekotzat joko da. Bestalde, euskara jasoan ere, *ama deitu / lagundu dut / diot* maila berekoak izango dira.

Azkenik, «*Topiko(a) bihurtu*» txostena ia deus aldatu gabe onartu da, hala nola: a) Perpaus baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestearen predikatu osagarria denean, *bihurtu* aditzak mugagabeen eskatzen du predikatu osagarri hori. b) Sintagmak ingurukariren bat daramanean (adjetiboa, izenlaguna...) artikulua eskatzen du askotan, kasua beti absolutiboa izango delarik. Adibidez, *Emakumerik ederrena bihurtu*.

### *Erabakizun*

Hurrengo batzarretan aztertzeko honako txosten hauek banatu dira: «*Egiteko asmoz*», «*Lehenago etorriko zen*», eta «*Arazi aditzaren erregimena*».

*Comunidad (Autónoma eta Foral)* izenaren gainean zenbait dokumentazio banatu da. Euskal ordaina iraileko batzarrean erabakiko da.

Hiztegi Batuaren lehen emaitza, *a*-tik *alkohol*-era hartzen duena, jaso dute batzar-tuek.

### **Iraila**

#### *Erabakiak*

Hiztegi Batuko lehen zerrenda, «*a-alkohol*», onartu dute euskaltzainek. Batzar honetako eztabaidan denbora gehiena eramán duena *-ska / -xka* auzia izan da.

Euskara Batuko batzordeak aurkezturiko hiru txosten onartu dira batzarrean: «*Egiteko asmoz*», «*Lehenago etorriko zen*» eta «*Arazi aditzaren erregimena*» izenekoak.

Lehenbizikoa zegoen-zegoenean onetsi da: *asmo* aditzarekin, *-teko/-tzeko* erabiliko da, eta ez partizipio burutua.

«*Lehenago etorriko zen*» deritzon txostenari buruz, bi aldaera hauek ontzat ematen dira: *hau jakin (izan) banu, lehenago etorriko nintzatekeen* eta *hau jakin (izan) banu, lehenago etorriko nintzen*.

*Arazi* aditzaren erregimenaz, honako hau arautu da:

- a) *Arazi*-ren subjektua beti ergatiboan doa.
- b) Oin aditzaren objektua beti absolutiboan doa.
- c) Oin aditza iragankorra denean, subjektua datiboan darama.
- d) Oin aditzaren subjektua absolutiboan doanean, absolutiboan ageri da perpaus kausatiboan ere.
- e) Oin aditzaren subjektua ergatiboa baldin bada, eta agerian objekturik ez badu, bi egoera bereizi behar dira:
  - Objektua ezabatua edo aditzari atxikia duten aditzekin datiboa eskatzen du subjektuak.
  - Sekula objekturik hartzen ez duten aditz deponenteeekin, aditzaren izaera semantikoa kontuan hartu behar da.

*Erkidego* hitzari datxekola, *Comunidad Foral* eta *Comunidad Autónoma*-ren euskal ordainak erabaki dira, hots: *Nafarroako Foru Erkidegoa* eta *Euskal Autonomia Erki-*



*degoa*. Gai honen garapenerako «Gure egitura politiko batzuen euskal izenez» deritzon txostena ere ia ahobatez onartu da.

*Erreneria* izenaz Onomastika batzordeak onaturiko txostena irakurri du batzordeburuak, auziaren ingurukoak azaltzeaz batera. Batzarrak birretsi egin dituzte txostena.

#### *Erabakizun*

«Munduko akzidente geografikoak» eta «Munduko hizkuntza nagusien eta dialekto batzuen euskal izenak» Onomastika batzordetik Euskara Batukora pasatu ondoren, bi txosten hauen azalpena egin dute X. Kintana eta J.L. Lizundia Onomastika batzordekideek.

### **Urria**

#### *Erabakiak*

Hiztegi Batuko «*almendra-arratsalde*» hitz zerrenda onartu da egungo batzarrean. Hauek izan dira hitz eztabaidatuenak: *apaiz/apez*, *apartamentu/apartamendu*, *apostu/apustu*, *akuario/aquarium* eta *arrangura/arrenkura*.

«Kontinenteen, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak» deritzon txostena aztertu da eta zenbait zuzenketarekin onartu da testua. Hala ere, Onomastika batzordera itzuliko dira zenbait hitz.

«Hizkuntza hilak eta klasikoak» izeneko txostena aztertu da gero. Patxi Ondarrak horrela iradokirik, akitanieraren gainean ez da inolako azalpenik erantsiko.

#### *Erabakizun*

Hiztegi Batuko batzordetik, *arraultza-azuzena* zerrenda banatu da; LEFetik, *-ari (-lari)*, eta *-ari /-ario* atzizkiei buruzko txostenak, eta Onomastikatik, «Estatuetako hizkuntza ofizialen izenak» eta «Nazio bat baino gehiago hartzen duten akzidente geografikoen izenak» deituriko txostenak.

### **Azaroa**

#### *Erabakiak*

Hiztegi Batuko bigarren zerrenda aztertu eta onartu da. Zenbait hitzen gainean eztabaida eta, kasuren batzuetan, bozketa izan da. Hala nola:

— *Arrautza / arraultza / arroltze*

— *Artilleria / artileria*

— *Arto irin*

— *Aterpe / aterbe*

— *Atungorri, atunzuri eta atuntxiki*

— *Aurreiritzi, aurr(e)ikus.*

— *Absente / ausente*

— *Auzolan.*

*Palacio de Justicia*-ren euskal ordaina zein den galdetu du idatziz Nafarroako Gobernuak. *Justizia jauregia* erabaki da.

## Erabakizun

*Azazkal* / *azkazal*, *artxibo* / *arkibo* auziak mahai gainean utzi dira. *Aterki* eta *euritako* hitzen hedadura eta lekukotasunak berrikusiko dituzte batzordekideek.

## Abendua

### Erabakiak

Azaroko batzarrean erabaki gabe gelditu ziren zenbait hitz, *a* letraz hasten direnak, aztertu dira lehenik.

— *Azazkal* forma hobetsi da eta bigarren mailan ezarriko dira *atzazal* eta *azkazal*.

— *Aterki* hitzaz ekarri du argibide gehiago Ibon Sarasolak Hiztegi Batuko batzordeburuak, eta zenbait euskaltzainek hitz horrek duen hedadura berretsi. Hiztegi honetan sartuko da, eta *e* letra aztertzean *euritako* hitzak izan behar duen tokiaz eztabaidatuko da.

— *Arkibo* / *artxibo* formen auzian, *artxibo* forma hobetsi da.

Zenbait aldaketarekin onartu da gero «*-Ari* (*-lari*) atzizkiaz» deritzan txostena.

Ondoren, *-Ari* / *-ario* atzizkiei buruzko txostena eztabaidatu eta onartu da.

Urriko bilkuran zintzilik gelditu ziren kontinenteen izenetan, bi puntu hauek erabaki dira: *Antartika* eta *Itsaso Antartikoa*.

Hurrena, «Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)» izeneko proposamena aztertu da.

1. Kintana jaunak *mendigune* proposatu du, erdarazko *massif* / *macizo*-ren ordain; izen bereziaren ondoan *mendia(k)*, *ibaia*, e.a. ezartzea, komeni denean (*Karpatoak* / *Karpato mendiak*, adibidez); *Bizkaiko Golkoa* sartzea; *itsaso* eta beste beti letra larriz idaztea. *Massif Central* adierazteko, *Erdialdeko Mendigunea* erabaki da. Izenotako letra larrien arazoa xehekiro ikertuko da beste batzar batean.
2. Gero, honako hitz hauetaz eztabaidatu da: *Pirineoak* / *Pirinioak*; *Mediterranio* / *Mediterraneo*; *Bearno* / *Biarno*; *Ozeano Pazifikoa* / *Barea*; *Meuse*, *Moselle* / *Mosa*, *Mosela*, *Mosella* aldagarriaz. Bozketan, batzordearen proposamena ontzat eman da, *Mediterranio* izan ezik, eta bi forma hauek onetsi dira: *Ozeano Pazifikoa* / *Itsaso Barea*.

## Erabakizun

Denborarik ezagatik, X. Kintanak ekarriko bi proposamenak, *epai-zinpekoak* izenaz bata eta *euskal gizarteko arazoez* bestea, mahai gainean gelditu dira, urtarri-leko batzarrera arte.

### **I.3. Gertakari akademikoak**



## GERTAKARI AKADEMIKOAK


### Urtarrila

Juan San Martinek irakurri du Antonio Maria Labaien zenari buruzko txostena. Donostiako udal saria 20 urterekin irabazi zuen A.M. Labaienek, *Txinparta buruzagi* komediaz. Teatroaren alorrean egile ez ezik, eragile ere izan zela esan du. Adibidez, *Antzeri* aldizkaria sortu zuen, 1932an. Lizardirekin eta Orixerekin bereziki Labaienek izan zituen loturak aipatu ditu, bai eta Orixeren *Euskaldunak* poemaren argitalpen laburtua ere (1950). Bestelako lanak ere ekarri ditu gogora Juan San Martinek: Elizanbururen biografia (1978), euskararen batasunari buruzko gogoeta-liburua (1984), e.a. Euskaltzainak bere herrian izan zituen karguak ere oroitarazi ditu: zinegotzia 1931n eta alkatea bi urte geroago.

Hil honetako osokoen bilkuran, Patxi Goenaga izendatu du Euskaltzaindiak euskaltzain oso, Antonio M<sup>a</sup> Labaien zenaren aulkia betetzeko.

### Martxoa-Apirila

— Apirileko osoen batzarrean, Zuzendaritzaren proposamenez, ordezkariak izendatu dira: Gipuzkoako ordezkari, Juan Mari Lekuona; Arabako ordezkari, Patxi Goenaga; Nafarroako ordezkari, Jose Mari Satrustegi eta Iparraldeko ordezkari, Pierre Charritton.



Gasteiz. 1995-09-12. Ordezkari aldaketa:  
*J. Haritschelhar, Manu Ruiz Urrestarazuri* opari gisa liburu bat ematen.

Batzar berean Miren Azkarate, Jagon sailburua, izendatu da Akademiaren ordezkari HABE patronatoan.

— Iparraldeko euskaltzain oso eta urgazleek, bertako legeriaren arabera, urteko biltzarra egin dute martxoaren 9an, Donibane-Lohizuneko Udaletxean.

— Martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, Arabako bi herritan bildu da Euskaltzaindia. Ostiralez eta larunbat goizean Legutianon, IX. Barne Jardunaldiak direla eta; larunbat eguerdi eta arratsaldean, Aramaion. Aramaioko Udaletxean, 1995eko apirilaren 1ean; eguerdiko 12ak eta erdietan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarra Aita Gabirel Jauregiren mendeurrenean.

Mahaian jarri dira: Jean Haritschelhar euskaltzainburua; Jose Ramon Uribe Aramaioko alkatea; Endrike Knörr idazkaria; Patxi Ormazabal Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua; Jose Maria Zeberio Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia; Julen Urkiza karmeldar ordenaren buruzagia; Patxi Uribarren urgazlea; Patxi Salaberri Muñoa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Jose Ramon Etxebarria eta Ander Lobera euskaltzaleak.

Ongi etorri hitzak egin ditu lehenik alkate jaunak, aretoan ziren guztiei esker ona agertuz.

Jean Haritschelharrek Arabaren euskalduntasuna aldarrikatuz hasi du bere mintzaldia. Euskaltzaindia, esan du, ez da behin ere hizkuntza borrokan ariko, baina bai fermuki esango euskarak bere tokia duela zazpi probintzietan. Pedro Pujana herriko semea, bezperako batzarrean euskaltzain ohorezko izendatua, aipatu du eta konpainia ederrean, hots, Joan Corominas lagun, sartu dela esan du. Patxi Uribarren mintzatu da ondoren, Gabirel Jauregiren bizitzaz eta lanaz. Julen Urkizak *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)* liburua aurkeztu du. Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Diputazioaren laguntzaz argitaratu den liburu honetan 15 egilek parte hartu dute. Jose R. Etxebarriak Jauregiren *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) liburuen azterketa egin du. Gai hauen gainean euskaraz egin diren lehenbiziko liburuak direla esan du. Gotzon Garate ezin etorririk, Ander Loberak irakurri du haren txostena: Aramaioko eta inguruko euskara eder eta zuzenaz. Patxi Salaberri Muñoak Aramaioko euskarari buruz azken hamabost urteotako datuak azaldu ditu.

## **Maiatza**

Michel Elizanburu (*Frère Innocentius*), heletarraren mendeurrenkari, Heletako Herriko Etxean, maiatzaren 26an, arratsaldeko 4etan, bildu da Euskaltzaindia. Ekintza honetan, mahaian jarri dira: Andrée Arbelbide auzapez anderea; Jean Haritschelhar euskaltzainburua; Juan M. Lekuona euskaltzainburordea; E. Knörr idazkaria; Xipri Arbelbide urgazlea eta Martin Lasa lasalletarra. Hasierako hitz batzuk egin ditu Arbelbide auzapez andereak, bere eta herriaren esker ona agertzeko. Ondoren, J. Haritschelharrek Heletak eman dituen idazleak aipatu ditu, besteak beste, Etienne Salaberri, *So egile* (1903-1981). Egungo omenduaren lehengusua zen Jean Baptiste Elizanburu saratarra ere aipatu du. Xipri Arbelbide E. Salaberriren emaitza oparoaz mintzatu da lehenik. Gero, Arnaud Agirre (1850-1932), ezizenez *Frère Juvenal Martyr*, lasalletarraz hitz egin du, haren *Vocabulaire trilingue français-espagnol-basque* (1899) goraiapatuz. Martin Lasa jaunak Michel Elizanbururen bizitza eta lanaz argibide asko eman ditu bere hitzaldian.

Bukaeran, Euskal Idazkeen Elkarteko burua den Juan Garziak merezimenduzko domina bana eman die Jean Haritschelhar, Pierre Duny Pêtre, Xabier Diharce, Junes Casenave eta Juan San Martin jaunei.

## Ekaina

— Hasieran, Juan San Martinek Josu Oregi urgazlearen hilberri-txostena irakurri du, euskara eta euskal kulturarentzako debeku eta eragozpen denboran Oregi jaunak egin lana gogoratuz bereziki.

— Euskaltzain ohorezko berriak.

Gero, E. Knörrek hitzaldia irakurri du katalanez, Corominas jaunaren izendapenaren arrazoa azalduz, batetik, eta, bestetik, euskaltzain ohorezko berriaren giza alderdi batzuk agertuz. Xavier Terradok artikulu batean esandako Corominasen lau dohaiak aipatu ditu E. Knörrek: katalanzaletasuna, iraupena, prestutasuna eta gizatasuna. Corominasek izendapenaren berri jakin zuenean telefonoz adierazitakoa kontatu du idazkariak: Sorbonako *honoris causa* doktoradutzaren pare zela harentzat Euskaltzaindiko izendapen hau. Corominas jaunaren izenean etorri den Xavier Terrado jaunak, Lleidako Unibertsitateko irakasleak, maisuaren ezin etorria adierazi du eta haren esker ona agertu. Egungo ekitaldirako J. Corominasek lau hizkuntzatan idatzitako mezua irakurri du bukatzeko. Honela dio: «Ohore handi honegatik eskerrik asko bihotzez. Moltes gràcies cordialment, savis col.legues. Grand merci, savants amis. Sumamente agradecido a tantos maestros. Gora Europa bat, Añañamendiko alaba!».

Ondoren, martxoko batzarrean izendaturiko bi euskaltzain ohorezkoei, Joan Corominas eta Pedro Pujanari, diploma ematea egin da. Lehenik, Pujanaren bizitza eta lanak azaldu ditu labur euskaltzainburu jaunak. Ondoren, Pujana jaunaren hitzaldia irakurri du Patxi Uribarren urgazleak. Esker onezko hitzen ondoren, Oletako eta inguruko herrietako aditzaz jardun du. Bukaeran, euskal aditzaz orohar mintzatu da.

## Uztaila

— Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren txostena:

B. Oihartzabal Atlasgintzako batzordeburuak egitasmo honen egoera azaldu du. Atlasak dituen bi helburuak aipatu ditu: euskararen gordailua izatea eta jendeari informazioa ematea. Lehenbizikoari datxekola, lana egina dago. 2.800 galdera dituen eta 145 herritan burutu den galdekizunaz 4.500 ordutako bandak bete dira, aurtengo udaberritik CD-ROMera pasatzen ari direnak. Bigarren partea, hau da, liburuetan argitaratzeko lana, doi-doi abiatua da. Gauzak ongi joanez gero 1997. urterako plazara daiteke lehen liburukia.

— Ignacio Omaetxebarriaren omenez:

Luis Villasantek irakurri du Ignacio Omaetxebarria euskaltzain urgazle zendu berriari buruzko txostena. Gernikan jaioa, Arantzazun eta Alemaniako Fuldan egin zituen ikasketak Omaetxebarria jaunak. *Aránzazu* eta *Misiones franciscanas* aldizkarien zuzendari izan zen. Liburu eta artikulu anitz argitaratu ditu gai askoren gainean, baina, zorigaitoz, beste gauza ugari papereratu gabe joan da. Seroren ordenez liburu batzuk plazaratu ditu. Zenduaren bibliografia aipatuaz bukatu du Luis Villasantek bere txostena. Euskarari buruzkoak azpimarratu ditu: *El vascuence de Juan de Zumárraga* (1948), *Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos* (1949), *Declinación vasca* (1962), *Vascuence y romance* (1986), *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco* (1959).

## Iraila

— Hileroko bilkuran, *Errenteria* izenaz Onomastika batzordeak onarturiko txostena irakurri du Endrike Knörr batzordeburuak. Batzarrak birretsi du txostena.



Usurbilgo Udaletxean, 1995-09-29an:  
*Euskaltzaindiaren hileroko osoen bilkura.*

— Usurbilen, 1995eko irailaren 29an Udaregi bertsolariaren mendeurrena ospatuz eta batzarrari hasiera emanez, Juan M. Lekuonak egin du bere hitzaldia, «Udarregiren bertsogintza: baliapide erretoriko-poetikoak» izenekoa. Idazten ez irakurtzen ez zekien bertsolari honengan aurkitzen diren tropoak, ironia eta umorea azaldu ditu. Udaregiren mendeurreneko ekitaldietan beste hauek ere parte hartu dute, hitzaldi bana emanez: Antonio Zavala euskaltzainak, «Inguruko beste bertsolariak», eta Koro Seguro-lak «Udarregiren bertsogintza: erderakadak».

Ondoren, Garikoitz Udabek mendeurren osoko programaz hitz egin du, parte hartu duten guztiei, eta, batez ere, Euskaltzaindiari, Udalaren esker ona agertuz.

Azkenik, Jose Antonio Altuna Usurbilgo alkateak amaitutzat eman ditu mendeurreneko ospakizunak eta eskultura bat eskaini dio euskaltzainburuari.

## Urria

— Urriaren 27ko hileroko osoen batzarrean, arratsaldeko ekitaldian, Miren Azkarate Jagon sailburuak, sail horrek dituen planen berri eman du, «Jagon Sailaren egitasmoaz» izeneko txostena irakurriz.



— Caro Baroja:

J.M. Satrustegik eta E. Knörr-ek txosten bana irakurri dute joan den abuztuan hil zen Julio Caro Baroja euskaltzain ohorezkoari buruz. Satrustegi jaunak Caro Barojaren antropologia eta etnografia alorrak ukitu ditu, eta E. Knörrek, berriz, hizkuntzen eta, batez ere, euskararen ikerketan Caro Barojaren ekarpenak.

— J.A. Aranak nota labur bat irakurri du Gabriel Ramos Urangari buruz. Berriki hil den pintore eta grabatzaile famatu honek Euskaltzaindiarentzat egin lana aipatu du bereziki, hots, egoitzan diren bi beirateak.

## Azaroa

Gasteizen, Probintziaren Jauregian, Batzar Nagusien aretoan, hilaren 24an, arratsaldeko bostetan, bildu da Euskaltzaindia Patxi Goenagaren sarrera-ekitaldia ospatzeko. Mahaian jarri dira: Felix Ormazabal, Arabako Diputatu Nagusia; J.M. Lopez de Juan Abad, Batzar Nagusietako Lehendakaria; J. Haritschelhar, euskaltzainburua eta Endrike Knörr, Euskaltzaindiko idazkaria.

Aretoa jendez beterik zegoen. P. Goenaga jaunaren senide eta adiskideez gain, agintari, Euskal Herriko Unibertsitateko kargudun eta euskaltzale ugari etorri dira ageriko batzar honetara.

Euskaltzainburuak egin ditu lehenbiziko hitzak, Akademiaren eginkizunaz eta egungo ekitaldiaren esanahiaz. Ondoren, P. Altuna eta X. Kintana euskaltzain berriaren bila joan dira. Goenaga jauna aretoan sartu da eta «Euskararen batasunaz eta duintasunaz» izeneko bere hitzaldia irakurri du.



Gasteiz, 1995-11-24a. Ezkerretik eskuinera: Felix Ormazabal, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar.

Ohiturari jarraiki, lehen partean Antonio M. Labaienen bizitza eta lanak izan ditu hizlariak mintzagai, eta bereziki Tolosako idazleak batasunaz zituen iritziak. Bigarrena euskararen egoerari, irakaskuntzan, batez ere, eskaini dio: onarpena, erabilera eta kalitatea izan dira atal honen ardatzak.

Hurrena, euskaltzain berriaren biografia eta lanak azaldu ditu, bere erantzunean Miren Azkarate andereak. Lanerako beti prest izatea eta batzordeetako haren ekarria nabarmendu ditu.

Gero, Jean Haritschelharrek euskaltzain-domina eta diploma eman dizkio P. Goenagari, eta euskaltzainkide guztiak iragan dira Euskaltzaindian sartu berria besarkatzera.

Araba koruak eskaini du, Sabin Salaberriren zuzendaritzapean, kantaldi eder laburra, F. Ormazabal jaunaren amaiera hitzak baino lehen.

## **I.4. IX. Barne Jardunaldiak**



## **IX. BARNE JARDUNALDIAK**

Legutianon, Larrabea Golf Klubean, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean egin ditu Euskaltzaindiak bere IX. Barne Jardunaldiak. Honako honetan Araban egitea tokatzen zen, hurrengo txanda Nafarroak izango duen bezala.

Bilkura mota hauek bi urtetan behin egin ohi ditu Akademiak herrialdez herrialde. Erakundearen barne-antolakizun, egitura, baliabide, batzorde eta abar aztertzeko edo berriztatzeke izan ohi dira. Oraingoan baliabideak aztertea zen lehen gaia, bai gizabaliabideen aldetik eta bai diruzkoenak ere. Azken hau bihurtu da kezka eta arduraren, Herri Aginteengandik Euskaltzaindiak jasotzen dituen laguntzak bere aurrekontu arrunta eta egitasmoak hornitzeko ere ez baitira aski.

Jardunaldietan ikusi da Akademiak lana egiteko, baliabide zurrangoak behar dituela, euskal gizarteak eskatzen dion emaitza burutu ahal izateko. Aitortzen da, hala ere, bere barnean gauza asko aldatu, eguneratu eta egokitu behar duela.

Jardunaldien amaieran bost puntuko adierazpen bat onartu da. Honela labur daitezke esandakoak:

1. Euskaltzaindiak Herri Aginteengandik urte luzeetan zehar izan duen konfiantza eskertu; 2. Berriki sortutako defizit eta eskasiaren arrazoiak Herri Aginteengana helarazi; 3. Hizkuntzaren inguruan Euskaltzaindiak nahiz bestek egin ditzaketean lanez hausnarketa egiten da; 4. Euskaltzaindia dela Autonomia Estatutuan espreski aipatzen den hizkuntza Erakunde bakarra eta orain dela 75 urte horretarako lau Diputazioek sortua; 5. Errealitatea aitorturik, konponbideak jartzeko gogoaz, neurri zenbait eztabaidatu dira eta Herri Aginteei adieraziko zaie.

### **Batzordeen berriztatzea**

Bigarren xede nagusia, batzordeen berriztatzea izan da. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Zuzendaritzaren proposamena aurkeztu du. Hau izan da:

#### **I. Iker Saileko batzordeak.**

1. Iker sailburua: Patxi Altuna.
  - 1.1. Hiztegi Batuko batzordeburua: Ibon Sarasola.  
OEH lantaldea: Ibon Sarasola.
  - 1.2. Gramatika batzordeburua: Patxi Altuna.
  - 1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordeburua: Beñat Oihartzabal.  
EHHA lantaldea: Beñat Oihartzabal.
  - 1.4. Onomastika batzordeburua: Endrike Knörr.  
Exonomastika azpibatzaordea: Endrike Knörr.
  - 1.5. Literatura batzordeburua: Juan Mari Lekuona.
    - 1.5.1. Herri Literatura azpibatzaordea: Antonio Zavala.

- 1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea: Juan Mari Lekuona.
- 1.6. Euskara Batuko batzordeburua: Pello Salaburu.  
Ahoskera azpibatzerdea: Lourdes Oñederra.

## II. Jagon Saileko batzordea

- 2. Jagon sailburua: Miren Azkarate.

## III. Egiturazko batzordeak

- 3.1. Azkue Biblioteka batzordeburua: Jose Antonio Arana Martija.
- 3.2. Argitalpen batzordeburua: Jean Haritschelhar.
- 3.3. Lege-ekonomi Aholku batzordeburua: Jean Haritschelhar.

Aho batez onartu da proposamen hau. Apirilaren 20rako bakoitzak zein batzordetan lan egin nahi duen adierazi beharko du idatziz.

## **I.5. Gertakizun behinenak**





## GERTAKIZUN BEHINENAK


### Urtarrila

— Hil honen azken ostiralean, arratsaldeko ekitaldi bezala, Gipuzkoako Urrezko Domina jaso du Euskaltzaindiak. Berau, Eli Galdos diputatu nagusiak eman dio euskaltzainburuari. Euskal Akademiaren merezimenduen azalpena Antton Aranburuk egin du, M. Jesus Aranburu Kultura diputatuaren aginduz, honek Foru-agindua irakurri ondoren.

— Sabino Arana Fundazioak Kultura alorreko Saria Euskaltzaindiari ematea erabaki du. Ekitaldia, Bilboko Filarmónica Elkartearen izan da urtarrilaren 29an. Euskaltzainburua eta idazkaria izan dira ospakizunean.

### Otsaila

— Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmen berria otsailaren 8an sinatu da.



Donibane-Lohizunen, 1995-03-10ean. Ezkerretik eskuinera:  
*Xabier Diharce «Iratzeder», Pierre Charriton, Txomin Peillen, Beñat Oihartzabal, Jean Haritschelhar, Alain Lamassoure, André Obac-Etchegaray.*

— Euskal Autonomia Erkidegoan izandako hauteskundearen ondoren, J.A. Ardanza lehendakariari Zuzendaritzak otsailaren 7an egindako ikustaldiaren berri eman du J. Haritschelharrek. M.K. Garmendia Kultur sailburu berria ere izan da bertan.

— Hilaren 20an, Euskaltzainburuak Erakundearen brontzezko domina eman dio Oiartzungo alkatea den Jon Iñarra jaunari. Euskaltzaindiak honela eskertu nahi izan du Oiartzungo Udalak 1994ko abenduan, III. Herri Literatura Jardunaldietan eman zuen era guztietako laguntza. Horrezaz gain, Euskaltzaindiak 76 argitalpenen 200 liburu opa dizkio bertako udal bibliotekari.

— Frantziako Gobernuak, otsailaren 20ko Errepublikaren dekretuaren bidez, Euskaltzaindia onura publikoko erakundetzat onartu du.

— Egoitzako aretoan, 24an, BBK eta Euskaltzaindiak antolatzen duten Azkue sarien banaketa egin da eta 1993an saritutako ipuinak eta olerkiak biltzen dituen *Ipuinak eta Bertsoak* liburua aurkeztu.

— Hileroko bilkurakoak:

Eusko Legebiltzarrak sortu duen Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanetarako Aholku Batzorderako Euskaltzaindiaren kide bat eskatu du. E. Knörr idazkaria izendatu da.

## **Martxoa**

— Otsailaren 28an jaso da Euskaltzaindiari buruz Herri Kontuen Epaitegiak eta Nafarroako Comptos Ganbarak onartutako fiskalizatze-txostena, eta Euskaltzaindiak martxoaren 2an oharra plazaratu du.

— Jagon Sailak martxoaren 3an, Arabako ordezkarietan egindako prentsaurrekoan, adierazpena kaleratu du, probintzia honetako euskararen egoeraz.

— Bestalde, hilaren 17an, «Euskal Herriko Autonomia Elkartearen 1995eko Aurrekontuetan Euskaltzaindiarentzako ezarria dagoenaz Erakunde honen adierazpena» deritzon dokumentua banatu die Euskaltzaindiak Herri Ordezkariei. Aipatutako dokumentuan, besteak beste, honako hau esaten da: «Berriki burutu den txostena, Herri Kontuen Epaitegiak eta Comptos Ganbarak egina, ezin utz dezakegu aipatu gabe. Zenbait hilabetetan aztertu dituzte bi erakunde horiek Euskaltzaindiaren kontuak eta azterketak erakutsi du zuzen daudela puntu guztietan. Honek esan nahi du Euskaltzaindia, zein irekia baitago bere aurrekontuaren gehiena ematen duten Herri Aginteen kontrolerako, normala den bezala, inoiz ez dela eremu honetan eskatzen den bidetik aldendu. Eta esan nahi du halaber, Akademiaren defizita ematen zaion diru kopurua aski ez izatetik datorrela.»

— AEK elkarteak, bi urtean behin antolatzen duen Korrika ekitaldia aurten Donibane-Lohizunen hasi eta martxoaren 26an Gasteizen bukatu da. Bukaerako ekitaldian, E. Knörr idazkariak eta Manu Ruiz Urrestarazuk parte hartu dute Erakundea ordezkatzuz. Amaitzeko, E. Knörrek Jean Haritschehar euskaltzainburuaren lekukoaren mezua irakurri du.

— Arabako Batzar Nagusiek deiturik, martxoaren 28an, Euskaltzaindiaren idazkaria eta Jagon sailburua den Endrike Knörr, Manuel M. Ruiz Urrestarazu Arabako ordezkaria eta Jose Luis Lizundia idazkariordea izan ziren ponentziaren bileran.

— Eibarko Udaletxean, *Eibarko hiri-toponimia*, Onomasticon Vasconiae bildumako 13. liburukia aurkeztu da.

— Martxoaren 31n, eguerdiko 13.30etan, Miguel Rodriguez Ferrer, Larrabea granja-eskolaren sortzailea eta, besteak beste, *Los Vascongados, su País, su lengua y el Príncipe Luis Luciano Bonaparte* liburuaren egilea, omendu du Euskaltzaindiak, oroitarri bat ezarriz Larrabeako Golf Klubaren etxean. Ekitaldi honetan Euskaltzaindiko idazkariak eta Larrabeko gerenteak hitz egin dute.

## **Apirila**

— Apirilaren 12an, Gipuzkoako Diputazioan, batetik Herri Aginteen ordezkariak, hots, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Euskara Sustapenerako zuzendaria, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kultura Saileko ordezkariak, eta bestetik, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak eta sailburuek, aurreakordio bat sinatu dute, honako gai hauetaz:

1. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Nafarroako Comptos Ganbarak egindako Fiskalizatze-txostenaz.
2. Hitzarmen berriaz.
3. Euskaltzaindiaren aurrekontu eta Herri Aginteen dirulaguntzaz.
4. Euskararen azpiegituren eraikuntza eta Euskaltzaindiaren jardunbidea etorkizunean.

— San Prudentzio egunean, Saraoben, Aiarako eskualdearen Batzar Nagusien tokiari egin den euskararen jaiari, Manu Ruiz Urrestarazu Arabako ordezkaria izan da Euskaltzaindiaren izenean.

## **Maiatza**

— Hilaren 4an, egoitzan, prentsaurreko baten bidez *Euskaltzaindiaren ARAUAK* bilduma berria aurkeztu da.

— Jean Haritschelhar euskaltzainburuak parte hartu du Erakundearen izenean Herri Urrats Iparraldeko ikastolen jaialdiko aurtengo ekitaldian.

## **Ekaina**

— Hilaren 15ean, egoitzako batzar-gelan, Ignazio Etxebarria Bizkaiko Diputazio-ko Lehendakaritza Saileko diputatuak eta euskaltzainburuak hitzarmen bat sinatu dute. Agiri honen bidez Bizkaiko Diputazioak 2 milioiko dirulaguntza emango dio Euskaltzaindiari Atlaseko zintzen kopia egiteko CD-ROM euskarri informatikoan. Kopia honen bidez, Atlaserako bildu den informazioa ikerleen eskueran jarri nahi da, kontsulta horiek egiteko baliabideak Azkue Bibliotekan jarritz.

— Ekainaren 29an, Bilboko egoitzan, 1994ko Euskaltzaindia/BBK literatura sari-irabazleen lanen argitalpenaren aurkezpena egin da. Ekitaldi berean 1995eko sari hauen deialdia banatu da: «Txomin Agirre» eleberria; «Toribio Alzaga» antzerkia; «Felipe Arrese Beitia» olerkia; «Mikel Zarate» saiakera; «Resurrección M. Azkue», idazle gazte-entzako ipuin eta olerkiak.

## Uztaila

— Hil honen 12an, egoitzaren sarreran oroitarri bat jarri da. Josu Bergara Bizkai-ko diputatu nagusia, Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Mertxe Goienetxe, J.M. Makuaaren alargun andrea, eta L. Villasante euskaltzainburu ohiak parte hartu dute ekitaldi honetan. Oroitarriaren testuak hau dio: *Euskaltzaindiak Jose M. Makua Zarandona, Bizkaiko Diputatu Nagusi jaunari, egoitza hau lagatzeko sinatu zuen 10. urteurrenean. 95-7-10*. Bilduen artean Yolanda, Beatriz eta Jose M. Makua Goienetxe, J.M. Makua zenaren seme-alabak izan dira.

— Hileroko bilkurarekikoak:

Euskaltzainburuak goresmenak eman dizkio J.L. Davanti, berriki aurkeztu den *Aguirre presidenta* izeneko pastoralagatik. Halaber euskaltzainburu jaunak Xabier Kintanari Benjamin Tuterakoaren bidaiaren liburua argitaratzegatik.

## Iraila

— Miren Azkarate Jagon sailburuak aurkeztu du «Jagon sailaren egitasmoaz» de-ritzan txostena. Azken urteotako lana aipatu du Azkarate andreak lehen partean. Bigarrenean euskal erakunde eta lantaldeekin harremanak sortzeko premia eta asmoa azaldu du. Hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan egin beharreko lanak adierazi ondoren, Euskaltzaindiaren corpusaren gizarteratzeaz eta Jagon Sailaren bestelako egin-kizunez eta osaez mintzatuz bukatu du Azkarate andreak bere txostena.

— Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz urteoro antolatzen dituen literatura sariak direla eta, epaimahaiak izendatu dira. Iazko berberak izango dira, hots:

- «Txomin Agirre» eleberri sarian: X. Gereño, Tx. Peillen, Ana Toledo.
- «Toribio Altzaga» teatro sarian: E. Arozena, D. Landart, P. Urkizu.
- «Felipe Arrese Beitia» olerki sarian: J. Kortazar. M. Lasa, J.M. Lekuona.
- «Mikel Zarate» saiakera sarian: A. Arejita, A. Eguzkitza, A. Irigoien.

— Valentzian, hilaren 28an, Institut d'Estudis Catalans-ek argitaratu berri duen *Diccionari de la llengua catalana*-ren aurkezpena egin da. Katalan eremuko 14 unibertsitate-errektoreak, Hizkuntza erromanikoen Akademietako ordezkariak, eta Euskaltzainburua mintzatu dira. Beronek, gure hizkuntzaren Akademiaren atxikimendua agertu du. Ekintza honetara J. Haritschelhar eta J.L. Lizundia joan dira.

## Urria

— Nafarroako Gobernuako presidentea den Javier Otano jaunari bisita egin dio Euskaltzaindiak, urriaren 18an. Bertan Jose M. Rodriguez Ochoa, Nafarroako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia izan da.

— Herri Aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko II. Hitzarmena sinatu da Bilbon, urriaren 27an.

— Batzorde eta egitasmoen 1995eko planak eta Herri Aginteen 1995ean emango duten diru-kopurua zehazten dituen dokumentua ere sinatu da aipatutako egun berean.



Bilboko egoitzan, 1995-10-27an, II. Hitzarmenaren sinatze-ekitaldian. Ezkerretik eskuinera: *Tomas Uribeetxebarria, Mari Karmen Garmendia, Jean Haritschelhar, Federico Tajadura.*

— Begoñako Andra Mariaren basilikan, azaroaren 9an, euskaltzain urgazlea den Karmelo Etxenagusia Bilboko apezpiku laguntzaile sagaratu da. Euskaltzaindiaren izenean elizkizun horretan Jean Haritschelhar euskaltzainburua izan da, eta baita Juan M. Lekuona, Xabier Kintana, Emile Larre euskaltzain osoak eta J.L. Lizundia idazkariordea ere.

### **Abendua**

— Euskaltzaindiak Juan Antonio Mogelen 250. urteurrena dela eta, Eibar eta Markina-Xemeingo udalek antolaturiko ekintza zenbaitetan parte hartu du. Azkue Bibliotekak hiri bietan egindako erakusketarako liburuak eta eskuizkribuak utzi ditu eta baita prestakuntzan lagundu ere. Zuzendaritza, ospakizun hori dela eta, Eibarko Udaltxean bildu da inaugurazio egunean, abenduaren 5ean. Luis Villasante euskaltzainburu ohiak «Mogelen garaia» deituriko hitzaldia irakurri du. Markinan, berriz, Literatura Ikerketa azpibatzordeak bere ohiko bilkura egin du, Mogelen omenez.

— Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxaren laguntzaz urteoro antolatzen dituen literatura sarien epaiaren berri eman da. «Txomin Agirre» saria Luis Mari Mujikak irabazi du, *Hiru egun Larburun* deritzan eleberriaz. «Toribio Alzaga» saria Juan Jose Olasagarrek eskuratu du, *Hegazti errariak* teatro-lanaz. «Felipe Arrese Beitia» sarian Jose Felix Azkona gertatu da irabazle, *Artius* olerki-bildumaz. «Mikel Zarate» saria Pako Sudupek eraman du, *Nemesio Etxanizen biografia* saiakeraz.



Bilboko egoitzan, 1995-12-29an, euskaltzainburua Rosa Mari Arzari Euskaltzaindiaren domina ematen. Ezkerretik eskuinera:

*Juan Mari Lekuona, Jean Haritschelhar, Rosa Mari Arza, Miren Azkarate, Pello Salaburu.*

— Euskaltzainburuak eman dio Rosa M.<sup>a</sup> Arza Euskaltzaindikiko Salmenta eta Banaketa Zerbitzuko arduradunari, Euskaltzaindiaren domina, hizkuntz Akademia honetan 25 urte lanean bete baititu.

## **II. Sailak eta batzordeak**





## **BATZORDEEN LANA**

Euskaltzaindiaren lanaren emaitza batzordeei zor zaie, batez ere. Euskaltzaindiak gaur egun burutzen duen lan akademikoa ezin ulertuzkoa izango litzateke hilero-hilero biltzen diren batzordekideen lanik ez balego. Elkar-lan horrek biltzen du adituen ekarria eta hor prestatzen eta oinarritzen dira ondoren Euskaltzaindiak hartzen dituen hizkuntz erabakiak.

Euskaltzaindiak bi sail ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Bi urtetik bi urtera berriztatzen ditu Euskaltzaindiak sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak izendatzen dira edota lantaldeak sortu, kasuan kasuko batzordearen premien arabera.

Batzorde horietan, euskaltzain oso eta urgazleez gain, alor desberdinetako adituak biltzen dira: unibertsitateetako irakasleak, batxilergo institutueta irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten irakasleak, idazleak, komunikabideetako teknikoak, itzultzaileak, hiztegiak eta administrazioetako teknikoak. Hori horrela izateak Euskaltzaindiaren lana aberasteaz aparte, oso oinarri sendoak eskaintzen ditu erabakiak hartzeko orduan. Baina horrek, bestalde, berez dakar prozedura zailtea, konplikatea, batzordekideek beren ogibidea baitute, eta tarteka egiten dute lana Euskaltzaindiarentzat.


### **Batzordeen lan-metodologia**

Batzordeen lana talde-lana da, eta nahiz eta hasieran batzordekide jakin baten oinarrizko ikerketatik abiatu, batzordeak bideratzen du gaia. Esan liteke, oro har, batzordeen lanmoduan ondoren adierazten diren urratsak ematen direla:


- a) Batzordeak lehenik txostenak egiteko enkargua ematen die batzordekideei.
- b) Batzordekideek beren txostenak prestatzen dituzte.
- c) Batzordekideek beren txostenak irakurtzen dituzte batzordean.
- d) Batzordeak eztabaidatu egiten ditu, eta txostengileek aldatzen dituzte txostenak, behar izanez gero, batzordeak erabakitakoaren arabera. Prozesu honek txostenak bi edo hiru aldiz berridaztea ekar dezake berekin, batzordeak testua osorik ontzat eman arte.
- e) Zenbait kasutan, batzordeak bekadun baten laguntza izan dezake, esku arteko lanak edo txostenak egin ahal izateko informazioa eskuratzen duena, Hiztegi Batua edo Gramatikaren kasuan bezala.

## Batzordeen 1995eko bilerak

Hona hemen, grafikoen bidez azalduta, batzorde desberdinek aurten egin dituzten bilerak:



Guztira, hilero egin den bilera-kopurua



Batzorde bakoitzak zenbat bilera egin duen urtean

## **II.1. Iker Saileko batzordeak**



### **II.1.1. Hiztegi gintza**



### **II.1.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA**

#### **Sarrera**

Akademiak bere xede eta helburu nagusien artean du euskal hiztegia biltzearena (ikus Arautegiaren 1. art., c). Azkueren hiztegia agortu zenean, Euskaltzaindiak Koldo Mitxeleneri eman zion bigarren edizio eguneratua eta osatua prestatzeko agindua. Lan hori oso astiro zihoan, alde batetik, eta, bestetik, ibilian-ibilian uste ez bezalako neurria hartzen joan zen. Pertsona bakarra ez zen gauza tamainu hartako proiektua gauzatzeko. Horrela, 1984ko maiatzaren 16an hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioek eta Euskaltzaindiak *Orotariko Euskal Hiztegia* gauzatzeko. Geroago, Nafarroako Gobernua ere atxiki zitzaion proiektu honi.

Proiektua pertsona bakar batena izatetik lantalde batena izatera pasatu zen. Bestetik, lehen ez bezalako baliabideak izango ziren geroztik: giza baliabide ugariagoak eta informatikaren laguntza.

Informatizazio-plana EJIek (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak) burutu du, eta berak darama gai horrekiko guztia. Lantaldeak prestatu egiten du hiztegia, EJIek prozesatzen du informazio hori liburuak duen formatoaren arabera, eta argitaletxeen (Editorial Desclée De Brouwer, S.A. eta Ediciones Mensajero-ren) esku geratzen da liburua argitaratzea eta banatzea.

Hiztegi honek garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da, eta ez arauemailea. Euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar zein hitz eta esapidez baliatu diren eta nola baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzea da hiztegiaren xedea.

Ia hirurehun liburutatik jasotako corpusetik lau milioitik gorako hitz-altxorrekin lan egiten da. Hots, tradizioaren bilketa-lanean oinarritzen da proiektua.

Hiztegiaren 1. liburukia 1987an argitaratu zen, eta 8.a 1995ean. Guztira 15 liburuki izango ditu.

#### **Lan-metodologia edo prozedura**

*Orotariko Euskal Hiztegi*ko (OEHko) lantaldeak kasuan kasuko liburukiaren materiala prestatua duenetik liburukia kalean izan arte pauso hauek ematen dira:

1. OEHk liburukiaren testua duen zinta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzara bidaltzen du.

2. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak EJIera bidaltzen du zinta hori.
3. EJIek (Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak) hau egiten du:
  - a) zintako datuak prozesatu egiten ditu, informazioa, kodeak eta zeinuak, liburuak izango duen erara egokituz.
  - b) Zinta egokitua Madrilera bidaltzen du, SAF izeneko fotokonposizio-etxera.
4. Madriletik, SAFetik, OEHra (Donostiara) 1. frogak igortzen dituzte.
5. OEHk hau egiten du:
  - a) 1. froga horiek zuzendu, eta
  - b) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzara bidali.
6. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak zinta EJIera igortzen du.
7. EJIek hau egiten du:
  - a) zuzenketak gauzatu testuan, eta
  - b) zinta berriz bidali Madrilera.
8. Madrileko SAF fotokonposizio-etxeak 2. -eta azken- frogak bidaltzen ditu OEHra.
9. OEHko lantaldeak:
  - a) zuzenketak egiten ditu, eta
  - b) zuzenketa egin zaien orriak bakarrik bidaltzen dira zuzenean Madrilera.
10. SAF fotokonposizio-etxeak zuzenketak egiten ditu, eta argitaletxeen gain geratzen da liburukia argitaratzea.

## **1995eko lanen berri**

### **VIII. Liburukia**

#### **VIII. liburukiaren idazketa**

Martxorako amaitua zen VIII. liburukiaren idazketa.

#### **VIII. liburukiaren zuzenketak**

A) Urtarriletik irailera bitartean, liburuki honetan jaso diren GAR-GUB arteko hitzen testua zuzendu da. Zuzenketa-mota honek, liburuki jakin baten testua lantaldeak bukatu bitarteko lana hartzen du, ez geroago aipatuko den proben zuzenketa.

Ondoko eranskinetan erakusten dira epe honetako zuzenketa-lan desberdinei buruzko xehetasunak:

- a) Adibideen zuzenketari dagokionez (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak), GAS-GUB zatia burutu da.



- b) Sarrera-buruei dagokienez (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hizte-gigileen aipuak, e.a.), GA-GUB zatia landu da.
- c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, FE-GUB zatiak landu dituzte bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren beste-arenak aztertuz.
- d) Zuzenketa filologikoan eta lexikografikoan, FE-GUB zatia landu dute bi zuzentzaileek.

B) Proben zuzenketa: irailaren azken aldetik azaroaren erdira bitartean, liburukia-ren inprimategiko bi proba zuzendu dira, FE-GUB arteko testua.

### **VIII. liburukia argitaratu**

1995eko abenduan inprimatu da *Orotariko Euskal Hiztegiaren VIII. liburukia*:

- FE-GUB letren arteko hitzak jasotzen ditu,
- 853 orrialdeko liburukia da, eta
- 8.172 hitz-sarrera desberdin ditu.

## **IX. Liburukia**

### **IX. liburukiaren idazketa**

Martxotik abendura, GUB-IZA letren arteko testua idatzi da, ondoko eranskine-an ikus daitekeenez.

### **IX. liburukiari dagozkion zuzenketak**

Atal hau, normala den bezala, gainerakoak baino gutxiago landu bada ere, zuzen-keta-lan hauek burutu dira, azarotik abendura bitartean:

- a) Adibideen zuzenketari dagokionez (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak), GUB-GUD zatia burutu da.
- b) Sarrera-buruei dagokienez (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hizte-gigileen aipuak, e.a.), GU-GUD zatia landu da.
- c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, GUD zatia landu dute bi zuzen-tzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren besteare-nak aztertuz.

# 1. ERANSKINA

## 1995eko ZUZENKETA-LANAK

	KOORDINAZIOA ETA ZUZENKETA		TESTU ZUZENKETA	SARRERA- -BURUEN ZUZENKETA	ZUZENKETA FIL. ETA LEXIK. MAKINARATZEA
Urtarrila	gar-/gel-	fe-/fr-	gas-/gel-	ga...	gar-/gel-
Otsaila	ges-/gez-		gas-/gel-	ga...	—
Martxoa	gez-/gind-	gar-	gel-/gez-	ga...	fe-/gar
Apirila	gind-/giz-	gerl-/gi-	gez-/gi-	ga-/ge-	gam-/gar
Maiatza	ga-/gam		gi-	ge-/	gel-/gi-
Ekaina			gi-/go-	ge-/go-	ga-/gal-
Uztaila	go-	ga-/gal-			gi-/go- gar-/ger-
Abuztua	go-/gu-	ger-/gu-		go-/gu-	go-/gu- ga-/gal-
Iraila			go-/gu-		gub- ger-/gub-
Urria	Bigarren zuzenketak: FE-/GUB-                  FE-/GUB-		go-/gu-	gu-	2. zuzenketak FE-/GUB-
Azaroa	Azken begirada		gu-	Azken ikutuak gud-	—
Abendua	gud-	—	gud-	gud-	—

## 2. ERANSKINA

### 1995eko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
go-	go-	go- igu- ii-	ii- ij- ik-	ik-	ik- io- ip-	ip- irr- irt-	is- ix-	is- ix-	is- ix-	is- ix-	itu- itz-
id-	id-	id-	il-	il-	im-	im-	iru-	iru-	iru- itsa- itxa-	itsa- itxa-	itsa- itxa- iza-
gu-	gu- ie-	ie- if- ib-	ib-	in-	in-	ing-/inu-	ing-/inu-	ing-/inu-	ing-/inz-	ing-/inz-	ing-/inz-
gai-	gai-	gai- gal-	gai-	gai- ia-	ia-	ire-/iro-	ire-/iro-	it-/ito-	it-/ito-	itse-i itxe-i	itso-u itxo-u
guz-	guz- ig-	ig-	ig-	ig-	ig- ir-	irag-	irai-/ iraz-	irai-/ iraz-	irai-/ iraz-	irai-/ iraz-	irai-/ iraz-



## II.1.1.2. LEXIKO ERIZPIDEEN FINKAPENA (LEF)

### Sarrera

Euskaltzaindiak, 1986an, liburu hau argitaratu zuen: *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*. Gai horri jarraipena eman nahirik, Lexikologi Erizpideak Finkatzeko batzordea sortu zuen Euskaltzaindiak, 1986ko udaberrian, Beloken egindako Jardunaldietan. Batzorde honi bi egiteko hauek ezarri zitzaizkion:

- a) Hitz-elkarketa lantzeko irizpideak aztertzea, eta
- b) Hitz elkartuen sailkapen-saioa egitea.

Batzorde honek 1987tik gaur arte hiru liburu argitaratu ditu hitz-elkarketari buruz, eta bi liburugai prestatzen ari da bata hitz-elkarketaz eta bestea eratorpenaz.

Batzorde hau, lantalde bezala bere egitekoa gehienbat betea zuela-eta, ez da berriztatu 1995-1996 urteetarako. Amaitu gabe geratu den lana, orain arteko batzordeburuaren eskuetan uztea erabaki da, bekadunaren laguntzarekin buka dezan.

### 1995ean burutako lanak

Batzordeak urtean zehar bost bilera egin ditu, bereziki prestatu eta eztabaidatuta zeuden txostenei azken idazketa emateko. Lehen bi egitekoak *-Eratorpena* eta *Hitz-elkarketa-* batzordeburuaren eta bekadunaren esku utziak ziren, eta hirugarrena burutzea *-Erdal aurrizkien euskal ordainak-* batzorde-lanari zegokion.

### Eratorpena

Txosten eta adibidetegien prestaketarekin jarraituz, aurreko urteetan batzordekideek idatzitako 49 txostenak irakurri ditu urtarriletik uztailean arte lanean aritu den bekadunak, egiturazko bateratzeak eginez edo guztien argibideak eskema berera bilduz, hots:

- a) atzizkiaren lema eta aldaerak
- b) hitz eratorriaren kategoria eta azpikategorizazioa
- c) hitz oinarriaren kategoria eta azpikategorizazioa
- d) atzizkiaren adierak

- e) atzizkien pilaketa edo garapena
- f) junturako hots-aldaketak
- g) atzizkiaren emankortasuna.

Huts-erratak zuzenduz, adibideak gehitu-osatuz, zehatzagotu beharrekoak seinatuz, bukatutzat eman da aztergai honi dagokion lehen idazkuntza osoa.

### **Hitz-elkarketa**

Egitasmo hau burutzeko, menpekotasunezko hitz elkartuak xeheki azalduko dituen *Hitz-elkarketa* / 2 liburugaia prestatzea falta da.

Elkartu-moten 20 sailtako bat da menpekotasunezko hitz elkartuena, zabal eta emankorra, ordea (adibideetan, beste 19 sailek batera adina ditu sail bakar honek): osae-raz egitura berekoak dira denak («izen + izen», alegia), baina modu askotarikoak osagai bion arteko erlazio semantikoari dagokionez: mugatzaileak, adibidez, elkartuaren 'itur-burua' adieraz dezake, edo 'edukia', edo 'jabegoa', eta abar.

Ugaritasun horrek eraginda, erlazio semantikoen araberako azpisailkapena egitea erabaki da, azalpenak argigarriago gerta daitezten. Adibidetegi osoa (7.750 hitz elkartu) aztertu dute Miren Azkarate batzordeburuak eta Elixabete Perez Gaztelu batzordekideak, irizpideak eztabaidatu-bateratuz eta hitz elkartuak banaka azpisailkatuz. Bekadunak, ondoren, kodetu egin ditu emaitzak datu-basean (hainbat multzo elkartu eta testuinguruak egokitzeaz gain). Lana erabat amaitzeko, azalpen teorikoak lantzea izango da hurrengo urratsa.

### **Erdal aurrizkien euskal ordainak**

Batzordeak 1995ean egin dituen bilerak, erdal aurrizkien euskal ordainei dagozkien txosten berrituak eztabaidatzen eman ditu, Euskara Batuko batzordeari aurkeztu beharreko *-ari/-lari* eta *-ari(o)* langaiak zehazteaz gain. Azken idaztaldian bildu dira, horrela, ondoko aztergaiak:

- a) «Erdal aurrizki zenbatzaileen irtenbide bila II (ondore modukoak)».
- b) «*co(n)-* eta *equi-* erdal aurrizkien euskal baliokideak».
- c) «*in-* erdal aurrizkiaren ordainak euskaraz».
- d) «Leku-denborazko erdal aurrizkien egokitzapena: euskarazko izen/posposizioen erabilera elkarketetan».

Horrenbestez, amaitutzat eman du batzordeak egitasmo honi buruzko bere egitekoa.

### II.1.1.3. HIZTEGI BATUKO BATZORDEA

#### Sarrera

*Hiztegi Batua* eta *Orotariko Euskal Hiztegia* dira Euskaltzaindiak lexikografiaz dituen bi egitasmo nagusiak. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* helburua euskararen hitz-ondarea jasotzea bada, *Hiztegi Batuarena* hiztegi arauemailea gauzatzea da.

Euskaltzaindiak zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatal Izendegia*, e.a. Ondoren, euskararen beharrei erantzuteko nahitaezkoa zela euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea ikusi zuen Akademiak, eta horretarako sortu zuen 1992an *Hiztegi Batuko batzordea*. Oinarritzko hiztegi honek eguneroko bizitzako hitz erabilienak finkatuko ditu.

Lanaren metodologia eta irizpideak zehazten pasatu zuen batzordeak 1992a, eta 1993an hasi zen lehen hitz-zerrenda aztertzen eta ontzat ematen.

Batzorde honen lan-metodologian aipatzekoak dira iritzi-emaileak. Batzordeak, hitz-zerrendak onartu ahala -letraka- 105 iritzi-maileri igortzen dizkie, azter ditzaten eta oharrak egin, hala balegokio.

#### 1995ean burututako lanak

##### Batzordeak hitz edo formak aztertzea

*Hiztegi Batuko batzordeak* 1995ean 20 bilera egin ditu eta bilera horietan 5.500 hitz edo forma ikusi nahiz berrikusi ditu. Horietatik:

- 900 inguru hitz, aurreko pasaldietan azterkizun utzitakoak izan dira;
- 4.600 hitz inguru, aztergai berriak. Jatorriari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegian* halako tradizio sendoa dutenak, eta EEBSen (*Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematikoaren*) corpusean maizenik agertzen direnak dira horiek.

Batzordeak landu duen hiztegi-zatia *haurkeria* eta *murgiondo* berben artekoa izan da.

## **Argibideen txostena eguneratzea**

Alde batetik, batzordearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz joan da.

Bestetik, forma desberdinak aztertu dira kasuan kasuko informazioaren argitan: informazio horien artean, aipatu beharrekoak dira batzordearentzat lan egiten duten bi bekadunek eta UZEIko prestalaneko taldeak egindako txostenak. Informazio horien arabera, forma edo hitz bakoitzaz batzordeak bere iritzia eskaini du:

- onartzeko forma den
- beste baten aldean hobestekoa den
- bigarren mailan onartzekoa den
- okerra den
- erabilera-eremuaz
- sintaxiaz eta bestelakoez.

Datu horiek guztiak jaso eta egituratzen dituen dokumentua da batzordearen lanaren lekuko, eta horixe da euskaltzainei eta gainerako iritzi-emaileei banatu zaiena.

## **Euskaltzainei eta iritzi-emaileei hitz-zerrendak bidali**

Urtean zehar hitz-zerrenda hauek banatu dizkie batzordeak euskaltzainei eta beste iritzi-emaileei:

- martxoan: F eta G letren zerrendak (F: 274 hitz, G: 1.119)
- maiatzean: H letraz hasitako hitzen zerrenda (1.253 hitz)
- uztailan: I eta J letren zerrendak (I: 1.432 hitz, J: 463)
- abenduan: K eta L letren zerrendak (K: 1.428 hitz, L: 1.121).

Guztira, F-L arteko hitzak 7.090 izan dira. Horietatik 5.980 onartuak ditu batzordeak, eta beste 1.110etatik 323 hurrengo pasaldian hobeto ikusteko utzi dira eta 787 berba baztertzekotzat emanak.

## **Euskara Batuko batzordeari hitz-zerrendak aurkeztea**

Euskaltzainek eta iritzi-emaileek egindako oharrak erantsiz, batzordeak berraztertu egin ditu hitz-zerrendak, eta Euskara Batuko batzordeari pasatu. 1995ean, hauek bidali dizkio Euskara Batuko batzordeari:

- maiatzean: A letrako zerrenda (1.300 hitz)
- azaroan: B letrako hitz-zerrenda (1.500 hitz).



## **II.1.2. Gramatika batzordea**



## GRAMATIKA BATZORDEA

### Sarrera

Batzorde hau aspaldidanik ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen, eta 1984tik 1994ra bitartean zazpi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da, ondoren, gai horretaz liburua argitaratzeko. Liburu hori ere lehenago aipaturiko liburu-sortan kokatuko da. *Menderakuntzaren* barnean, *-en* eta *-ela* menderagailuen azterketa egiten dihardu batzordeak, txostenak prestatuz eta eztabaidatuz, behar diren idaztaldiak eginez.

### 1995ean egindako lana

Gramatika batzordeak 1995ean zortzi bilera egin ditu, eta *menderakuntzari* buruzko txosten hauek prestatu ditu eta urtean zeharko bilera desberdinetan eztabaidatu, batzuetan idaztaldi bat baino gehiago eginez:

- «Perpaus erlatiboak: eskema orokorra»
- «Perpaus izen lagunak»
- «*Ezen* partikula Nafarroako testuetan»
- «Konparazioez (II)»
- «*ezen / baizik-eta + ... ela*»
- «*-na-ren* erabilera»
- «Konparatiboak: *adina, bezainbat, adinbat*»
- «Helburuzko perpausak»
- «*Non eta ... -en* moduko esapideak»
- «*-(e)n + a + gatik*»
- «*Hainbeste, bezanbat*»
- «Perpaus osagarrietan *-na* Fr. Migelen testuetan (1778-1801)»
- «*-enean* eta *-eneko* atzizkiak»
- «Perpaus erlatiboak»
- «*(e)n + adberbio hondarkiak*»

- «Perpaus erlatiboen pilatzea»
- «Ezen / baizik-eta ...*(e)la*».
- «Konparatiboak: *beste, lain,...*»
- «*-ela*-rekiko perpaus jokatu osagarriak».

### **Hizkuntza kontsultak**

EITBko euskara-arduradunak idatziz egindako galderari erantzunez, gai hauei buruzko erantzuna burutu du batzordeak:

- *Errege* eta abarri buruzko iritzia.
- Zenbait aditzen laburdurak ahozko erabileran.
- *Hiruk baino gehiagok* eta antzekoen erabilera.
- *Zin egin* aditzaren erregimena.
- Beste zenbait aditzen erregimena (*sinetsi, amets egin, maitemindu, fidatu, gogoratu, oroitu, pentsatu, dimititu, utzi*).
- *Galdu izango dut* bezalakoak.
- *-t(z)e aldera*.
- «*Han coincidido en señalar*».
- *Atsegingo dut* (ez *atsegin izango dut*).
- *Baizik, besterik* eta antzekoak.

### **Iturriak**

Aurreko urteetan bezala, 1995ean ere Gramatika batzordea *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpuseko informazioaz baliatu da bere lana egiteko. Nahitaezkoa da honela jokatzeko egiten diren ikerlanek behar bezalako oinarria izan dezaten. Jesus Mari Makazaga batzordekideak egin du lan hori, aipaturiko corpus horretatik txostengileek eskutatuko adibideak bilduz eta eskuratuz.

Alor honetan, batzordekideek *menderakuntzaz* egindako 26 txosteni buruzko informazioa bildu da, eta EITBk eskatutako txostenari erantzuteko 15 hizkuntza punturi buruzkoa.

**II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea**  
**Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)**



## EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

### Sarrera

Euskarak oraindik ez zuela bere atlasa ikusirik, eta ezin atzeratuzko premia zela, Euskaltzaindiak proiektu zabal hau martxan jartzea erabaki zuen 1984an: Euskal Herriko Hizkuntza Atlasarena, hain zuzen. Gai honi euskal gizartean beste inork ez ziola heltzen eta, Euskaltzaindiak bere gain hartu zuen, eta horretarako batzordea sortu. Hain zuzen, Julio de Urquijo jaunak, 1918ko Oñatiko Biltzarrean, sortu berri zen Euskaltzaindiaren bi xede nagusiak aipatu zituen: hiztegia aberastea eta atlasa egitea. Hala zioen Julio de Urquijo jaunak, 1918an, diputazioen babesean antolatu zen Eusko Ikaskuntzaren lehen Biltzarrean, Oñatin:

«...pero si las Diputaciones vascas y el país en general desean que esta ciencia se ponga de una vez a la altura de otras ramas, hoy más adelantadas, de la lingüística, debería decidir, lo antes posible, la formación del *Atlas Lingüístico del País Vasco*».

Batzorde horrek inkesta-sarea, galdesorta eta inkesta-metodologia landu eta finkatu zituen, eta 1986an probak egin ondoren 1987an hasi ziren inkestak egiten, horretarako inkestagileak hitzartuz.

Euskal Herriko 145 herritan egin dira inkestak: Bizkaiko 36tan, Gipuzkoako 36tan, Arabako 1ean, Nafarroako 27tan, Lapurdiko 15etan, Nafarroa Behereko 18tan eta Zuberoako 12tan.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun bildu dira. Horietatik 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 syntaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. Goian esandako 145 herritan egin diren inkestez 2.400 zinta grabatu dira, guztira, burutu ondoren 4.000 ordu baino gehiagoko grabazioa osatuz.

Inkesta jasoketa burutu eta haien ondorioak eskuz kuaderno batzuetan (herri bakoitzeko 5 kuadernotan) jaso ondoren, 1990ean datu-base automatizatu bat eratzea erabaki zen. Horretarako Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteak (EJIE) programa berezi bat egin zuen, eta harez geroztik lantaldea datuak base horretan sartzen aritu izan da (gutxi gora-behera heren bat bukatua da 1995eko amaieran).

Halaber 1995ean iraupen luzeko disko konpaktoetan jarri dira zinta magnetikoak, eta Atlasaren corpus fonikoa gisa horretan segurtatzen da.

Egitasmoaren helburua inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea, eta oro har ondorio horiek publikoaren eskuetan jartzea da. Hain zuzen ere, 1996an bidean emango da horretarako egin beharra den informatika eguneraketa, aurreko bi urteetan

egin ahal izan ez dena. Horri esker, dokumentazio zerbitzu baten oinarriak finkatu ahal izango dira, bai eta datu elaboraketari ekin ahal izango ere.

## 1995ean egindako lanak

### Bigarren kuadernoko inkestak datuak sartzen amaitu

1995eko irailaren amaieran burutu du lantaldeak atlasaren 2. kuadernoko datu-sarrerera, falta ziren 68 herriren datuak ordenagailuan sartuz:

- Araba (1): Aramaio.
- Bizkaia (21): Orozko, Lemoiz, Bakio, Euba, Ibarruri, Elorrio, Ondarroa, Elantxobe, Lekeitio, Busturia, Bolibar, Leioa, Bermeo, Zeanuri, Zeberio, Etxebarri, Otxandio, Kortezubi, Arrazola, Mendata eta Gizaburuaga.  
Herri honen zuzenketak sartu dira: Sondika.
- Gipuzkoa (8): Elgoibar, Mendaro, Deba, Ataun, Urretxu, Azkoitia, Leintz-Gatzaga eta Arrasate.  
Herri hauetako zuzenketak ere sartu dira: Donostia, Ikaztegieta, Hondarribia, Oñati, Araotz, Getaria eta Legazpi.
- Nafarroa (15): Abaurregaina, Leitza, Ezkurra, Igoa, Xuarbe, Donamaria, Etxalar, Alkotz, Oderitz, Zugarramurdi, Zilbeti, Goizueta, Dorrao, Mezkiritz eta Eugi.  
Hauen zuzenketak ere sartu dira: Eaurta eta Urdiain.
- Lapurdi (8): Ahetze, Arrangoitze, Senpere, Sara, Azkaine, Hendaia, Hazparne eta Donibane-Lohizune.
- Nafarroa Beherea (8): Isturitze, Ezterenzubi, Armendaritze, Arboti, Gamarte, Jutsi, Behorlegi eta Arruta.
- Zuberoa (7): Muntori, Larrañe, Santa-Garazi, Phagola, Sohüta, Altzai eta Urdiñarbe.

### DATU - SARRERA

HERRIALDEAK	HERRIAK	1. KUAD.	2. KUAD.	3. KUAD.	4. KUAD.	5. KUAD.
Bizkaia	36	36	36	4	4	4
Araba	1	1	1			
Gipuzkoa	36	36	36	8	5	5
Nafarroa	27	27	27	10	7	7
Lapurdi	15	15	15			
Naf. Beh.	18	18	18	5	2	2
Zuberoa	12	12	12		3	
<b>Guztira</b>	<b>145</b>	<b>145</b>	<b>145</b>	<b>27</b>	<b>21</b>	<b>18</b>

Taula honetan adierazten da Atlaseko datu-sarreraren egoera 1995eko abenduaren 31n: ezkerreko zutabeen, inkestak herrialde bakoitzean zenbat herritan egin diren esaten da, eta ondoan, datuak biltzen dituzten bost kuadernori buruz, zenbat inkesta-lekutako emaitzak sartuak izan diren datu-base automatikoan.



## **Hirugarren kuadernoko datuen sarrera**

Batzordeak, lehenik, zein alorretako informazioa sartuko den berraztertu du, eta hau erabaki: gramatikari dagozkion datuak (fonetika, morfologia eta sintaxia) biltzen dituzten kuadernoetako emaitzak sartzea. (Herri bakoitzean egin diren 5 kuadernoetatik 4 lexikoaz eta 1 gramatikaz dira). Batzordeak lehendik besterik pentsatua bazuen ere, ordena aldatzea erabaki du, gramatika alorreko gaiek sortarazten duten interesa kontuan izanik, eta horrela lehenago izango dute euskalariek Atlaseko informazioa eskuartean.

Ondoren, gramatikari dagokion atala prestatu da: jasotako erantzun-motak aztertu eta sor daitezkeen arazoei konponbidea eman zaie, datuak sartzeko lehenengo sistema bertsua erabiliko delarik.

Guztira, 9 herri hauetako inkestak informatizatu dira:

- Gipuzkoan (3): Errezil, Orio eta Beizama.
- Nafarroan (3): Arbizu, Igoa eta Urdiain.
- Nafarroa Beherean (3): Arboti, Baigorri eta Jutsi.

## **Laugarren kuadernoko datuak sartzen hasi**

Horrezaz gain, beste hiru herri hauen lexikoari buruzko atala (4. kuadernoari dagokiona) informatizatu da: Eskiula, Barkoxe eta Ürrüstoi. Bigarren kuadernoko datuak sartu ondoren, eta hirugarren sartualdian zer joango zen erabaki bitartean sartu dira herri hauetako laugarren kuadernoetako datuak.

## **Datuen elaboraketa eta kartografia lana**

Datuen elaboraketa eta kartografia lanari buruzko eskaintza desberdinak lortu ditu batzordeak enpresa eta elkarte zenbaitetatik urtean zehar. Eskuartean izan diren proposamen guztiak aztertu ondoren, eta informatikari baten iritzi teknikoa entzun ostean batzordeak Euskaltzaindiari aurkeztu dio bere aukera-proposamena. Euskaltzaindia harremanetan hasi da datuen elaboraketa eta kartografiarako programa prestatuko lukeen elkartearekin.

Alor osoari ekin ez arren, atal berri hori martxan jartzen denerako lagungarri izango den urrats hau eman da: informatizaturik dauden 1. eta 2. kuadernoetako datuak -diskete eta streamerretan gordetzen direnak- datu-base batean bildu dira. Eta informazio hori CD-ROM batean gorde da. Honek, datuak elaboratzeko aplikazioa burutzen denean, erraztu egingo du informazioaren bolkatua, hori berehala gauzatu ahal izango baita.

## **Inkesten zintak CD-ROMera pasatu**

Euskaltzaindiak Bizkaiko Foru Diputazioarekin sinaturiko hitzarmenari esker, urte osoan zehar burutu da zinta horietan dagoen informazioa -audioan dagoena- euskarri sendo eta iraunkorrera pasatze-lana. Euskaltzaindiaren enkarguz, lan hori Auten Bai Fundazioa aritu da egiten. Guztiaren bi kopia egiten ari da Euskaltzaindia: bata, masterra edo originala izango dena, eta bestea konprimitua. Azken hau jarri nahi du Euskaltzaindiak ikerleek kontsultatzeko eskueran.

## **EHHAren inguruko zenbait txosten**

Kanpoko erakundeetarako, osoen bilkuretarako, Zuzendaritzarako edo batzordearen beharrianetarako, azken batean, egitasmoaren lagungarri, txosten hauek burutu dira urtean zehar:

- Centre Nationale de la Recherche Scientifique-n aurkezteko gaurkotu du X. Videgainek lehen frantsesez egindako txostena: «L'Atlas linguistique du Pays Basque: situation actuelle eta perspectives».
- Hezkuntza Ministeritzako Ikerketarako Estatu Idazkaritzan aurkezteko, txosten bera gaztelaniara itzuli du Gotzon Aurrekoetxeak: «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa / Atlas Lingüístico del País Vasco: historia, situación actual y futuro».
- Korsikan atlasgintzan dabilzanek gonbidatuta, Colloque International «Bases de données linguistiques: conceptions, réalisations, exploitations» delakora joan dira Beñat Oihartzabal batzordeburua eta Xarles Videgain batzordekidea. European burutzen ari diren hizkuntz atlasetako datu-baseak aztertu dira bertan. EHHAri dagokionez, Xarles Videgainek «Notes sur l'informatisation d'un corpus oral en domaine basque» lana aurkeztu du.
- Atlas Linguistique Européen-en proiektuaren barruan, M. H. Franconie-ri, atal horren arduraduna den unibertsitateko irakasleari bidaltzeko, Xarles Videgainek «Le maïs en domaine basque» txostena prestatu du. Izaskun Etxebeste batzordekideak «Artoaz ohar bat» gehigarriaz aberastu du lan hori.
- Paueko Unibertsitateko, Xarles Videgainek «EHHA: lemmatisation et cartographie; proposition pour expertise» deituriko txostena bidali du.
- Beñat Oihartzabalek, 1995eko uztailaren 28ko batzarrean, txosten hau aurkeztu die euskaltzain osoei: «Euskararen atlasa: egitasmoen nondik norakoa eta egoera».
- Pello Telleria eragile teknikariak Zuzendaritzan aurkezteko, batzordeak prestatu eta egokitu du EHHAren proiektua: «Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA) proiektuaren eguneratzea: datuen elaboraketa eta kartografia».
- Beñat Oihartzabalek Zuzendaritzari lan hauek aurkeztu dizkio: «Atlasgintzako batzordeburuaren informazio txostena. Gaia: Atlaseko informatika programen inguruko arazo juridikoak» eta «Datu basea esplotatzeko informatika berrikuntza: Ibermática eta Aurten Bai Fundazioaren proposamenak direla-eta egindako txostena».
- Xarles Videgainek, Iparraldeko euskaltzain oso eta urgazleen urteroko bilkurarako eta Baionako ordezkartzarako honako txosten hauek aurkeztu ditu: «Euskal/Herriko hizkuntz atlasa: egindakoa» eta «Copie sur CD-ROM d'un corpus linguistique oral. Argumentaire»
- Batzordekideek egitasmoaren garapenerako egindako txostenak: Beñat Oihartzabalek, «Zenbait asmo eta gogoeta Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaz»; «Atlasgintzan bilduriko dokumentazioa nola kontsultagai egin publiko izateko gisan antolatu artean». Gotzon Aurrekoetxeak, «EHHA: datuen elaboraketa eta kartografia proiektuaren jarraipena». Xarles Videgainek, «EHHA: notak bigarren faserako; erantzunak, testuak, kopuruak»; «Datu-sarrera lankide batetik bestera»; «EHHA 3. atala: oharrak sarrerarako»; «Notak EHHako 5. atalaren sartzeko».

## ERANSKINA

## EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA: DATU-SARRERA (95-12-31)

INKESTA HERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
101 Getxo		X	X	X	X	X
102 Leioa	X	X	X			
103 Zollo	X	X	X			
104 Sondika	X	X	X			
105 Laukiz	X	X	X			
106 Lemoiz	X	X	X			
107 Etxebarri	X	X	X			
108 Zaratamo		X	X	X	X	X
109 Orozko	X	X	X			
110 Mungia	X	X	X			
111 Zeberio	X	X	X			
112 Bakio	X	X	X			
113 Fika	X	X	X			
114 Larrabetzu	X	X	X			
115 Arrieta	X	X	X			
116 Lemoa	X	X	X			
117 Dima		X	X	X	X	X
118 Zeanuri	X	X	X			
119 Errigoiti	X	X	X			
120 Bermeo	X	X	X			
121 Busturia	X	X	X			
122 Euba	X	X	X			
123 Mañaria	X	X	X			
124 Otxandio	X	X	X			
125 Ibarri	X	X	X			
126 Mendata	X	X	X			
127 Kortezubi	X	X	X			
128 Elantxobe	X	X	X			
129 Berriz	X	X	X			
130 Arrazola	X	X	X			
131 Elorrio	X	X	X			
132 Bolibar	X	X	X			
133 Gizaburuaga	X	X	X			
134 Lekeitio	X	X	X			
135 M.-Etxebarri		X	X	X	X	X
136 Ondarroa	X	X	X			
201 Aramaio	X	X	X			
301 (Le.-)Gatzaga	X	X	X			
302 Arrasate	X	X	X			
303 Eibar	X	X	X			
304 Araotz	X	X	X			
305 Oñati	X	X	X			
306 Bergara		X	X	X	X	X
307 Elgoibar	X	X	X			
308 Mendaro	X	X	X			
309 Deba	X	X	X			
310 Azkoitia	X	X	X			
311 Urretxu	X	X	X			

INKESTA HERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
312 Legazpi	X	X	X			
313 Zegama	X	X	X			
314 Itsaso	X	X	X			
315 Zestoa (Arroa)	X	X	X			
316 Azpeitia		X	X	X	X	X
317 Getaria	X	X	X			
318 Beizama	X	X	X	X		
319 Beasain	X	X	X			
320 Ataun	X	X	X			
321 Errezil	X	X	X	X		
322 Aia		X	X	X	X	X
323 Orrio	X	X	X	X		
324 Asteasu	X	X	X			
325 Ikaztegieta	X	X	X			
326 Amezketa	X	X	X			
327 Tolosa	X	X	X			
328 Donostia	X	X	X			
329 Lasarte	X	X	X			
330 Andoain		X	X	X	X	X
331 Elduain	X	X	X			
332 Oresa	X	X	X			
333 Hernani		X	X	X	X	X
334 Pasaia	X	X	X			
335 Oiartzun	X	X	X			
336 Hondarribia	X	X	X			
401 Urdiain	X	X	X	X		
402 Arbizu	X	X	X	X		
403 Dorrao	X	X	X			
404 Gaintza		X	X	X	X	X
405 Leitza	X	X	X			
406 Etxarri		X	X	X	X	X
407 Oderitz	X	X	X			
408 Goizueta	X	X	X			
409 Ezkurra	X	X	X			
410 Beruete		X	X	X	X	X
411 Igoa	X	X	X	X		
412 Etxaleku	X	X	X			
413 Xuarbe	X	X	X			
414 Sunbilla		X	X	X	X	X
415 Donamaria	X	X	X			
416 Etxalar	X	X	X			
417 Alkotz	X	X	X			
418 Anitz		X	X	X	X	X
419 Lekaroz		X	X	X	X	X
420 Zugarramurdi	X	X	X			
421 Eugi	X	X	X			
422 Errazu		X	X	X	X	X
423 Zilbeti	X	X	X			
424 Mezkitz	X	X	X			
425 Luzaide	X	X	X			
426 Abaurregaina	X	X	X			
427 Eaurta	X	X	X			

INKESTA HERRIA	PREST	ATALAK				
		1	2	3	4	5
501 Hendaia	X	X	X			
502 Don.Lohizune	X	X	X			
503 Azkaine	X	X	X			
504 Sara	X	X	X			
505 Senpere	X	X	X			
506 Ahetze	X	X	X			
507 Arrangoitze	X	X	X			
508 Uztaritze	X	X	X			
509 Mugerre	X	X	X			
510 Itsasu	X	X	X			
511 Urketa	X	X	X			
512 Beskoitze	X	X	X			
513 Hazparne	X	X	X			
514 Makea	X	X	X			
515 Bardoze	X	X	X			
601 Aldude	X	X	X			
602 Bidarra	X	X	X			
603 Baigorri	X	X	X	X		
604 Arnegi	X	X	X			
605 Uh.Garazi	X	X	X			
606 Irisarri	X	X	X			
607 Isturitze	X	X	X			
608 Arruta-Sa.	X	X	X			
609 Armendaritze	X	X	X			
610 Ezterenzubi	X	X	X			
611 Gamarte	X	X	X			
612 Landibarre		X	X	X	X	X
613 Behorlegi	X	X	X			
614 Arboti	X	X	X	X		
615 Garruze		X	X	X	X	X
616 Jutsi	X	X	X	X		
617 Larzabale	X	X	X			
618 Bastida	X	X	X			
701 Phagola	X	X	X			
702 Domintxine	X	X	X			
703 Urdiñarbe	X	X	X			
704 Altzürükü	X	X	X			
705 Larrañe	X	X	X			
706 Altzai	X	X	X			
707 Sohüta	X	X	X			
708 Muntori	X	X	X			
709 Santa Grazi	X	X	X			
710 Ürrüxtoi	X	X	X		X	
711 Barkoxe	X	X	X		X	
712 Eskiula	X	X	X		X	



#### **II.1.4. Onomastika batzordea**





## ONOMASTIKA BATZORDEA

Batzorde honek aztergai izan dituen gaiiei (ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak) exonomastika alorrekoak gehitu zaizkio, euskararen ofizialtasun egoera berriak hala eskatu ziolako, aurreko urteetan hasitako bideak fruitu oparoak eskainiz.

Nabarmenenak jarraian aipatuko direnak badira ere, badago etengabe egiten den lana, egoitzan zein ordezkartzetan, telefonoz zein zuzenean: ponte-izen eta deituren ziurtagiriena, egunoroko bizitzan nabari handikoa, norberaren ponte-izena izaten delako pertsona baten lehen ezaugarria.

Bilkurak hilabetero egin dira, udako etenaldia salbu: guztira hamar. Gizartearen eskaerak behartzen du batzordea hilabetero biltzera, gai askok eta askok berehalako erantzuna behar dutelako, bai herri-aginteen eskaerak, udal edo bestelako leku-izenez, baita gurasoenak ume jaio berriei izena jartzeko unean, gai bi baino ez aipatzearren.

Aurreko urteetan bezala, eta beti bere baliabide urrien mugapean, saiatu da batzorde hau onomastika alorreko euskararen jagote-lana egiten, batez ere herri-administratioetakoek onomastika alorra begirunez eta legeari so eginez erabil dezaten.

### Euskal Deituren Izendegia

1996an argitaratu nahi den deituren izendegiaren prestatze-lanetan, irizpide orokorrak finkatu dira lehenik eta ondoren, irizpide horietaz baliaturik, deitura-multzoak aztertu, eztabaidatu eta onartu dira banan-banan. Aztertze-onartze lan hau irizpideei so eginez baina tokian tokiko erabilera kontuan izanik burutu da, beti ere euskal deiturei dagokien idazkera egokia emateko asmoz. Datu nahikorik ez dagoen deituretan batzordeak hurrengo argitalpenerako uztea erabaki du, eta ondorioz deituraren bat ez bada azaltzen eskatzaileak zuzenean jo beharko du Euskaltzaindira.

Batzordeak, 1995ean zehar, *Euskal Deituren Izendegia* izeneko argitalpenean joango diren deituretatik hauek ikusi ditu:

- 5.000 deitura aztertu ditu, A-G letren artekoak.
- 4.000 deituraren idazkera onartu du, A-G letren artekoena.

### Exonomastikako hitz zerrendak

Batzordeak exonomastika alorreko zenbait gairi buruzko txostenak prestatu eta eztabaidatu ditu, eta kasuan kasuko proposamenak euskaltzainei bidali zaizkie, ondoren Euskaltzaindiak, hala baderitzo, gai honetaz erabakia har dezan. Lan honen garrantzia azken urteotan euskal munduak diharduen entziklopediagintzan eta ikasleen beharretan

datza. Izan ere, gero eta eskaera handiagoa baitago, euskaraz ikasten dutenen kopurua gora doan neurrian. Horren aurrean batzordeak Euskal Herriko tradiziozko izenak finkatu beharra ikusi du, baita erdaren eragina saiesteko premia ere.

a) Batzordeak egindako proposamenak, eta ondoren Euskaltzaindiak horretaz erabakia hartutakoak:

- «Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak»
- «Frantziako Errepublikako departamendu eta eskualdeen euskal izenak»
- «Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak»
- «Hizkuntza hilak eta klasikoak»
- «Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak».

b) Osokoen batzarrera aurkeztu ez arren, batzordeak txosten hauek ere prestatu eta eztabaidatu ditu:

- «Munduko hizkuntza eta dialekto batzuek
- «Akzidente geografiko nagusiak: uharteak, golkoak, lakuak, mendiak, ibaiak, eta abar»
- «Munduko hizkuntza nagusien eta dialekto batzuen euskal izenak»
- «Europako hizkuntza eta dialektoak»
- «Estatuetakoa hizkuntza ofizialak»
- «Munduko hizkuntz familiak».

### **Hiritarren nahiz erakundeen kontsultei erantzun**

Telefonoz eta idatziz egindako kontsultei erruz erantzun zaie, urtero bezala, eta horrezaz gainera ponte izenei eta deiturei buruzko ziuhtagiri-mordoska egin da. Gizabakoen era honetako eskabide eta kontsultak egin dituzte, baita erakunde eta elkarte ugari ere.

Erakundeek egindako kontsultei erantzunez, honako hauekin izan dira harremanak:

— Udalak:

Oiartzun, Aizoango Kontzejua, Erreterria, Zamudio, Zigoitia, Bilar/El Villar, Santikurutze-Kanpezu, Hernani, Donostia, Urduña, Legutiano, Irun, Basauri, Durango, Barakaldo, Lazkao, Morga, Bilbo, Gizaburuaga, Zuia, Zornotza/Amorebieta-Etxano, Harana, Urizaharra/Peñacerrada, Gaintza, Zumarraga, Koartango, Amurrio, Idiazabal.

— Beste erakunde publiko batzuk:

EAEko Hizkuntza Politikarako Sailordetza, HAEE/IVAP, Bizkaiko Diputazioa, Arabako Diputazioa, Gipuzkoako Diputazioa, ETB, Altsasuko Batxilergo Institutua, Bilboko «Juzgado de 1ª Instancia nº 8».

— Beste zenbait:

Eusko Trenbideak, Bilbo Handiko Uren Partzuergoa, Arratia-Nerbioiko «Gorbeialdea» Mendi Nekazaritza, Durangaldeko «Urkiola» Mendi Nekazaritza, «Jatondo» Mungialdeko Mendi Nekazaritza. Aldizkariak eta egunkariak: (*Euskaldunon Egunkaria, Kaioa -Deba-, Argia, Eroski, Artez, Bilbao*), e.a.

### **Arrasateko toponimia**

Lana batzordeak aztertu eta gainbegiratu du eta ontzat eman, inprimategira bidaltzeko prest utziaz:

Lanaren izenburua: *Arrasateko toponimia*.

Zein sailetan argitaratuko den: *Onomasticon Vasconiae*, 15.

Egilea: Jose Luis Ormaetxea Lasaga.

Arrasateko Udalak eta Kutxak babestutako lana da.

### **Urduñako Onomastika Jardunaldiak**

Jardunaldi horietako lan guztiak bildu dira eta Bizkaiko Foru Diputazioaren laguntzaz argitaratzeko prestatu eta zuzentzen ari da.

---

---

ONOMASTICON VASCONIAE

---

---

*B*

EIBARKO UDALA  
EGO IBARRA BATZORDEA

EIBARKO  
HIRI-TOPONIMIA



---

---

EUSKALTZAINDIA

---

---

1995



## **II.1.5. Literatura batzordea**



### II.1.5.1. HERRI LITERATURA AZPIBATZORDEA

Herri Literatura azpibatzeak 1995ean zehar 10 bilera egin ditu.

#### Jardunaldietako txostenak argitaratu

1994ko abenduan, ahozko literaturaren egindako III. Herri Literatura Jardunaldietan irakurri ziren hitzaldiak eta txostenak argitaratzeko prestatu dira.

Batzordeak argitaratzeko prest utzi ditu txosten eta hitzaldiok:

- «Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan»: Juan Mari Lekuona.
- «Ama hizkuntza biziko dea? (ohar batzu)»: Emile Larre.
- «Artazuriketak eta kontagintza»: Patri Urkizu.
- «Au confluent du style oral et du style écrit: un decouvreur: Marcel Jousse; sa vie, son oeuvre, son actualité»: Yves Beaupérin.
- «Testu ihartuak euskal tradizioan»: Jose M. Satrustegi.
- «Les traditions de style oral: naissance, mémorisation et transmission d'après les travaux anthropologiques de Marcel Jousse»: Yves Beaupérin.
- «Ipuin eta esaunda bilketa»: Juan Manuel Etxebarria.
- «Tartaroak»: Xabier Kaltzakorta.
- «Literatura oral aragonesa»: Rafael Andolz.
- «Aho-literaturatik ahozko literaturara»: Jon Kortazar.
- «On Manuel Lekuona: haustura eragotzi zuen gizona»: Joxe Ramon Zubimendi.

### IV. Herri Literatura Jardunaldiak

Jardunaldi hauen arrazoiak hau da: 1996an betetzen dira 400 urte *Refranes y sentencias* liburua Iruñean argitaratu zenetik. Durangon egingo dira, 1996ko udazkenean, Jardunaldi horiek.

Jardunaldi horiek paremiologiaz izango dira, hots, errefracio eta atsotitzez. Jardunaldien prestaketari ekin dio batzordeak 1995ean eta Jardunaldiek izango duten egitarautik, atal handi baten aurreprestatuaketa egin da. Hain zuzen ere, hitzaldi eta txostenen gaiak eta egileak begiz jo dira.

## Herri-literaturaren inguruko ekintzak

Bertsolaritzaren alorreko bi ekintza nagusi hauetan parte hartu du azpibatzaordeak: jardunaldietan eta epaimahaietan.



Usurbilen, 1995-09-29an, Udarregiren mendeurrean. Ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Arana, Jon Azpillaga, Antton Aranburu.

### Jardunaldiak

- a) Udarregiren mendeurrena  
Usurbilgo Udalak antolaturiko jardunaldi horietan batzorde honetako kideek parte hartu dute hitzaldiak irakurriz:
  - «Udarregiren inguruko beste bertsolariak»: Antonio Zavala.
  - «Udarregi liburua»: Antonio Zavala.
  - «Udarregiren belaunaldiaren ekarria bertsolaritzaren historian»: Jesus Mari Etxezarreta.
  - «Udarregi erretorikaren ildotik»: Juan Mari Lekuona.
- b) «Bertsomintza» jardunaldiak  
Bertsolarien Elkarteak antolatutako jardunaldi horietan hitzaldi hau irakurri du Pello Esnal batzordekideak: «Bertsolaritzaren alfabetak».

### Epaimahaiak

- Bi epaimahai hauetan parte hartu dute batzordekideek:
- Zarauzko «Basarri» sarian: Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi eta Jose Mari Aranalde.
  - Orixako «Orixek» sarian: Jose Mari Aranalde.



## Argitalpenak

Argitalpenetan oparoa izan da 1995. urtea. Izan ere, batetik, *Euskera* agerkarian argitaratu dira, Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarreko gainerakoekin batera, azpibatzerde honetako bi kideren lanak: Juan Mari Lekuonaren «Euskal estrofaz» eta Pello Esnaletan «Puntua bertsolaritzan». Bestetik, liburuak plazaratzen jarraitu du Auspoa Liburutegiak, Antonio Zavala azpibatzerdeburuaren eskutik. Guztira bederatzita liburu ateratu ditu 1995ean: Salvador Zapiain «Ataño»ren *Lotsaren iges*, Manuel Lasarteren *Enbor zarraren ezpalak*, Joxe Mari Etxabururen *Ondarroako kontuak*, Ramon Artolaren *Ipuiak eta kontutxoak* (bi liburu), Pello Esnaletan *Itzuliko naiz*, Antton Kazabonen *Koskoteneoak*, Bizente Barandiaranen *Lanik gabe ezin bizi*, Agustin Zinkunegiren *Bizi bearrak lege zorrotzak* eta Antonio Arzakaren *Idazlan sorta*.

Era berean, aipatzekoak dira hiru batzerdekide hauen lanak: Juan Mari Lekuonaren «Manuel Lekuona saria: Manuel Lekuona Etxaguren» (Eusko Ikaskuntza), Abel Muniategiren *Bertsogintza Bizkaian (Koplatik bertsotara)* (Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak), eta Juan Manuel Etxebarriaren *Gorbeia inguruko Etno-ipuak eta Esaundak* (Labayru Ikastegia) eta *Bizkaialdeko Ipuak-Esaundak* (Ibaizabal), azken bi hauek etnolinguistika alorrekoak.



## II.1.5.2. LITERATURA IKERKETA AZPIBATZORDEA

Azpibatzerde honek zortzi bilera egin ditu 1995ean. Euskal literaturaren alorrean oso gutxi landua dagoen gai hau aztertzen eta burutzen ari da azpibatzerdea: Euskal Literatura Hiztegia. Hiztegi horrek, hitz-zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango dituzten maila eta neurri desberdineko txostenak eskainiko ditu: artikuluz luzeak, ertainak eta laburrak.

### Literatura hiztegia idatzi: artikuluz luzeak idatzi eta eztabaidatu ditu

Batzordeak urtean zehar artikuluz luzeak prestatu eta eztabaidatu ditu:

#### Artikuluz luzeak

Bataz beste 7-8 orrialdekoak izaten dira artikuluz luzeak:

- «Barrokoa»
- «Erromantizismoa».

#### Artikulu ertainak

Bataz beste 2-3 orrialdekoak izaten dira artikuluz luzeak:

- |                         |                            |
|-------------------------|----------------------------|
| — «Alegoria»            | — «Harrera estetika»       |
| — «Analogia»            | — «Kritika psikoanalitiko» |
| — «Bertsolaria»         | — «Metonimia»              |
| — «Bihurkia»            | — «Nouvelle critique»      |
| — «Doinu-Aire»          | — «Tropoa».                |
| — «Errusiar formalismo» |                            |

#### Artikulu laburrak

Normalean orrialde batekoak dira artikuluz luzeak:

- |                  |                  |
|------------------|------------------|
| — «Adierazi»     | — «Antologia»    |
| — «Adierazle»    | — «Aszetika»     |
| — «Adimen-irudi» | — «Atala»        |
| — «Alusio»       | — «Ballet»       |
| — «Anadiplosia»  | — «Belaunaldi»   |
| — «Anagrama»     | — «Biografia»    |
| — «Anakoluto»    | — «Cuaderna via» |
| — «Anastrofe»    | — «Dandismo»     |
| — «Antanaklasia» | — «Edizio»       |

- |                      |                   |
|----------------------|-------------------|
| — «Egloga»           | — «Incipit»       |
| — «Eguberrri-kantu»  | — «Inspirazio»    |
| — «Enfasi»           | — «Isotopia»      |
| — «Epigrama»         | — «Kaligrama»     |
| — «Erreferente»      | — «Kantika»       |
| — «Estranbote»       | — «Konotazio»     |
| — «Etopeia»          | — «Mise en abyme» |
| — «Chanson de geste» | — «Paratestu»     |
| — «Faux-timbre»      | — «Sema»          |
| — «Idiolekto»        | — «Soziolekto».   |

### Jardunaldiak

Irailean, Udarregi bertsolariaren mendeurreneko jardunaldietan, azpibatzorde honen burua den Juan Mari Lekuonak hitzaldi hau irakurri du Usurbilen: «Udarregi erretrorikaren ildotik».

Abenduan, Juan Antonio Mogelen jaiotzaren 250. urteurrena dela eta, Eibarko eta Markina-Xemeingo udalek antolaturiko jardunaldietan, azpibatzorde honetako kidea den Xabier Altzibarrek hitzaldi hau eman du Eibarren: «Mogel euskal literaturan».



Usurbilgo Udaletxean, 1995-09-29an, Udarregiren mendeurrenean. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Jose Antonio Altuna, Juan Mari Lekuona.

## **II.1.6. Batzorde suntsikorrak**



### II.1.6.1. EUSKARA BATUKO BATZORDEA

Hizkuntzaren batasunerako bidean, gai jakin bat garrantzizkoa denean eta behar beste aztertu ondoren erabakia har daitekeela uste denean, Euskaltzaindiak kasuan kasuko erabakia hartzen du. Azken proposamena Euskaltzaindiaren osoen batzarrari aurkeztu diona Euskara Batuko batzordea da, nahiz eta normalean gaien azterketa eta oinarriko proposamenak dagozkion batzordetik prestatuak datozen.

Euskara Batuko batzordeak, hala derizkion kasuetan, ohargileei eta iritzi-emailei kontsulta egiten die. Pertsona horiek, gehienak, Euskaltzaindiaz kanpokoak dira, euskalgintzan, alor desberdinetan lanean ari diren profesionalak: administrazioetako funtzionarioak, argitaletxeetako eta komunikabideetako euskara-zuzentzaileak, irakaskuntza munduko teknikoak, itzultzaileak eta idazleak.

Batzorde honek 10 bilera egin ditu 1995ean zehar.

#### Gomendio eta araugai berriak

1994a garrantzi handiko urtea izan zen Euskaltzaindiarentzat, orduan egin ziren hainbat jardunalditan, eta batez ere XIII. Biltzarrean, batzorde desberdinek txosten ugari prestatu, landu eta aurkeztu baitzuten. Txosten horietako askotan hizkuntzari buruzko gomendioak edota arauak ematea proposatzen zen. Horrela, aurkeztu eta eztabaidatu ziren gaietatik adostasun haundiena lortu zutenei buruz dagokion erabakia hartuz joan da Euskaltzaindia.

Ildo horretatik, beste batzorde batzuetatik (Gramatika, Onomastika, LEF eta Hiztegi Batukotik) zetozen txosten hauek aztertu eta onarpen proposamenak aurkezten ditu osoen batzarrean, oharrak egiteko epeak emanez. Txosten hauek izan ditu aztergai batzorde honek:

- «*Hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkera»
- «-z *gero*»
- «Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak»
- «*Ongi etorri!*»
- «*Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia*»
- «Orduak nola esan»
- «Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola»
- «Frantziako Errepublikako eskualdeen euskal izenez»
- «Data nola adierazi»

- «Zenbait aditzen erregimena (*gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagun-du*)»
- «*Ekartzea merezi du*»
- «*Topiko(a) bihurtu*»
- «Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak»
- «Hiztegi Batua: *a - alkohol*»
- «Hiztegi Batua: *almendra - arratsalde*»
- «Hiztegi Batua: *arraun - azuzena*»
- «Hiztegi Batua: *ba - baliozko*»
- «*Egiteko asmoz*»
- «*Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen*»
- «*Arazi* aditzaren erregimena»
- «Gure egitura politiko batzuen euskal izenez»
- «*-ARI (-lari)* atzizkiaz»
- «*-ARI / -ARIO*»
- «Hizkuntza hilak eta klasikoak»
- «Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak»
- «Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak).

### **Gomendio izatetik arau izatera**

Euskaltzaindiak hasiera batean gomendio bezala eskainitako hizkuntz gai zenbait, izan duten harrera eta jasotako oharrak kontuan izanik, arau gisa eman ohi ditu ondoren. Euskara Batuko batzordeak heltzen dio berriz gaiari, eta berak aurkezten dio Euskaltzaindiari araugai. Bide horixe egin da lehenik gomendio gisa emana zegoen gai honekin:

- «Hitz elkartuen osaera eta idazkera».

Euskaltzaindiak 1992an gai honi buruzko zenbait gomendio eman zuen. Gomendio horiek izan zuten harrera kontuan izanik, batzordeak behin betiko erabakia hartzea proposatu dio Euskaltzaindiari, horretarako txostena aurkeztuz, oinarrian lehengo gomendioekin bat datorrena.

### **Ohargile eta iritzi-emaileak**

Behin bakarrik eskatu zaie iritzia ohargileei honako txosten hau bidaliz:

- «Aditzoinen forma».

Batzordeak aztertu, eztabaidatu eta ontzat eman du batzordekide batek aurkeztutako «Aditzoinen forma» izeneko txostena. Ondoren, ohargileei eta iritzi-emaileen eskuetara helarazi da. Kontsulta 5 ohargileri eta 78 iritzi-maileri egin zaie 1995eko otsailan, eta erantzun duten 10en oharrak aztertu ditu batzordeak, eta behin betiko proposamena euskaltzain osoen batzarrean aurkeztu.



## **II.1.6.2. AHOSKERA AZPIBATZORDEA**

Euskaltzaindiak, 1993an, 75. urteurreneko ekintzetarako sortu zuen batzorde hau, eta horrela, 1994ko maiatzean III. Ahoskera Jardunaldiak antolatu zituen batzorde honek, eta 1994ko urrian Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean parte hartu zuen. Ekintza horietan zehar, oso nabarmen geratu zen hizkuntzaren ahoskera-batasuna oraindik zer urrun dagoen, alor honetan zenbat lan dagoen egiteko eta bestetik zer nolako interesa sortzen duen gai honek euskaldungoaren barnean. Hori guztia kontuan harturik, Ahoskera batzordeari jarraipena eman beharra ikusi du Euskaltzaindiak.

1995eko udaberrian Euskaltzaindiak batzordeak eta batzordekideak berriztatzean, Ahoskera batzordearen osaera besteena baino geroago erabaki du, batzordea eta lantaldea bereiziz. Horrezaz gainera, lantaldearen osaeran dauden erakundeen partaideak zehazteak ere denbora eta lana eman du, eta horregatik oso denbora urria izan dute batzordeak eta lantaldeak 1995ean beren lanak burutzeko.

Oinarrizko irizpidea honako hau da: normalean lantaldea biltzea, ikerketak eta proposamen zehatzak egiteko, eta batzordearen egitekoa aholkuak ematea izango litzateke.

### **Egitasmoaren helburuak zehaztu**

Behin bakarrik, urte bukaeran, bildu da Ahoskera lantaldea. Bilera horretan, idazkaria izendatzeaz gain, lantaldearen zereginak argitzeko lehen urratsak eman dira. Batzordeburuak aurkeztutako txostenetik abiatuz, oinarrizko puntu hauek kontuan hartu beharra ikusi du lantaldeak:

- Ahoskera batzordearen nondik norakoak eta egungo egoera.
- Ahoskera batzordeak 1994an, XIII. Biltzarrean, aurkeztutako proposamenak aztertu eta landu.
- Prosodiari dagokionez, zer egin behar ez den aztertu, eta alor honetan ikerketak egitearen komenientzia.
- Kontuan hartu beharreko irizpideak.
- Egitasmoaren egingarritasuna aztertu beharra.



## **II.2. Jagon Saila**



## JAGON SAILA

Jagon Saileko kide berriak 1995eko maiatzean izendatu dira, eta ekainean hasi da lanean batzordea eta urteko eginkizunak berehala finkatu. Miren Azkarate Jagon sailburuak 1995eko urriko osoen batzarrean azaldu dizkie euskaltzainei Jagon Sailaren asmoak, «Jagon Sailaren egitasmoaz» izeneko txostena irakurriz. Jagon Sailak 1995ean zehar 5 bilera egin ditu.

### Harreman-sarea

Jagon sailaren azken urteotako asmoetako bat zera izan da, Euskaltzaindia eta euskalgintzan diharduten erakunde eta elkarten artean harreman-bide batzuk irekitzea. Horretarako lehen urratsak orain eman dira.

### Lehen harremanak norekin

Lehenik, harremanak zein alorretako erakunderekin izan behar diren eztabaidatu da, ondoren zer bidaliko litzaiekeen, eta, azkenik, erakundeetako zein pertsonarengana zuzendu.

Lehen pauso bezala, hasierako honetan batez ere herri administrazio eta erakundeetara zuzentzea erabaki da. Alor desberdineko kideei, goian aipaturiko txostenean kasuan kasuko gaiak esandakoa jasotzen duen atala bidaltzea erabaki da, eskutitzarekin batera.

Hauetara bidali zaie Jagon sailburuaren gutuna:

— Administrazioak: Jose Mari Zeberio (EAEko Hizkuntza Politikarako Sailordetza), Jose Maria Rodriguez Ochoa (Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza), Josu Erkoreka (HAEE-IVAP), Jose Antonio Aguiriano (Gobernu Zentralaren ordezkaria).

— Komunikabideak: Iñaki Zarragoa (EITB), Martxelo Otamendi (*Euskaldunon Egunkaria*), Emile Larre (*Herria*), Maite Idirin (*Gure Herria*), Xiberoko boza, Irulegiko Irratia, Xorroxin Irratia, Mikel Bujanda (Euskal Irratia).

— Hezkuntza: Eneko Oregi (EAEko Hezkuntza sailburuordea), Mikel Zalbide (EAEko Hezkuntza Saileko Euskara zerbitzburua), Juan Jose Ekisoain (Nafarroako Gobernuko Euskara zerbitzburua), Josune Ariztondo (HABEko zuzendaria), Erramun Osa (AEK), Sagrario Aleman (IKA, Nafarroa), Danielle Albizu (Ikas Elkarteak, Iparraldeak), Teresa Lekunberri (Euskal Kultur Erakundeak, Iparraldeak).

Euskararen erabilera eta kalitatea bermatzeko ahaleginean elkar-lanerako eskaintza eta deia egin zaie elkarte eta pertsona horiei.

## Zer eskaini

Alor desberdinetatik etor daitezkeen eskabideei erantzuteaz gainera, euskararen erabiltzaileen mesedegarri izango litzatekeen euskararen corpusa interesatuen eskueran jartzea aztertzen hasi da Jagon Saila. Egitasmo desberdinak gauzatzeko Euskaltzaindia biltzen ari den corpusa *gizarteratzearen* komenientzia eta baldintzak aztertu dira (*Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Herriko Hizkuntz Atlas, Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa, LEFerako adibidetegia, dira hasteko kontutan izango direnak*).

## Jardunaldiak eta mintegiak

Akademiak hartzen dituen hizkuntz arau, gomendio eta erabakien inguruan sarri sortzen dira zalantzak zenbait arauen erabileran. Leudekeen arazoak konpondu nahian, Jagon Saila prest legoke, behar izanez gero horretarako mintegiak antolatzeko, Euskaltzaindiaren Iker Sailarekin elkarlanean.

Hurrengo urtean, 1996an, egin nahi diren II. Jagon Jardunaldiak antolatzeko lehen urratsak eman dira, tokia eta eguna jarriaz: Tolosan, Aitzolen mendeurrena dela eta, 1996ko urrian.

## Arabako euskarari buruz sortutako gatazka

1994ko azaroko autonomi hauteskundeen ondoren, funtzionarioen hizkuntz eskakizunei buruzko eztabaida sortu zuten Araban, batez ere zenbait alderdi politikok. Horren ildotik, Arabako Batzar Nagusiek «Euskarari buruzko txostena / Ponencia sobre el euskara en Alava» izeneko batzordea sortu zuten. Honen egitekoa Arabako egoera soziolinguistikoa aztertzea eta euskararen trataera planteatzea zen.

Gai horri buruz gizarateak izan duen eztabaidan, Euskaltzaindiak ere parte hartu du Jagon Sailaren bidez:

- Arabako 55 elkartek jo dute Euskaltzaindiarengana, iritzi eta laguntza eske.
- Jagon Sailak, 1995eko urtarriletik martxora arte, 220 prentsa-aipamen eta 400 orri inguruko dokumentazioa aztertu du.
- Jagon Sailak, 1995eko martxoaren 3an, Gasteizko ordezkarietan, euskararen Arabako egoerari buruzko adierazpenaren berri eman du:

### **«ARABAKO EUSKARARI BURUZ EUSKALTZAINDIAREN BIGARREN ADIERAZPENA**

Ezaguna da Euskaltzaindiak, zeinen helburuen artean euskararen eta euskal hitzunen eskubideen zaintzea baita, behin baino gehiagotan adierazi duela bere iritzia, sineste edo ideologia guztien mesedetan erabiltzearen aurka. Horregatik, besteak beste, onartu zuen 1991ko azaroan adierazpen bat, Arabako euskararen gainean plazaratu ziren zenbait uste eta aldarrikapeni aurre egiteko.

Probintzia honetan azken hilabeteotan gertatua, eta bereziki Batzar Nagusietan ponentzia bat eratuz gero, kontuan harturik, beharrezkoa dirudi bigarren adierazpen bat egitea, Euskaltzaindiaren iritzia jendartean ezagutarazteko.

Lehendabizi, Euskaltzaindiak bi hizkuntza ofizialei zor zaien begirunearen kontrakoak, uneoro izan behar den bake giroarentzat kaltegarri direnak.

Jakina, hizkuntza politika guztia eten gabe berrikusi eta kontrolatu behar da, dagozkion aldaketak eta egokitzapenak egiteko, eta hiritarrei horren berri eman behar zaie egokiro, era argi eta erraz batean.

Larri-larria da Batzar Nagusietan Euskaltzaindiaren laguntza baztertu izana. Gure Erakundearen lege estatusa ahaztu da horrela, bai 1976ko otsaileko Erret Dekretuak eta bai Euskal Herriko Autonomia Estatutuak ezagutua. Bi lege testuetan hartzen da aintzat Euskaltzaindia euskarari buruzko aholku Erakunde gisa.

Euskaltzaindiak erabat gaitzesten du Arabako euskararen erabilera soziala neurtzeko enpresak ondu duen galdekizuna. Zenbait galderak ez dute hizkuntzarekin ez kulturarekin zerikusirik. Horrelako jokabidea huts ikaragarria da eta gizabanakoaren eskubideak zapaltzea. Bi hizkuntza, euskara eta gaztelania, Arabako eta orohar Euskal Herriko gizartearen ondarea denari eraso zaie, gizabanakoek edo taldeek izan ditzaketen iritzi politikoetatik kanpo eduki behar baitira.

Bestalde, harrigarria da neurri bateko edo besteko iraganekiko erdeinua, iragan horretan euskara menpeko egoera batean izan delarik erdararekin alderatuaz, nabarmen delarik, gainera, egoerak irauten duela, nahiz euskarak azken urteotan aurrerapen handiak egin. Guztiz garbi dago Arabako hizkuntza historiari buruz ezjakintasuna dagoela, eta horretxek adierazten du herritarrek behar dutela informazio argi eta egiazkoa.

Erret Akademia honek hizkuntza bereizkeria oro gaitzesten ditu, eta espero du administrazio guztiek berretuko dituztela beren ahaleginak gizarte elebiduna lortzeko. Ahalegin hauetan hiritar guztiek beharko lukete parte hartu, elkarbizitza giroa erdiesteko, non bi hizkuntzak harmonian garatuko baitira eta liskarretatik eta politika-tresna izatetik urrun egonik.

Euskaltzaindiak berriro ere adierazten du prest dagoela osoki hari dagozkion eremu guztietan laguntzeko, hemen esan diren helburuen mesedetan.»

— Azkenik, martxoaren 28an, Arabako Batzar Nagusiek deituta, foru erakunde honetan egin du Jagon Sailak bere agerraldia, bertan, berari dagokion mailako azalpena emanez.





### **III. Erakunde zerbitzu orokorrak**



## **ERAKUNDE ZERBITZU OROKORRAK**

Euskaltzaindia, hizkuntzaren Akademiak bezala, euskararen normalizazioak -eta oro har egoerak- dituen premia batzuei erantzun beharrean aurkitzen da. Gizarteak egindako eskabide horiei erantzuteko egunoroko erronka du Euskaltzaindiak. Eginkizun horri erantzuteko, beste edozein erakundek bezala, Euskaltzaindiak ere baliabide muga-tuak ditu, eta ezin beti erantzun nahi lukeen neurrian eta moduan.

Euskaltzaindiak Bilbon du bere egoitza, eta bertan ditu bulego nagusiak, Bizkaiko Foru Diputazioak 1991n utzitako egoitzan. Horrezaz gainera, ordezkartzak ditu hiriburu desberdinetan: Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioak utzitako etxean; Gasteizen, Arabako Foru Diputazioak utzitako bulegoetan; Iruñean, bertako Gobernuak alokatuta-ko pisu batean, eta Baionan, hiriko Udalak utzitako etxean. Euskaltzaindiak zabalik ditu egunoro bulego horiek, hiritarrek eta erakundeek egindako galdera, eskatutako irizpen eta ziurtagiriak prestatu eta emateko. Euskaltzaindiak jasotzen dituen irizpen-eskabideei edota hizkuntz kontsultei erantzun ahal izateko, sarritan kasuan kasuko batzordearengana jo behar izaten du (gehienetan Onomastika, Gramatika, Euskara Batua eta Hiztegi Batuko batzordeengana, eskabideak gai horiei buruzkoak direlako).

Euskaltzaindiak, gero eta zerbitzu hobeak eskaintzeko eta barneko lanen elkarkidetza sendotzeko, bere langileen Barne Ibilbidea berriztatzeko urratsak eman ditu. Egoitzan eta bere ordezkartzetan egiten dituen lanak adierazten dira ondoren.



### **III.1. Egoitza**



## EGOITZA

### Hiritarrek egoitza erabiltzeaz

Bilboko egoitzara 5.212 pertsona joan dira 1995. urtean, gehienak Euskaltzaindiaren zerbitzuez baliatzera. Ondoko taulan ageri denez, izen-deiturei buruzko ziurtagirien erantzunak eta Azkue Bibliotekaren erabilpenak izan dira eman diren zerbitzu ugariak. Horrezaz gain, aipatzekoa da etengabe bisitari-taldeak izan direla egoitza ikuszen. Areto nagusia ere Euskal Herriko kultura elkarteei irekia egon da, bertan zenbait aurkezpen, bilkura eta prentsaurreko egin direlarik.

Administrazioa	1.508
Biblioteka	1.526
Sarrera	717
Egitasmoak	65
Bestelakoak	1.396
Guztira	5.212 lagun.

### 1995. urtean egindako ziurtagiriak

Euskaltzaindiak egin dituen ziurtagiri gehienak onomastikari buruzkoak izan dira. Ondoren azaltzen dira pertsona-izenei eta deituren ortografiari dagozkienak:

BILBO	
Deiturak	2.350
Izenak	210
DONOSTIA	
Deiturak	435
Izenak	5
GASTEIZ	
Deiturak	128
Izenak	19
IRUÑEA	
Deiturak	196
Izenak	76
<b>Orotara:</b>	
Deiturak	3.109
Izenak	310
Guztira	3.419 ziurtagiri.

## Aretoaren erabilera

Bilboko egoitzako aretoa jardunaldi, hitzaldi, liburu-aurkezpen, prentsurreko eta antzeko ekintzetarako erabili ohi du Euskaltzaindiak. Hala ere euskararen inguruko gaiekin zerikusia duten ekintzei irekia dago horren erabilera, beti ere eskabidea behar den aurretiaz eta idatziz eginez gero. Aurten kanpoko erakunde edo elkarte hauek erabili dute aretoa:

- AEK-k (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak) prentsurrekoa eman du urtarrilaren 30ean, *Aizu* aldizkariaren berriztatzeaz.
- Bilboko Udaletxeko Jai-batzordeak erabili du aretoa, otsailaren 26an, Ihaute-riak Plaza Barrian antolatzeko.
- EKB-k (Euskal Kulturaren Batzarreak), otsailaren 28an, «Etorkizuna euskaraz dator, matrikula ezazu D ereduan» lemapeko kanpainaren aurkezpena egin du.
- AEK-k, martxoaren 4an, *Korrika*-ren aurkezpena egin du.
- UEMA-k (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak), apirilaren 28an, UEMA egunaren aurkezpena egin du.
- EKB-k, maiatzaren 19an, bilera egin du euskaltegiekin helduen euskalduntze-alfabetatzeaz.



Bilboko egoitzako aretoan, 1995-02-28an, haurrak «D» ikastereduan matrikulatzearen aldeko kanpainaren aurkezpena. Ezkerretik eskuinera:

*Amaia Uranga, Xebe Díaz, Anaida Agirre, Carlos González, Lore Enziondo.*



- Bilboko Udaletxeko Kultura eta Turismo Sailak, abuztuaren 27an, Plaza Barrian dantzasaioak antolatzeke erabili du aretoa.
- Urriaren 4an, *Hik Hasi* aldizkariaren aurkezpeneko prentsaurrekoa eman da.
- Olentzaro Elkarateak, azaroaren 30ean, pertsonaia horri buruzko zenbait argitalpenen aurkezpena egin du.
- HIESA-ren aurkako eta gaisoen aldeko hiritar batzordeak (T-4), abenduaren 1ean, hitzaldia eman du, eta Plaza Barrian antolatu dituen ekintza batzuetarako ere erabili du aretoa.

### **Batzordeen eta iker-lanen koordinazio zerbitzua**

Eragile teknikariaren zeregina, batzorde eta egitasmoen jarraipen eta koordinazioa egitea izan da. Euskaltzaindiak bere urteko egitaraua finkatzeko, lehenik batzordeek alde zuzenetik dituzten planak jaso eta txosten batean bildu eta Zuzendaritzan aurkeztu ditu. Urtean zehar, egindako lanen berri eman du kasuan kasuko errendapen-txostentan.

#### **a. Batzordeekiko harremanak**

Hauk dira eragile teknikariaren alor honetako egitekoak:

- Hala behar izan denean, bilera-deiak egin ditu.
- Batzordeen lana hurbilgotik ezagutzeko batzordeen zenbait bileratan izan da.
- Batzordeetan eztabaidatutako txostenak jaso eta Zuzendaritzan aurkeztu ditu.
- Batzordeen bilera agiriak jaso ditu eta partaidetza-orriak, ontzat eman ondoren, diruzaintzara eraman, horrek guztiak duen diru-ondorioetarako.
- Batzorde eta egitasmoen kasuan kasuko errendapen-txostenak eskatu dizkie (hiruhilero nahiz urtero).
- Batzorde eta egitasmoen hurrengo urteko plana eskatu die. Dagozkion zuzenketak egin ondoren, behin betiko txostena Zuzendaritzari aurkeztu zaio, eta gero, Herri Aginteei.
- Batzorde eta egitasmoen Oroitidazkirako kasuan kasuko txostenak eskatu, eta egokitu ondoren, behin betiko testua prestatu.
- Euskara Batuko batzordea eta idazkaritzaren arteko koordinazio lana burutu, hileroko osoen bilkurarako hizkuntzari buruzko gaiak prestatzeko.

#### **b. Herri Aginteen Batzorde Teknikoarekiko harremanak**

— Aldian-aldean, batzorde eta egitasmoen errendapen-txostenak bidali dizkie eragile teknikariak batzorde horretako bi kideei. Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Herriko Hizkuntza Atlas eta Lexikologi Erizpideen Finkapenerako batzordeko beka-dunaren kasuan, hiruhileroko errendapenak egin eta bidali dira, eta gainerako batzordeen kasuan, urtean behin.

— Euskaltzaindiaren urteko aurrekontuen balantzea aurkeztu du ekonomi eragileak. Batzorde Tekniko horretako ordezkariak deitutako bileretan parte hartu dute ekonomi eragileak eta eragile teknikariak, aurkeztutako plan edota errendapen-txostenei buruzko argibide osagarriak emanez.

— Herri Aginteak eta Euskaltzaindia hileroko egiten hasitako bileretan, idazkariordeak eta, zegokien alorreko gaietan ekonomi eragileak eta eragile teknikariak parte hartu dute.

### ***Albistorria***

1994an sortu zen boletin honen sei zenbaki (8.etik 13.era, biak barne) argitaratu dira 1995ean. Hasiera batean langileei Akademiaren ekintzen berri emateko sortu bazen ere, gaur egun langileei ezezik Zuzendaritza, batzordeburu eta batzorde-idazkariei ere igortzen zaie.

Euskaltzaindiaren 1995eko ekintza nagusiak jaso ditu boletin horrek 39 orrialde-tan: alde batetik, hilabete jakin batean gertatu diren ekintza nagusiak jaso dira, eta bestetik hurrengo hilean programaturiko ekintzen berri eman da, atal hauetan banatuta: osoen hileroko batzarra, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren bilerak, batzorde eta egitasmoen bilerak eta bestelako gertakizunak. Boletin hau eragile teknikariak prestatzen du eta idazkariordeak zuzendu eta osatu ondoren, banatzen da.

## **III.2. Ordezkaritzak**



### **III.2.1. GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA**

Ohiko eginkizunak bete dira Donostiako Ordezkaritzan 1995ean. Gauza berri bezala aipa daiteke izugarri gehitu direla ziurtagirien eskabideak eta ez gutxi *Euskaltzaindiaren ARAUAK* argitalpenak duen harpidetzaren inguru sortutako zereginak. Bestalde, aipatzekoa da langileetako bat bakarrik izan dela urtean zehar lanean aritu dena.

#### **Erakundearen azpiegiturari buruzkoak**

Sail honetan izandako berrikuntza bakarra hau izan da: Jagon Sailak hemen egiten dituela aurtendik bere bilera gehienak. Gainerako batzordeak, lehengo ohiturari jarraituz, bertan bildu dira beren lan-erritmoaren arabera.

- a) Zuzendaritzak hilean behin gutxienez ordezkari itza honetan egin du bere bilera.
- b) EHHAKo (Atlaseko) bi ikerkidek ordezkari itzan egiten dute beren lana ordu oroz eta urte osoan zehar.
- c) Gramatika batzordea: Bere bilerak Diputazioko Jauregian egiten baditu ere, ordezkari itza honetaz baliatzen da bilera-lekua eskatzeko, materiala banatzeko eta premiazko argitaratze-lanetarako.
- d) Hiztegi Batuko batzordea: aurtan F, G, H, I, J, K, L letren zerrendak 105 laguni bidali zaizkie eta erantzunak jaso. Euskara Batuko batzordea ere bildu izan da ordezkari itza honetan eta bertan prestaturiko zerrenda osoei banatzeko laguntza eskaini da.
- e) Literatura Ikerketa batzordea: ordezkari itzan biltzen da gehienetan eta bertan egin ohi da koordinazio gutzia, azpiegitura osoa eskaintzeraino.
- f) Taldeak eskuarki: ordezkari itza arduratzen da behar diren materialak prestatzeko; jatorrizko testua artxiboan gordetzen da.

#### **Beste erakunde eta jendearekiko harremanak**

Oro har esan daiteke berdin jarraitu duela ordezkari itzak Diputazioarekiko harremanetan, gutxitu direla prentsaurrekoak, eta gehitu, asko gainera, zuzeneko harremanak hiritarrek.

a) Diputazioa. Gipuzkoako Diputazioa Euskaltzaindiaren sortzailekide denez, Euskaltzaindiak osoen zenbait bilkura urtean zehar Diputazioko Jauregian egin ditu. Gramatika batzordea ere hor bertan biltzen da, ordezkari itza bera Foru Diputazioarena da, eta horregatik guztiagatik ordezkari itza honi dagokio Diputazioarekiko zenbait harreman bideratzea eta zaintzea.

b) Prentsaurrekoak. Gutxitu dira aurreko urtetik ordezkartzan eginiko prentsaurrekoak. Udarregiren mendemuga dela eta, egin da bat irailean. Gainerako jardunenak, ez dira egoitzan eman, Diputazioan baizik.

c) Zuzeneko harremanak jendearekin. Asko ugaritu dira, lehen esan bezala. Bai telefonoz, bai bertara etorriz, era askotako galderak jaso dira, izenen eta deituren euskal grafiari buruzkoak gehienbat. Joera handia dago agiri ofizialetan euskal grafia jartzeko. Honek mila modutako kontsultak egin beharra ekartzen dio ordezkartzari.

### **Barne-lanak**

Bi halako izan dira ziurtagiriak; gutunerian urritu dira irteerak eta gehiagotu sarrerak; eta lan berria etorri da *Euskaltzaindiaren ARAUAK* bildumaren eraginez.

a) Ziurtagiriak. Aurtengo lanaldian 440 egin dira ordezkartzan, izenei eta deiturei buruzkoak gehienak.

b) Gutuneria. Guztira 837 irteera izan dira eta 143 sarrera. Faxaren zerbitzua bestalde, gero eta gehiago erabiltzen da.

c) Artxiboa. Ohiko ildotik, jaso dira batzordeetako txostenak, batzar-deiak, agiriak eta egoitzako gutunak, ziurtagiriak eta diru-gorabeheren txartelak.

d) Kontabilitatea. Fitxetan eraman ohi da diru-mugimendua, hileru Bilboko egoitzara bidaltzen delarik kontu-errendapena.

e) Argitalpen zerbitzua. Salgai daude ordezkartzan Euskaltzaindiaren lanik eskatuenak, erakundearen argitalpen berriak aldian-aldian ekartzen direla.

f) Gauza berri bezala aipatu behar da, *Arauk* bildumaren inguruan, jende asko etortzen dela galdezka, argibide eske; eta arreta jarri behar zaion lan interesgarria dela zalantzarik gabe.

### III.2.2. ARABAKO ORDEZKARITZA

Hiru ardatz nagusitan laburbil daitezke Gasteizko bulegoan egiten diren lanak: lehendabizi, Euskaltzaindiaren zerbitzu orokorren barruan, kudeatzailearen agindupean, Euskal Akademia honek bere funtzionamendurako dituen egitekoak; bigarrenez, kanporako lanak, hiritarrek, gure Erakundetik eskaini behar zaizkien zerbitzuak, hurbil eduki ditzaten; hirugarrenez, kontuan izanik Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeek eta Estatuko Administrazioaren ordezkariak Gasteizen dituztela bere egoitzak, ordezkari-tza honetatik gauzatzen dira maiz bitarteko harremanak.

Hona hemen, 1995ean egin diren lan nabarmenenak:

#### **Erakundearekikoak**

Batzorde eta zerbitzuei lagundu zaie:

— Argitalpen Zerbitzua. Aita Luis Villasanteren zuzendaritzapean, *Euskararen Lekukoak* argitalpen sailerako, Juan Mateo de Zabalaren sermoien bildumaren transkribaketa eta zuzentze-lana burutzen ari da Arabako ordezkari-tzan.

— Jagon Saila. Ordezkaritzara heldu diren salaketak (hizkuntzaren erabilpen txar-ragatik, errotilazio elebakarrekoak, etab.) eta kezkek bideratu dira. Halaber, euskararen egoeraren arta izan da ordezkari-tza eta gertakizun garrantzitsuenetako informazioa bildu eta Jagon Sailaren eskuetan jarri da. Honen ildotik, garrantzi berezia izan du aurtengo lehen hiruhilabetean, euskararen erabilera dela eta, Araban sortu den gatazkak. Hau dela eta, hainbat alderdi politiko, komunikabideak, euskalgintzan ari diren elkarteak eta gizabanakoak, Arabako ordezkari-tzara zuzendu dira Euskaltzaindiaren iritzi edo bitartekotzaren bila. Gertakizun honen inguruko ekintzak ere Arabako ordezkari-tzaren bitartez burutu ditu Euskaltzaindiak.

— Prentsa Zerbitzuan parte hartu. Arabako ordezkari-tzako bulego arduradunak, beste urteetan bezala, lagundu dio Prentsako zerbitzuburuari bere zereginetan, batez ere lurralde honetan antolatu diren ekintzetan.

— Gramatika batzordeari eta Ahoskera lantaldeari laguntza administratiboa eman zaie Arabako ordezkari-tzatik.

— Gasteiz hiriko kale-izendegiaren lantaldearen bilerak eta materiala koordinatu dira. Honen berri Onomastika batzordeari eta eragile teknikariari eman zaie.

## **Kanpoarekikoak**

### *Orokorrak*

— Ziurtagiriak. Euskaltzaindiaren beste bulegoetan bezala, izen eta deituren agiri ugari egiten dira. Deiturenak egiteko, Onomastika batzordetik bidaltzen diren zerrendez baliatu dira bulegoak eta zalantzazko kasuetan batzorde-idazkariarengana jotzen da. Ponte-izeneei dagozkien galdera eta eskabide gehienak exonimoei buruzkoak dira.

— Hizkuntz zalantzak. Euskara batuari buruzkoak eta orokorki Euskaltzaindiaren arauen berri jakiteko etorri da jendea: ikasleak, irakasleak, euskaltegietako irakasleak, IRALE, administrazioetako teknikoak, kazetariak, itzulpengintzakoak, etab.

— Lurralde honetako euskal kulturaren inguruko informazioa. Askotan, nahiz eta Akademiaren eginkizun propioarekin zerikusi zuzena ez izan, euskalgintzaz, euskara edo euskal kulturari buruzko bibliografiaz, historiaz, etab. helden diren galderei erantzun zaie.

— Hizkuntzaren zuzentasuna. Hiriko eta lurralde honetako errotuluetan euskararen trataera dela eta, bai norbanakoak bai elkarteak etorri dira bulegoetara. Batzuetan, gaztelania hutsean agertzen direlako eta besteetan, euskarazko testuak akatsez beterik daudelako. Honen guztiaren informazioa Jagon Sailera pasatzen da.

— Egoitzaren erabilera. Arabako zenbait elkartek eskatuta, Euskaltzaindiaren aretoa erabili da, bilerak eta aurkezpenak egiteko.

### *Erakunde eta elkarteak*

— Eusko Jaurlaritzak. Inoiz, Zuzendaritzak edo kudeatzaileak eskatuta, Euskaltzaindiaren eta Jaurlaritzako harremanak bideratu dira Gasteizko bulegotik, batez ere, Kultura Saila, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua eta IRALE, Justizia Saila, IVAP/HAEE, etab.

— Gobernuaren ordezkariak. Batez ere, euskararen erabilera ofizialari buruzko galderak. Inprimaki guztien euskaratzea edo zuzenketa egin da Gasteizko bulegoan.

## **Arabako Foru Diputazioa**

— Euskaltzaindiaren eta Diputazioaren artean antolaturiko ekintzak: Arabako Batzar Nagusietako Aretoan egin du Euskaltzaindiak bere azaroko hileroko bilkura eta Patxi Goenaga euskaltzain berriaren sarrera-ekitaldia.

— Toki Administrazio eta Eskualde Garapenerako Sailean, probintziako udal eta administrazio-batzarretako euskal izenei buruzko informazioa eman da.

## **Udalak**

— Udalek antolatzen dituzten euskal gaien buruzko ekintza batzuetan Euskaltzaindiaren partaidetza eskatu dute. Aurten ekitaldi bat azpimarratzekotan Saraoben, hots, Aiara eskualdearen Batzar Nagusien egoitza historikoan, egindako euskararen festa gogorarazi nahi da. Bertan, Manu Ruiz Urrestarazu egon da Erakundearen ordezkari.



— Gasteizko Udal Gizarte-etxeetako kultura zerbitzuak urteoro antolatzen dituen jardunaldietan Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen dute. Azken bi urte hauetan Patxi Goenagak parte hartu du Euskaltzaindiaren Arauei buruzko ikastaroak emanez.

— Euskarari buruzko argibideak. Zerbitzu ezberdinetatik egin diren galderei erantzun zaie, batez ere Euskara eta Topografia zerbitzuetatik errotulazioaz eta onomastikaz egindakoei.

— Kasuan kasuko herriaren euskal izenari buruzko irizpideak eskatuz jo dute Gasteizko bulegora Arabako Udal eta Administrazio Batzordeek. Eskari guztiak Onomastika batzordera pasa dira.

— Ponte-izenak eta deituren aldaketak egiteko ziurtagiriak ere zuzenean eskatu dituzte udal batzuetatik: Aramaio, Agurain, Legutiano, Amurrio, Biasteri, besteak beste.

— Hizkuntzaren erabilera ofiziala dela eta, hainbat galdera erantzun dira bulego honetatik.

— Kale-izenak euskaraz jartzeko, Euskaltzaindiaren iritzia eskatu dute ordezkarietan. Ordezkariak berak eta Onomastika batzordeak erantzun diete.

— Ekintza kulturaletan parte hartu. Ahal izan duen guztietan, ordezkariak bete du zeregin hau.

### **Erregistro Zibila**

Izen-deiturez eta zalantzazko ortografiaz argibideak eskatuz, batez ere kanpoko pertsona-izenez, galderak egin dituzte Gasteizko Erregistro Zibiletik.

### **Euskaltzaindiaren ekintza nagusiak Araban, 1995ean**

— Jagon Sailaren prentsaurrekoa.

— Arabako Batzar Nagusietan, Euskaltzaindiaren ordezkarien agerpena.

— IX. Barne Jardunaldiak, Larraben (Legutiano/Billerlen).

— Gabirel Jauregiren urteurrena, Aramaion.

— Saraoben, Euskararen egunaren ospakizuna, Aiara euskualdeko udalek antolatuta.

— Korrika-ren amaieran, testiguaren mezua E. Knörr-ek irakurri du, euskaltzainburuaren izenean.

— Zuzendaritzak, Felix Ormazabal Arabako Foru Diputatu Nagusi berria bisitatu du.



Gasteizen, Arabako Foru Diputazioan, 1995-09-12an. Ezkerretik eskuinera:  
*Mikel Mintegi, Patxi Goenaga, Juan Mari Lekuona, Jean Haritschelhar, Felix Ormazabal, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana, Jose Luis Lizundia, Iñaki Martinez de Luna.*

- Euskaltzaindiaren azaroko bilkura Arabako Foru Diputazioko jauregian.
- Patxi Goenaga euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia, toki eta egun berean.

### III.2.3. NAFARROAKO ORDEZKARITZA

Gobernu hirukoitzak, 1995eko haueskundeen ondoren, Nafarroako euskararen legezko egoerak eskaintzen dituen baliapenak bultzatzeko asmoa agertu duenetik, era guztietako erantzunak agertu dira komunikabideetan. Euskara lehen mailako gaia bilakatu da han-hemenka eta eragin nabarmena izan du ordezkari honetako eginkizunetan.

Jagon Saileko arazoa denez, ordezkariak ez du bere izenean publikoki ezer adierazi. Hala ere, harreman eta kontsulta asko sortu du gaiak eta urteko ekintza garrantzitsuenetako bat izan da ordezkarietan.

Atal bakoitzean, zehaztuko diren puntuak laburbilduz, alor hauetan kokatu dira hartu-emanak:

1. Agintarieko deiak, elkarrizketak eta bilerak.
2. Komunikabideetatik egindako galdera eta iritzi-eskaerak.
3. Euskal elkarte eta hiritarrendik jasotako kezken erantzunak.
4. Gaiari buruz egunkari eta aldizkarietan argitaratutako atal garrantzitsuenen mozkinak euskaltzainei eta Zuzendaritzari igorri zaizkie.

#### **Erakunde eta elkarteekiko harremanak**

Jarraian aipatzen diren ospakizun ofizial eta ekintza publikoetan egon da Nafarroako ordezkaria Euskaltzaindiaren izenean:

— Nafarroako Gobernuko presidentea den Javier Otano jaunari bisita egin dio Zuzendaritzak urriaren 18an. Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia den Jose M. Rodriguez Ochoa izan da aurkezlea.

— Nafarroako Gobernua prestatzen ari den «Euskararen Aholku Batzordea» sortzeko aurrebileretan partaide izan da ordezkaria.

— Nafarroako Gobernuak gonbidaturik, J.J. Marcotegui, Hezkuntza sailburua, F.J. Zubiaur «Príncipe de Viana» erakundeko zuzendaria, Pio Caro Baroja eta J.M. Satrustegi, Iratxeko monastegi zaharrean, Gobernua prestatzen ari den Etnografi erakustokia eta beste zenbait eraikuntza berri ikusten egon dira maiatzaren 5ean.

— Juan Apezetxea eta Frantzisko Ondarrak paratutako Joaquin Lizarraga Elkanoaren *Santuen Bizitzak* liburuaren aurkezpenean, otsailaren 15ean, izan da ordezkaria.

ria. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak ordaindu du liburu horren argitalpe-  
naren kostua.

— Nafarroako Gobernuak antolatutako «Dialektologia eta Etnografia» gaien le-  
hiaketaren sari banaketan izan da ordezkaria apirilaren 8an.

— *La guerra de Navarra* liburuaren aurkezpenean Jean Haritschelhar euskaltzain-  
buruarekin batera izan da J.M. Satrustegi ordezkaria maiatzaren 11n.

— Abuztuaren 19an, Julio Caro Barojaren hileta elizkizunetan Jose M. Satrustegi  
izan da Berako parrokiaren. Euskaltzainburua eta idazkaria ere bertan izan dira.

— Jose M. Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoak idatzi eta Juan Cruz Alli jauna-  
ren hitzurrea daraman *Historia de Pamplona* liburuaren aurkezpenean izan da ordezka-  
ria azaroaren 23an. Nafarroako zenbait kultura elkartek idazle horri eskainitako omenal-  
dian merezimenduen txostena aurkeztu dute.

— «Euskara Betiko Mintzoa» izeneko erakusketa ibiltaria Nafarroan zehar pasatu  
ondoren, amaierako ospakizuna antolatu du Gobernuak abenduaren 27an Lekunberrin.  
F. Tajadura sailburuak eta J. M. Rodriguez Ochoa Hizkuntza Politikarako zuzendari  
nagusiak egin dute azalpen ofiziala. Larraungo ohitura zaharretako eguberriei buruz min-  
tzatu da J.M. Satrustegi, Euskaltzaindiko ordezkaria.

— Lizarrako ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatu diren ekintzetan, Eus-  
kaltzaindiaren izenean eta sortzaileetariko kide bezala, parte hartu du txosten bat ema-  
nez.

— Nafarroako Gobernuak antolatu duen gazteen Literatura eta Dialektologia le-  
hiaketako epai-mahaikide Jose M. Satrustegi izan da. Baita Eusko Jaurlaritzako Hezkun-  
tza Sailak eratu duen Urruzuno literatura sarian ere.

— Iruñeko udalak antolatutako X. Literatur Lehiaketako epaimahaikide, J.K. Lo-  
pez Mugartza izan da Euskaltzaindiaren izenean.

— Altsasuko Batxillergo Institutuan euskara batuaren sorrera eta etorkizunaz  
mintzatu da J.M. Satrustegi ordezkaria.

— Iruñeko Biurdana Institutu sortu berriaren inauguraziora Frantzisko Ondarra  
joan da Euskaltzaindiaren izenean.

## **Barne lanak**

— Ziurtagirien kopurua gehitu egin da aurreko urtetik Nafarroan. Oro har, 262  
ziurtagiri egin dira, hauetatik 196 deituei buruz eta 66 pertsona-izenenak. Askoz ugaria-  
goak dira gai hauei buruzko telefono-kontsultak.

— Gaia elkargo-elkarteen izen ofizialen izenburu ez denean, *Palacio de Justicia*  
edo *Consortio turístico* eta antzekoak bezala, dagokion batzordeari helarazi zaio galdera.  
Koordinatze lan hau behar handiko eginkizuna gertatu da ordezkartzan.

— Gobernu eta Parlamentuko itzultzaileek, hala nola, udaletako Euskara Zerbi-  
tzuetak arduradunek, euskara batuari buruzko kontsultak, gehienez telefonoz, egin di-  
tuzte sarritan.

— Komunikabide eta euskaltzainen arteko hartu-emanetan posta banaketa egin da bulego honetatik. Era horretan, 1994ko Gaurbituren 66 ale banatu dira Nafarroan.

— Irrati eta komunikabide idatziekiko elkarrizketak maiz egin dira euskarari nahiz Euskaltzaindiari buruz Jagon lanaren barnean.



### III.2.4. BAIONAKO ORDEZKARITZA

#### Ordezkaritzaren zerbitzuak

Urteoro bezala, 1995ean ere Baionako ordezkariak edozein hiritar, talde, elkarte, erakunde edo entpresak eskatutako zerbitzuak eman ditu. Bi motakoak izan dira:

- Euskaltzaindiari eta euskarari buruzkoak: galdetzaileak ikasleak, elkarteak, erakundeak eta komunikabideak izan dira gehienetan.
- Itzulpenak:
  - Entrepresak, sarritan, lerro batzuk edo esamolde berezi batzuk itzultzea eskatu dute, bezeroak erakartzeko.
  - Kultur elkarte jakin bati, ihauteriez egin erakusketaren testua burutik burura euskaratu dio Baionako ordezkariak, kasu berezi bezala. Egilea ez zen Euskal Herrikoa, eta euskaratutako testua herriz herri ibiliko baita, leku publikoetan. Normalki, honelako kasuetan ez da itzulpenik egiten, baina bai laguntza eskaini.

#### Erakunde eta jendearekiko harremanak

Baionako ordezkariari dagokio Euskaltzaindia Ipar Euskal Herrian eta Frantzia osoan ezagutaraztea, erakunde gisa onartua izan dadin. Are gehiago oraingo euskaltzainburua Estatu horretakoa dela kontuan izanik. Euskaltzaindia ezagutarazteko eta honen egitasmoentzat babesa eskatzeko, gestio hauek egin dira, gehienak agintarien aurrean:

— Estatu mailan, Departamenduko bi ministrori esker (F. Bayrou eta A. Lamassoure jaunak), Euskaltzaindiak 1992an eta 1993an eskatutako *Reconnaissance d'utilité publique* estatusa lortu du, hots, onura publikoko erakundearena, 1995eko otsailaren 20ko Frantziako Errepublikaren dekretuaren bidez.

— Azpimarratzekoa da, 1995ean Frantziako Aurrekontuetarako ministro den A. Lamassoure jaunak diru-laguntza eman diola Euskaltzaindiari Euskal Herriko Hizkuntz Atlasarentzat.

— Akitaniako kontseiluburu den Jaques Valade jaunarekin mintzatu dira Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Beñat Oihartzabal Dialektologia-Atlas batzordeburua eta Endrike Knörr idazkaria Euskaltzaindiaren lanen berri emateko eta diru-laguntza eskatzeko.

— Uztailean, Departamenduburu den F. Bayrourekin elkarrizketatu da Euskaltzaindia Atlasarentzat Administrazio horri diru-laguntza eskatzeko.

— Ipar Euskal Herriko auzapez guztiei, urteoro bezala, Euskaltzaindiak Baionako ordezkartzaren bidez iaz egindako lanez gutuna bidali die. Txosten horretan, eskainitako zerbitzuak azpimarratzen dira, bereziki itzulpen lanak. Horrezaz gain, Onomastikaren alorrean eskainitako laguntzaren berri ere ematen da; 1995ean, Uztaritzeko udalak eskatuta, P. Xarritton eta Beñat Oihartzabal euskaltzainek aholkuak eman dizkiote herri horretako etxe izen zaharrak euskara zuzenean emanak izan daitezen. Zerbitzu horien ondorioz, Euskaltzaindiak udal horiei diru-laguntza ere eskatu die, eta esan beharra dago gero eta udal gehiago direla Euskaltzaindiari diruz laguntzen diotenak.

— Beste ildo bat ere urratu du Euskaltzaindiak 1995ean: gutuna helarazi zitzaion Ipar Euskal Herriko 400 entpresabururi. Gutun horren xedea Euskaltzaindia ezagutaraztea da, eta berau bezalako onura publikoko erakunde bati diruz laguntzeak ekar diezazkiekeen abantailen berri ematea.

### **Ekitaldi bereziak**

— Aurreko urteetan bezala, 1995ean ere EGAREN (Euskararen Gaitasun Agiriaren) azterketarako deialdia egin du Euskaltzaindiak Baionan, ekainean eta urrian. Orota-ra, 81 lagun aurkeztu dira azterketetara, eta horietatik 41ek gaintitu du azterketa.

— Euskaltzaindiaren lanen berri emateko xedearekin, Ipar Euskal Herrian antolatu ohi diren liburu-erakusketetan parte hartu du Baionako ordezkartzak, bereziki Donibane-Lohizune eta Sarakoetan izanez.



### **III.3. Azkue Biblioteka**



### **III.3.1. AZKUE BIBLIOTEKA**

#### **Barne antolamendua**

Aurreko urteetan bezala, euskaltzain osoa den bibliotekariak eta biblioteka-artxi-bo, hemeroteka-dokumentazio eta katalogaziorako hiru teknikoek, ikerleek gero eta gehiago eskatzen dituzten eskariei erantzuna eman diete. Lan hori hobeto betetzeko otsailaren 17an indarrean jarri dira barne lan eta zerbitzuetarako arauak. Langilegoak aldiro egin ditu barne antolamenduaz bilerak, hauetarik bat hemerotekaren kokapen egokia-goaz izan delarik.

Euskal Herriko beste biblioteka batzuen arduradunekin harremanak eta bilerak egin dira, erakundeen arteko harremanak mantentzeko eta antolamenduaz, katalogazioaz eta abarrez erabiltzen dituzten teknika gaurkotuak ezagutzeko. Otsailaren 21ean, 1995. urterako lan-plangintza azaltzen duen txostena prestatu da euskaltzain osoen bilkuran aurkezteko. Era berean Herri Aginteei ere eman zaizkie lanaren adierazpen txostenak.

#### **Eskurapenak**

Urtean zehar jaso diren biblioteka, hemeroteka eta artxiborako aleak 6.102 izan dira. Aurrekontuaren murrizketak kontuan izanik, gutxitu egin dira erosketak. Erosi diren monografiak 482 izan dira, zeinen kostua 1.263.630 pezetakoa izan den, eta hemerotekarako erositakoen kostua 1.117.988 pezetakoa izan da. Dohainik eta trukez 568 monografia jaso dira, 1.194.484 pezetatan baloratuak.

Aurrekontuaren murrizketak eragin nabaria izan du koadernaketetan. Ordaindutako 75.400 pezeta iazko kopurua baino sei aldiz txikiagoa izan da.

Aurten jasotako dohaintzen artean honako hauek azpimarra daitezke:

— Luis Ibarra Enziondo «Itarko» jaunaren alabak diren Beatriz eta Arantza andreak otsailean emandako 83 ale (liburuak, liburuxkak eta zinta bitxi bat, non grabatua dagoen Jon Miranderen ahotsa Ebanjelioaren zati bat irakurtzen).

— Jon Bilbao ohorezko euskaltzain eta bibliografoaren liburutegiaren zati handi bat, haren alaba Amale Bilbao andreak emana eta Getxotik ekarria. Jon Bilbao, azaroaren 28an, Euskal Herriko Unibertsitateak «Doctor Honoris Causa» izendatu duen eguneko ospakizunera joan da bibliotekaria.

— AEKren (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundearen) hasierako eratzeaz eta funtzionamenduari dagokion dokumentazioa, Jon Aurre jaunak emanda.

Dohaintza hauek guztiak bereizten dira «ex libris» baten bidez, zeinek azaltzen duen bakoitzaren jatorria.

Clotilde Olanen bibliotekari andrearekin egindako akordioa dela medio, Jon Bilbaoren ondaretik Azkue Bibliotekan birritan zeuden aldizkarien aleak Bizkaiko Foru Bibliotekarako eman direla adierazi beharra dago.

## **Katalogazioa**

Euskaltzain osoei aurkeztutako lan-plangintzaren arabera, otsailean hasi eta gero bukatu da Odon Apraiz jaunaren ondare bibliografikoaren katalogazio laburra, familia-koek emandako 624 alez osotua, «ex libris» batekin bereiztua. Familiakoentzat interesgarri diren liburuak itzuli zaizkie.

Luis Ibarra jaunak emandako ondarea osorik katalogatu da.

Herri Agintek, Euskaltzaindiaren ondare bibliografikoaren balioaz konturaturik, apirilaren 12an sinatu den Aurreakordioan gomendatu dute aurrekonturako emango zuten dirutik % 5a ondare hau katalogatzeko erabiltzea. Katalogazio hori egiteko egokia zen instalazioa egin ondoren (ordenagailua, pantailak eta abar) eta jadanik bibliotekak zerabilen Absys sistemarekin jarraituz, Baratz etxearekin lau katalogatzailereren zerbitzuak hitzartu dira.

## **Fonoteka**

Bizkaiko Diputazioaren Lehendakariitzako Diputatua zen Ignazio Etxebarria jaunarekin 1994. urteko abenduaren 7an sinatu zen hitzarmenaren arabera, Aurten Bai Fundazioa arduratu da Euskal Herriko Hizkuntza Atlasekoek grabatutako 2.400 zinta magnetikoak iraunkorragoak diren CD-ROM diskoetara pasatzen. Lan hau burutzeko urtarrilaren 23an eraman dituzte lehen zintak eta urriaren 17an azkenak. Lana 1996.eko urtarrilean bukatuko da, eta urrezko CD-ROMak jasoko ditu Euskaltzaindiak artxiboan gordetzeko eta kopia bat kontsultagai izateko. Azken hau jasotzen denean egongo da Azkue Bibliotekan behar den instalazioa, ikerleek pantailan ikusteko eta entzuteko aukera izan dezaten.

## **Erakusketak**

Euskaltzain urgazlea izan zen Gerhard Bähr jauna hil zenetik berrogeita hamar urte bete direla eta, bere jaioterrian, Legazpin, eratu da erakusketa bat, hartarako Azkue Bibliotekak utzi dituelarik Bähr jaunaren liburuak, eskuizkribuak eta gutunak. Apirilaren 22an inauguratu da erakusketa hau.



Legazpin, 1995-04-29an, Gerhard Bähr-i egindako omenaldian:  
*Luis Villasante eta Jose Antonio Arana euskaltzainak eta besteren artean —argazkiaren erdian— Mercedes Foll, Gerhard-en arreba.*

Juan Antonio Mogelen erakusketak antolatu ditu Azkue Bibliotekak Eibarren eta Markina-Xemeinen.

Ohiko eran, Gerediaga Elkarteak antolatu duen XXX. Euskal Liburu eta Diskoen Azokaren inguruan eratzen den erakusketarako liburuak eta bestelako dokumentazioa utzi ditu Azkue Bibliotekak.

### **Ikerle eta bisitariak**

Azkue Biblioteka Plaza Barriari kokatu denetik, igoera nabarmena izan du ikerle- en kopuruak. 1500 monografia eta aldizkari kontsultatu dira, eta 34.000 fotokopia egin, euskaltzain, bekadun edo ikerleentzat.

Bibliotekara etorri diren bisitarien artean aipamen berezia merezi dute honako hauek: Melchor Miralles jauna, *El Mundo del País Vasco* egunkariaren zuzendariak; Juan Jose Goiriarena de Gandarias, Euskal Herriko Unibertsitatearen errektoreak, eta Alberto Lopez Basaguren, unibertsitate bereko idazkari orokorrak; Tadeo Zarratea jauna, Paraguaiako senatoreak; Meli Esteban anderea, Gabriel Arestiren alargunak; Marta Lamberts anderea eta János Wolfart jauna, Hungariako Kultura Ministeritzakoek; Geoffrey West jauna, British Library-koak; Bernhard Hurch jauna, Grazeko Unibertsitateko katedradunak eta Leonor Zalabata anderea, Colombiako Hezkuntza Ministeritzakoak.

Euskaltzaindiak Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatua duen hitzarmenaren arabera, urriaren 20an hasita, bi bekadun aritu dira Azkue Bibliotekan «erromintxela» (ijitoen euskara) ikertzen.



### III.3.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Lau bilera egin ditu batzordeak 1995eko ekainetik hasita. Bibliotekaren katalogazioarako plana egin ondoren, lan honen ildo nagusiak finkatu ditu batzordeak, eta egunez egun sortu diren hitz eta esaldien itzulpen teknikoak egitea izan da lan nagusia.

Katalogazioa euskaraz egiteko, lehenik alor horretan dauden materialak, (Labayruko gaien izenburuen zerrenda, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratutako *Liburutegi Publikoetako gaien izenburuen zerrenda*, Katalunian egindako *Lista de encabezamientos de materias para bibliotecas*) aztertu eta kontuan izan dira.

Hauek izan dira batzordeak onartutako irizpide nagusiak:

#### a) Autoritateen izenak

Egileak eta erakundeak euskarazko ortografia normalizatuan ipini. Alor honetan, itzuli behar izan dira, adibidez, munduko literatura klasikoko obrak (erdaraz «título uniforme» deritzana emanez); Bibliako liburuak; testu erlijiosoen izenak (dotrinak, kateximak, bederatziurrenak, eta antzerakoak); nazioarteko erakunde ofizialak.

#### b) Idazle klasikoak

Latinezko izenak eta izen grekoak sartzeko irizpide batzuk eman badira ere, latinezko nominatiboan jartzea erabakiz, zerrendak Onomastika batzordeari pasatu zaizkio.

#### c) Lexikoa

Lexikoa eta barne-esaldiak jasotzen dituzten zerrendak prestatu dira. Alor honetan, 200 bat hitz eta esaldi bibliografiko euskaratu dira.

#### d) Gaien izenburuak

Gaien izenburuak finkatzeko, hasiera batean «Liburutegi Publikoetako gaien izenburuen zerrenda» erabiltzea erabaki bazen ere, hobeto aztertu ondoren eta, hizkuntz irizpideak ez zirela oso egokiak ikusita, Laval (Kanada) Unibertsitateko zerrenda erabiltzea erabaki da azkenean, itzulpena sistematikoki egin gabe. Erabakia hartu orduko, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Udal Biblioteketarako arduradunekin harremanak izan dira, horien iritzia jaso eta Azkue Bibliotekaren asmoen berri emateko. Esan behar da, zerrenda hau Estatuko unibertsitate nagusienetan erabiltzen dela: Euskal Herriko Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean, Madrilgo Unibertsitate Complutensen, Sevillako Unibertsitatean, adibidez.

Alor honetan 600 gairen izenburuak onartu dira. Lan honek zailtasun ugari ekarri du, lexikoa oso espezializatua delako, eta sarritan beste pertsona eta erakunde batzuk kontsultatu beharra egon da, Hiztegi Batuko batzordea barne.





### **III.3.3. AZKUE BIBLIOTEKAKO KATALOGAZIO-LANAK**

Euskaltzaindiak, Azkue Bibliotekan katalogatu gabe aspalditik dagoen fondoak katalogatzeko, arestian esandako lau lankidek jardun dute lanean 1995eko ekainaren hasieratik abenduaren amaiera arte, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzako Azkue Bibliotekan.

#### **Egindako lanaren emaitza**

Katalogatzaileak, Azkue Biblioteka batzordeak emandako irizpideen arabera aritu dira lanean, eta horien aplikazioan izandako zalantzak eta sortutako arazo berriak batzorde horri helarazi dizkiote. Bost barne-bilera egin dira egunoroko lanean sortutako arazoak bideratzeko.

Hona hemen egindako lan azpimarragarrienak:

- 1995eko ekainetik azarora arte, 5.500 liburu katalogatu dira, eta horietatik:
  - 3.241 liburu euskal literaturakoak (erlojiokoak salbu) izan dira. Literaturako fondoaren katalogazioan, egunoro katalogatutako batz besteko liburu-kopurua 67koa izan da. Sail honetan liburu zahar gutxi daude, eta gainera literatura liburuak ez dute zailtasun berezirik gaien izenburuen hautaketan.
  - 2.259 liburu hizkuntzalaritzakoak izan dira. Horietatik 1.709 liburu euskal hizkuntzalaritzakoak izan dira. Sail honetan, batz beste, egunoro 44 liburu katalogatu dira.
- Abendu osoa, ordura arte egindako katalogatze-lana zuzentzen eman dute katalogatzaileek.
- Egindako lanari esker, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sortu eta Zabaltzeko Zuzendaritzari eman ahal izan zaio antzerkigintzarako 259 aipamen bibliografikodun katalogoa.



### **III.4. Argitalpenak**

Zerbitzu honek bi azpiatal ditu:

- Argitalpen batzordea
- Argitalpenen banaketa eta salmenta zerbitzua.



### III.4.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordeak bi bilera egin ditu 1995. urtean zehar, eta hurrengo liburu-kiok argitaratu dira, alegia:

1. *Euskera* (1994, 3): «Euskaltzaindiari ongi etorria»; «Euskara batuaren 25. urtemuga»; «Euskara batuaren filosofiaz»; «Euskara batuaren egungo premiak»; «Ortografi gomendio batzuei buruzko gogoeta»; «Ortografiatzko arazoak: *Esploradore* ala *exploradore*»; «Zergatik gorde X letra maileguzko hitzetan»; «*Bat-batzuk* eta *nor(tzuk)- zein(tzuk)* ahozko hizkuntzan (Euskal Herriko Hizkuntz Atlaseko datuen arabera)»; «Laburtzapenen deklinabidea»; «Formulazio kimikoa eta euskal deklinabidea»; «Euskaltzaindiaren gomendio-arauen idazkeraz: letra larrii buruzkoaren kasua»; «Hitz elkartuen osagaiaren bukaera -a- delarik *hizkuntz / a* salbuespenarekin batera *hezkuntz / a* onartzearen aldeko emendakina»; «Hitz elkartuen osaera eta idazkera: gomendio-arauak prestatzeko erabili diren irizpideak»; «Aditzoina Ioanes Leizarragagan»; «Bizkaieraren aberastasunetarik zeintzuk diren batuan sartu beharrekoak»; «Gramatika batzordeak batasunerako proposamenak. Okerrak zuzenduz. Gramatika batzordearen *adierazpena*»; «Hikako adizkeren paradigmaren aurkezpena»; «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen»; «Hitanoa ahozko hizkuntzan (Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren arabera)»; «Aditz modalen erabilpena dela eta»; «*Neurtu* aditzaren erabilera berriaz»; «*Neurtu* aditzaren erregimenaz»; «Eratorpenaz»; «Maileguzko hitzen zenbait muga-arazo»; «Hiztegi batua lantzeko irizpideak: aurkezpen-hitzak»; «Hiztegi batua osatzeko irizpideak»; «Koldo Mitxelenaen zinema-kritiketako hitz elkartuak»; «Koldo Mitxelenaen zinema-kritiketako hitz eratorriak»; «Hiztegi batuaren datu-base lexikografikoa»; «Noiz *g(e,i)* eta noiz *j(e,i)* latinetikoa mailegu berrietan»; «Osasun zientzietako laburtzapenak»; «Euskal estrofeaz»; «Bertso lerroa»; «*Puntu* bertsoaritzan»; «Hiztegi teknikoak»; «Euskal hiztegi juridikoa»; «Sarrera hitzak *Exonomastikaz*»; «Criterios lingüísticos para la traducción de los nombres propios al catalán»; «Euskaltzaindiko Exonomastika azpibatzearen proposamenak: historia eta irizpide nagusiak»; «Mitologi eta astronomi izenen inguruan»; «Espainia-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa»; «Europako eta aldirietako toponimia historikoa»; «Gainerako Exonomastikaz»; «Latin jatorriko izen bereziak euskal idazleetan»; «Nafarroako antroponimia XVI. eta XVII. mendeetan»; V. Onomastika Jardunaldiak *Exonomastikaz*. *Adierazpena*; «V Jornadas de Onomástica sobre *Exonomástica*. Comunicado»; «Le Session d' Onomastique, a propos d' *Exonomastique*. Conclusions»; «Munduko estatuak, beren hiriburuak eta akzidente geografiko nagusiak»; «Munduko zenbait akzidente geografiko»; «Alfabeto latinoz idazten ez diren hizkuntzen transkripzio eta transliterazioa»; «Exotoponimoen jentilizioaz osatzeko arauak»; «Ponte-izenak, Espainia-Frantzietako eskualde-probintzien eta Europako toponimia historikoa»; «Nafarroako toponimia nagusia. Arazoak»; «Hiribarrenen *Euskaldunak* poemako izen bereziak»; «Ahoskera araupetzeaz»; «Hizkera jasoaen ingurukoak»; «Abiaburu zehatz batzuk»; «Hitz pareak»; «Euskal azentuak eta euskara batua»; «Euskal azentu ereduaren sailkapenerako»; «Euskararen normalizazioa eta linguistika konputazionala»; «Ahoskera araupetzeaz»; «Euskaltzaindiaren Leioako *adierazpena*»; «XIII. Biltzarra egunez egun».

2. *Euskera* 1995, 1: «Xabier Kintana Urtiaga Eskaltzaindian sartzea»; «Bilbao, euskararen bizitzan»; «Xabier Kintanaren sarrera-hitzaldiari erantzuna»; III. Herri-literatura Jardunaldiak. «III. Herri-literatura Jardunaldiak On Manuel Lekuonaren omenez»; «Au confluent du style oral et du style écrit, un découvrir, Marcel Jousse: sa vie, son oeuvre, son actualité»; «Manuel Lekuonaren metodologia ahozko literaturaren ikerketan»; «Les traditions de style oral: naissance, mémorisation et transmission d'après les travaux anthropologiques de Marcel Jousse»; «Ama hizkuntza biziko dea?. Ohar batzuk Iparraldeko begitik»; «Artazuriketak eta kontagintza»; «Testu ihartuak euskal tradizioan»; «Etno-ipuina eta esaunden bilketa»; «Tartaroak»; «Literatura oral en Aragón»; «Aho tradizioko literatura eta ahozketasuna»; «On Manuel Lekuona: haustura eragotzi zigan gizona»; «Ondorioak»; «III. Herri-literatura Jardunaldiak. Azken hitzak eta eskerrak»; «III. Herri-literatura Jardunaldiak: azken hitzak». **Euskaltzaindiaren hizkuntz Arauak**: 1. *Bat-batean, behinik behin, batik bat*; 2. *Baitu, baikara, bainaz*, e.a.; 3. *Aurrealde, Atzealde*; 4. *Hau guz(t)ia*; 5. *Ene / nire, niri* e.a.; 6. *Usain, arrain, zain*; 7. Zenbakien idazkeraz; 8. Zenbakien deklinabideaz; 9. *-Zio*; 10. *Nornahi, nonahi, non-nahi*; 11. *Nor / nortzuk, zer / zertzuk, zein/ zeintzuk*; 12. *Bat* eta *batzuk*-en deklinabidea; 13. Lerroz aldatzean marrazkoak nola jarri; 14. Adizki alokutiboak (hikako moldea); 15. Partitiboaren erabilera okerra; 16. *Zu izan ezik*; 17. Euskal alfabetoaren letren izenak; 18. Ordinalen eta banatzaileen idazkera; 19. *Benetako. Ohiko*; 20. *Betiko* eta honen kideak; 21. *Arabera*; 22. *Iritzi*; 23. *Arazi*; 24. *Ba-* eta *Gabe*-ren idazkera; 25. Hitz elkartuen osaera eta idazkera; 26. *-z gero*; 27. *Hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkera; 28. Aditzoinen forma; 29. Diptongoz

bukatzen diren izenen deklinabidea. «*Batzar hitza dela eta*». Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak: 1994.eko urri, azaro eta abendukoak eta 1995.eko urtarril, otsail eta martxokoak. Txostenak: (Onomastika) «*Biarritz / Miarritzze*»; «*Mendateen zerrenda*»; «*Guizaburuaga / Gizaburuaga*», «*Olaberria* izenaren erabilera dela eta»; (Lexikografia) «*Commentaire critique sur les «Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca*». Biografia: «*Jose Antonio de Azpiazu, euskerólogo*». Berriak: «*Hitzarmena / Convenio: U.P.V. / R.A.L.V. / Euskaltzaindia*»; «*Luis Villasante Kortabitarte jaunari Bizkaiko Foru Diputazioak gorazarrea*»; «*Luis Villasante Kortabitarte*»; «*Luis Villasante Kortabitarte jaunari Bizkaiko Foru Diputazioak egiten dion gorazarrea*»; «*Bizkaiko Foru Diputazioak Luis Villasanteri omenaldia*»; «*Bizkaiko Foru Aldundiak Aita Luis Villasante Kortabitarte jaunari omenaldia*»; «*Aita Luis Villasanteri omenaldia Gernikan*»; «*Iratzeder-en omenaldia*». «*Resurreccion M<sup>a</sup> Azkue: Literatura-sariak, 1994: Ipuinak eta bertsoak*»; «*Euskal Herriko Hizkuntz Atlas-CD-ROM*»; «*Hitzarmena: Bizkaiko Foru Aldundia - Euskaltzaindia*»; «*Eskerronezko hitzak*»; «*Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez. Onomasticon Vasconiae, 11*»; «*En la presentación de Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña. Onomasticon Vasconiae, 12*»; «*Eibarko hiri-toponimia. Onomasticon Vasconiae, 13*»; «*Eibarko hiri-toponimia liburu dela eta*»; «*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - IV (Juntagailuak) (EGLU- IV)*»; «*Oihenarten IV. Mendeurrena. Iker 8*»; «*Frantses Gobernuari Euskaltzaindiaren Adierazpena*»; «*Palabras del Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, Jean Haritschelhar, ante S. M. Juan Carlos I, con motivo de la Audiencia concedida a la Institución*»; «*El secretario perpetuo de la Real Academia Española*»; «*Espainiaren Erret Akademiak Espainiako Gobernuburua den Felipe González jaunari egindako gutuna dela eta Euskaltzaindiaren Adierazpena*»; «*IX. Korrikaren aurkezpena*»; «*1995. urterako Euskaltzaindiaren egutegia*»; «*Azkue Biblioteka: Durangoko Azokan erakusketa*»; «*Gipuzkoako Domina ematea Euskaltzaindiari*»; «*Bilera Agiria*»; «*Gipuzkoako Urrezko Domina jasotzean*»; «*Urrezko Domina Euskaltzaindiari*»; «*Euskaltzaindiari Gipuzkoaren Urrezko Domina*»; «*Sabino Arana kultura saria jasotzean*»; «*Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia acerca de la Resolución parlamentaria sobre la Ley Foral del Vasconce de Navarra y acerca del Decreto Foral regulador del uso del euskara*»; «*Nafarroako euskararen Foru Legearen ganean Parlamentuak erabaki duenez Euskaltzaindiaren Adierazpena*»; «*Declaración de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia acerca de la Resolución parlamentaria sobre la Ley Foral del vasconce de Navarra*»; «*Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren Adierazpena* iritzi publikoaren aurrean 1994ko azaroaren 19an Nafarroako Justizia Nagusi T.G.eko Administrazioarekiko auzi aretoak emandako Epaiari buruz»; «*Declaración de Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos y Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca ante la Opinión Pública de Navarra en relación con la Sentencia de 19 de noviembre de 1994 de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Excmo. Tribunal Superior de Justicia de Navarra*»; «*1994. urtean, hileroko batzarretan izandakoen zerrenda*»; «*Karguak eta batzordeburuak*»; Hilberriak: «*Antonio M<sup>a</sup> Labayen Toledo (1898-1994)*»; «*Pedro Diez de Ulzurrun, sendagilea (1924-1994)*»; «*Nils M. Holmer (1904-1994)*»; «*Dr. Justo Garate Arriola (1900-1994)*»; «*T. Hermandorena (1898-1994)*». Euskaltzaindiaren aurkitekia eta organigrama: «*Ordezkaritzak/ Delegaciones / Délégations*»; «*Euskaltzainburugoa/Cargos Académicos y ejecutivos*»; «*Egoitza / Sede*»; «*Euskaltzain osoak / Académicos de número / Académiciens titulaires*»; «*Euskaltzain ohorezkoak / Académicos de honor / Académiciens d'honneur*»; «*Euskaltzain urgazleak / Académicos correspondientes / Membres correspondants*»; «*Batzordekideen helbideak (euskaltzain ez direnenak)*»; «*Euskaltzaindiaren batzorde-organigrama*»; «*Aurkibidea 1994*».

3. *Euskaltzaindiaren Arauak*: 1. *Bat-batean, behinik behin, batik bat*; 2. *Baitu, baikara, bainaiz, e.a.*; 3. *Aurrealde, Atzealde*; 4. *Hau guz(t)ia*; 5. *Ene / nire, niri e.a.*; 6. *Usain, arrain, zain*; 7. *Zenbakien idazkeraz*; 8. *Zenbakien deklinabideaz*; 9. *-Zio*; 10. *Nornahi, nonahi, non-nahi*; 11. *Nor / nortzuk, zer / zertzuk, zein/ zeintzuk*; 12. *Bat eta batzuk-en deklinabidea*; 13. *Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri*; 14. *Adizki alokutiboak ( hikako moldea)*; 15. *Partitiboaren erabilera okerra*; 16. *Zu izan ezik*; 17. *Euskal alfabetoaren letren izenak*; 18. *Ordinalen eta banatzaileen idazkera*; 19. *Benetako. Ohiko*; 20. *Betiko eta honen kideak*; 21. *Arabera*; 22. *Iritzi*; 23. *Arazi*; 24. *Ba- eta Gabe-ren idazkera*; 25. *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*; 26. *-z gero*; 27. *Hori eta, hori edo* eta horrelakoen idazkera; 28. *Aditzoinen forma*; 29. *Diptongoz bukatzen diren izenen deklinabidea*; 30. *Partitiboa baiezko perpausetan noiz eta nola*; 31. *Ekartzea merezi du*; 32. *Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak*; 33. *Ongi etorri!*; 34. *Hiru kiloko haurra, lau hankako mahaia*; 35. *Orduak nola esan*; 36. *Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak*; 37. *Data nola adierazi*; 38. *Munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izenak*; 39. *Zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu)*; 40. *Topiko(a) bihurtu*; 41. *Egiteko asmoz*; 42. *Lehenago etorriko zen; lehenago asmatuko zuen*; 43. *Arazi aditzaren erregimena*; 44. *Hiztegi Batua: a - alkohol*; 45. *Gure egitura politiko batzuen euskal izenez*.

4. *Eibarko hiri-toponimia* (Onomasticon Vasconiae, 13). Eibarko Udala. Liburuki hau Eibarko Udalak (Ego Ibarra batzordeak) eta *Kutxa* Fundazioak babesturik argitaratua da.

5. *Toponimia Medieval en el País Vasco. Letra A.* (Onomasticon Vasconiae, 14). Angeles Lábano Zumalacarrengui andereak paratua. Laguntzaileak: Miren Azkarate, Ana I. Cristóbal, Margarita Cundin eta Juan Urdiroz. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Arabako Foru Aldundiaren babesaz argitaratua.

6. *Linguae Vasconum Primitiae*. Bernard Etxepare. Berrargitalpena. Nafarroako Gobernua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren babesaz argitaratua.



7. *Bekatuaren itzala*. Xabier Mendiguren Elizegi. Txomin Agirre Saria, 1994. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

8. *Idiaren eraman handia*. Jon Alonso Fourcade. Mikel Zarate Saria, 1994. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

9. *Hilerri itxia*. Xabier Mendiguren Elizegi. Toribio Alzaga Saria, 1994. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

10. *Itzaleko hitzak*. Mirari Garcia de Cortazar. Felipe Arrese Beitia Saria, 1994. Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindia.

11. Euskaltzaindiaren azken argitalpenak: 1993-1995. Argitalpen *Katalogoaren Eranskina*.

12. Euskaltzaindiaren *Oroit-Idazkia* (1994). Erakundeak 1994. urtean buruturiko ekintza eta lanen zehaztasunak eta azalpenak ematen dituen argitalpena.





### III.4.2. ARGITALPEN BANAKETA ETA SALMENTA ZERBITZUA

#### Argitalpenen salmenta

Lehenagotiko argitalpenen banaketa eta salmentaz gain, azken urtean, 1995eko bukaeran, argitalpen berri hauek gehitu zaizkio zerbitzu honi:

— Argitalpen bereziak:

– *Euskaltzaindiaren ARAUAK* bilduma, I, II, III eta IV. sortak, 1. karpetan aurkeztua. Hain harrera ona izan duen *Euskaltzaindiaren ARAUAK* argitalpen honek 1.700 harpidedun ditu dagoeneko. Bestalde, harpidetzaz aparte, Zabaltzen banatzailearen bidez 300 inguru ale saldu dira liburudendetan.

– *Linguae Vasconum Primitiae 1545-1995*. Bernard Etxepare. Sei hizkuntzatan eta bi mila aleko argitalpena. Euskaltzaindiari zegozkion 400 liburuak bat batean ahitu dira eta bigarren argitaraldia egiteko asmoa dago, eskariei erantzun ahal izateko.

— *Euskera 1994-2*, 3 liburukiak. Hirugarrena, Erakundearen 75. urteurrenean Leioan ospatu zen Biltzarreko txosten eta lanez osatua.

— *Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia, 1994*.

— *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren VIII. liburukia.

— *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Ciudad de Pamplona*. Onomasticon Vasconiae, 12.

— *Eibarko hiri-toponimia*. Onomasticon Vasconiae, 13.

— *Toponimia Medieval en el País Vasco. Letra A*. Onomasticon Vasconiae, 14.

— Bilbao Bizkaia Kutxak babestutako sariketen argitalpenak:

– *Bertsoak 1993*. Resurrección Maria Azkue saria, 1993.

– *Bekatuaren itzala*. Txomin Agirre saria, 1994.

– *Idiaren eraman handia*. Mikel Zarate saria, 1994.

– *Hilerri itxia*. Toribio Altzaga saria, 1994.

– *Itzaleko hitzak*. Felipe Arrese Beitia saria, 1994.

*Euskera* agerkariaren harpidetzak eta bestelakoen fakturazioak 5.521.345 pezeta-ko kopurua eman dute. Durangoko liburu azokarenak 287.735 pezeta, eta Arauen harpidetzak 8.999.920 pezeta. Guztira, 14.809.000 pezeta izan dira.

## **Dohaineko banaketa**

Erakundearen bulegoetara idatziz nahiz telefonoz zuzendutako eskariei erantzutea da zerbitzu honen egitekorik garrantzitsuenak. Urte honetan banaketari dagokionez: euskaltzainei, 100 inguru batzordekideri eta Akademiaren zerbitzuetakoei dohainik igorri zaizkie argitalpenak. Horrezaz aparte berariazko igorketak ere egin dira. Gainera, trukezkoei, Herri Agintariei, bisitari zenbaiti eta atzerriko norbaitzuei ere igorri zaizkie dohainik argitalpenak. Aurten, banaketa-zerbitzuak dohainik emandako liburuak, guztira, 2.433 izan dira.

Bestelako eskari bereziei ere erantzun die banaketa-zerbitzu honek, hala nola Gasteizkoa den «Francisco de Vitoria» Batxilergo Institutuko Euskera Mintegitik zuzendutako eskabideari: Araban, A ikastereduko 14-16 urte bitarteko ikasleentzat urtez urte antolatzen den sariketa dela eta, bost bildumako 36 liburu desberdinen 189 liburu dohainik eman zaio aipatutako institutu horri, sariketan partaide izan diren bost ikastetxe hoberenei banatzeko.

Oiartzungo Manuel Lekuona Bibliotekari, Erakundearen argitalpenen katalogoaren eduki nagusia dohainik eman zaio, 76 argitalpeni dagozkien 200 liburu inguru, guztira, III. Herri Literatura Jardunaldiak ospatzeko bertako Udalak emandako laguntza eskertu nahian.

## **Biltegia**

— Aurten zerbitzu honek argitalpenen babeserako Etxebarriko herrian duen biltegia berrantolatu eta bertako garbiketa burutzea izan du helburu. Horretarako, apal berriak jarri dira eta liburuak kutxaz aldatu dira garbituz eta kutxa berritan sartuz.

— Era berean, estokean dagoen materiala aztertu ondoren, horren guztiaren irtenbidea gehiago bultzatu beharra ikusi da.

## **Azokak**

— Aurreko urteetan bezala, XXX. Euskal Liburu eta Disko Azokan, Durangon, abenduaren 6, 7, 8, 9 eta 10ean bi saltokitan egon da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau egoitzako, Arabako eta Donostiako ordezkarietako lankideen partaidetzarekin. 1995. urteko argitalpen berrietarik *Euskera 1994*, 3 liburukia (Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarreko hitzaldiak eta txostenak jasotzen dituena) eta *Euskaltzaindiaren ARAUAK*-en 1. karpeta aurkeztu dira bertan. Azoka horretako gauzarik aipagarriena hiritarrek araei buruzko argitalpenaz adierazi duten interesa izan da. Azoka horretan argitalpen horren 65 harpidedun egin dira.

— LIBER' 95, urriaren 3tik 7ra, Bartzelonako Fira delako erakustazokan egin da. Azoka nagusi horretarako, EAEko beste erakunde eta elkarteekin batean, partaide izateko deia luzatu zaio Euskaltzaindiari. Aurreko urteetan bezala, horretarako Eusko Jaur-laritzak antolatu duen saltokian 46 argitalpeni dagozkien 57 liburu aurkeztu ditu Euskaltzaindiak, *Euskaltzaindiaren 1994. urteko Oroit-Idazkia* eta *Argitalpenen katalogoa* barne.

— Aurreko urteetan bezala, aurten ere Euskaltzaindia Iparraldeko bi azoka haue-  
tan izan da: Saran eta Donibane-Lohizunen.

### **III.5. Ekonomi Zerbitzua**



## **DIRUZAINZA**

Aurreko urteotako Oroit-idazkietan esaten zenez, gure gizarteak bizi duen ziurtasun gabeko ekonomi egoeran burutu du gure Erakundeak 1995. urteko Aurrekontualdia ere.

Bi izan dira gastuekiko helburuak:

Lehena, aurreko urteetan bildu zen mentsa kentzeko, Euskal Herriko Aginte nagusiekin batera plangintza burutu eta, laguntza ziurtatu ondoren, betetzea. Plangintza hori bere osotasunean bete dela aitortu behar da.

Bigarrena, egunoro eta ohiko diren gastuei eustea izan da eta, ahal izan den neurrian murriztea, beti lortu ez bada ere, zeren Aurrekontuek gora egiten baitute, lehena-gotik ere, agian, gehiegi egokituak eta moldatuak daudelako.

Jakina da, bestalde, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioekin urrian sinatu duela Euskaltzaindiak Bigarren Hitzarmena eta, honi esker, diru-laguntza finko batzuk ziurtatuak dituela. Aparteko aipamena merezi du, bestalde, Estatuko Gobernuaren Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Ministeritzak, eman duen diru-laguntza. Bihoakie hemendik gure eskerronaren aitormena.

Bestalde, ezin utzi aipatu eta eskertu gabe Euskal Herriko Unibertsitatea, B.B.K., Iruñeko eta Iparraldeko zenbait udalen eta gizabanakoen laguntzak, bakoitzaren ahalarren eta borondatearen arabekoak badira ere.

Baina, era berean, aitortu behar da Euskaltzaindiak jasotzen dituen laguntza horiek ez direla beharko lituzkeenak bezainbat. Ondorioz, beste diru-iturri batzuk gizartean bilatu eta aurkitzen ahalegindu beharko du Euskaltzaindiak. Horretarako, laguntzeko beti prest dauden adiskideengana jo da eta jadanik lanean hasiak dira Lege-ekonomi batzordea osatuz.

## 1995. urteko balantzea

SARTZEAK		IRTETEAk	
28 Ibilgetuaren amort. metatua	13.038.746,-	17 Epe luzerako zorra	750.000,-
57 Diruzaintza	13.368.589,-	22 Ibilgetu materiala	1.270.259,-
74 Ustiaketarako sarrerak	268.944.249,-	52 Epe laburrerako maileguen zorra	16.250.000,-
75 Kudeaketa sarrerak	16.315.311,-	60 Liburuen erosketa	2.552.910,-
76 Sarrera finantzarioak	16.307.774,-	62 Kanpo zerbitzuak	88.914.058,-
		62 Batzorde eta egitasmoak	94.594.647,-
		63 Zergak	189.810,-
		64 Gizabanakoen ordainketak	105.962.787
		66 Gastu finantzarioak	4.451.452
		68 Amortizazioetarako zuzkidurak	<u>13.038.746,-</u>
	<b>327.974.669</b>		<b>327.974.669</b>
	<b>pezeta</b>		<b>pezeta</b>

## **III.6. Prentsa Zerbitzua**





## **PRENTSA ZERBITZUA**

1995ean jarraipena eman dio Prentsa Zerbitzuak inguruko nahiz kanpoko komunikabideekiko lankidetzari. 1994an, Euskaltzaindiaren 75. Urteurrenaren inguruko jarduerak zirela eta, areagotu eta sendotu egin ziren Euskaltzaindia eta komunikabideen arteko harremanak. Bide horretan aurrera egin nahirik, 1995ean Nerea Azurmendi kazetariaren ardurapean, Gasteizko bulego-arduraduna den Itziar Rekalderen lankidetzaz, Prentsa Zerbitzuak jarraipena eman dio bere lanari, komunikabideekiko harremanak Euskaltzaindiaren ohiko lanetan uztartuz.

Prentsa Zerbitzuaren helburua Euskaltzaindiaren jardueraren berri zuzen eta zehatza ematea izan da, erakunde honen irudia zainduz eta kazetarien lana errazten saiatuz, hauen bidez Akademiaren lana gizartera hel dadin. Hau dela eta Euskaltzaindia osatzen duten batzorde eta gainerako zerbitzuen beharretara egokitu da Prentsa Zerbitzua, eta urtean zehar Euskaltzaindiak egin dituen bilkura, ekitaldi ireki, argitalpen-aurkezpen eta abarretan sortu den informazioa kazetarien artean zabaltzea izan da bere betebeharr nagusia, beti ere lagungarri eta osagarri izan nahirik.

Prentsaurreko, deialdi berezi eta oharren bidez helarazi zaie komunikabideei Euskaltzaindiak sortu duen informazioa, eta, aldi berean, kazetarien eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak erarik erosoenean bideratzen saiatu da, hainbat elkarrizketa eta solasalditarako bitartekaritza eskainiz. Asko izan dira urtean zehar kazetariekin izandako harreman arruntak, maiz jo baitute komunikabideetako profesionalek Prentsa Zerbitzura informazio eta argitasun bila.

Ondoko zerrendan biltzen dira Euskaltzaindiak berak Prentsa Zerbitzuaren bitartez bultzatutako jarduerak, komunikabide guztietara bidaliak, ezinezkoa baita komunikabideen eraginez burututako lanak eta zerbitzu bereziak laburbiltzea.

### **Prentsaurrekoak, argitalpenen aurkezpenak eta ekitaldi irekiak**

- Bilbao Bizkaia Kutxa-Euskaltzaindiaren arteko Resurrección M. Azkue Sariaren banaketa. Otsailaren 24a, Bilbo.
- Jagon Jardunaldietako Agiriak jasotzen dituen *Euskera*-ren aurkezpena eta euskarak Araban bizi duen egoeraz, Jagon Sailaren adierazpenaren kaleratzea. Martxoaren 3a, Gasteiz.
- Euskaltzaindiaren IX. Barne Jardunaldien aurkezpena. Martxoaren 29a, Gasteiz.
- *Euskaltzaindiaren ARAUAK* argitalpenaren aurkezpena. Maiatzaren 4a, Bilbo.

- Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatzen dituzten literatur sarietan 1994an irabazle gertatu ziren lanen argitalpenaren eta 1995eko deialdiaren aurkezpena. Ekainaren 29a, Bilbo.
- Pedro Pujana eta Joan Corominas euskaltzain ohorezko berriei diplomak ematea. Ekainaren 30a, Bilbo.
- Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa osatzeko lanen nondik-norakoaren aurkezpena. Uztailaren 28a, Donostia.
- Udarregi bertsolariaren mendeurrenaren amaierako Usurbilgo ekitaldien aurkezpena. Irailaren 26a, Donostia.
- *Euskera* agerkariaren ale bereziaren aurkezpena. XIII. Biltzarrean aurkeztutako txostenen bilduma. Urriaren 10a, Bilbo.
- Herri Aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko II. Hitzarmena. Urriaren 27a, Bilbo.
- Patxi Goenaga euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldiaren ekitaldia. Azaroaren 24a, Gasteiz.

Ekitaldi hauetan guztietan, deialdiaz gain informazio-oharrak bidali zaizkie komunikabideei.

### **Prensa-oharrak**

- Patxi Goenaga, euskaltzain oso hautatua. Urtarrilaren 27an.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Nafarroako Comptos Ganbararen txostenari buruzko oharra. Martxoaren 1ean.
- Euskaltzaindiaren IX. Barne Jardunaldiak. Martxoaren 30ean.
- Pedro Pujana eta Joan Corominas, euskaltzain ohorezko izendatzeaz. Martxoaren 31n.
- Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoaz. Apirilaren 13an.
- Euskaltzaindiak Arauen banaketari ekingo dio. Apirilaren 8an.
- Euskaltzaindiaren eta Jaques Valade, Akitaniako presidente jaunaren arteko bilera. Apirilaren 13an.
- Batzordeen bi urterako osakera berria. Ekainaren 13an.
- Bizkaiko Foru Aldundia eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa CD-ROMera pasatzeko. Ekainaren 14an.
- Patxi Goenaga, Arabako ordezkari berriaren izendapenez. Uztailaren 7an.
- Egoitzaren hitzarmena sinatu zeneko 10. urteurrena. Uztailaren 10ean.
- *Errenteria/Orereta* auziaz Onomastika batzordearen oharra. Urriaren 4an.

- Euskaltzaindia eta Javier Otano Nafarroako Presidente berriaren arteko bilera. Urriaren 18an.
- Jagon sailburuaren adierazpena. Arazoaren 2an.
- Metro Bilbao delakoaren seinalizazioari buruzko oharra. Azaroaren 21ean.
- Hainbat izen ofiziali buruzko gomendioa. (*Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa*). Azaroaren 22an.
- Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatzen dituzten literatura sarien irabazleei buruzko albisteak. Abenduaren 28an.



## **IV. Herri Aginte eta erakundeekikoak**



## **HERRI AGINTE ETA ERAKUNDEEKIKOAK**

Euskaltzaindiak harreman ugari izan du Herri Aginte eta erakundeekin. Horien artean aipatzekoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernu eta Parlamentutik eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioetatik jasotako irizpen-eskabideei eman zaizkien erantzunak.

Estatuko erakunde zenbaitekin ere izan dira harremanak eta zerbitzuak eman zaizkie, hala nola Kultura Ministeritza, Hezkuntza Ministeritza eta Administrazio Zentralak Gasteizen duen Ordezkaritzari.

Iparaldeko udalekin, Centre National de la Recherche Scientifique delako erakundearekin, Frantziako Gobernuarekin, Akitaniako Herrialde Kontseilu eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuarekin ere izan dira harremanak.

Bruselako Europarako Batzordearekin berariazko harremanak izan dira, Euskaltzaindiaren bi egitasmo nagusiak (*Orotariko Euskal Hiztegia* eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlas) aurkeztu baitzaizkio, diru-babesa eskatzeko.

Euskaltzaindiak harreman ugari izan du orobat udalekin, batez ere Onomastika alorreko gaiak direla eta, herri izen, auzo izen, kale izen eta antzeko gaiei buruzko eskabideei erantzuteko. Euskaltzaindiak kasu horietan eskatu zaion aholkua edo irizpena eman du.

Udalek eta Euskaltzaindiak Onomastika alorreko argitalpenak elkarrekin kalera-  
tzeko duten ohiturari jarraituz, aurten udal hauekin izan du elkarlana Euskaltzaindiak: Eibarko Udalarekin, bertako toponimiari buruzko liburua kaleratu baita; Arrasateko Udalarekin, bertako herri-toponimiaren liburua Euskaltzaindiak gainbegiratu eta aztertu ondoren, argitaratzeko prest utziaz; eta, azkenik, Basauriko Udalarekin, bertako toponimiari buruzko lana jaso baitu Euskaltzaindiak azter dezan.

Euskal Herriko Unibertsitateekin ere harreman ugari izan du Euskaltzaindiak, batez ere Euskal Herriko Unibertsitatearekin, honekin hitzarmena sinatua baitu Euskaltzaindiak. Hitzarmen horren bidez ekintza hauek babestu ditu Euskal Herriko Unibertsitateak: Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* 1545-1995. Lehen euskal liburu inprimatua, beste babesle batzuekin batera; erromintxelaren -ijito euskaldunen euskararen ikerketa eta jasoketa-lanerako bi beka; *Onomasticon Vasconiae*, 14. liburukiaren argitalpena (M. Angeles Libanoren 1. liburua kaleratzea eta 2.aren prestaketa); René Lafonen lan hautatuen prestaketa-lanerako eta Xabier Alberdiren tesiaren argitalpena prestatzeko laguntza.

Harreman hauetako batzuen ondoren Euskaltzaindiak diru-babesa edo bestelako laguntza jasotzen badu ere, dohainik egin ditu azken urteotan kasuan kasuko erakundeak eskatutako ikerketak eta aholku eta irizpen emateak.





## **V. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia**



## V.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUEN ZERRENDAK

### EUSKALTZAIN OSOAK

Patxi Altuna  
Jose Antonio Arana Martija  
Miren Azkarate  
Pierre Charritton  
Jean-Louis Davant  
Xabier Diharce «Iratzeder»  
Patxi Goenaga  
Jean Haritschelhar  
Alfonso Irigoien  
Xabier Kintana  
Endrike Knörr  
Federiko Krutwig  
Emile Larre  
Juan Mari Lekuona  
Beñat Oihartzabal  
Patxi Ondarra  
Txomin Peillen  
Pello Salaburu  
Juan San Martin  
Ibon Sarasola  
Jose Mari Satrustegi  
Luis Villasante  
Patxi Zabaleta  
Antonio Zavala

## **ZUZENDARITZA**

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua  
Juan Mari Lekuona, buruordea  
Endrike Knörr, idazkaria  
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina.

## **ORDEZKARIAK**

Gipuzkoa: Juan Mari Lekuona  
Araba: Patxi Goenaga  
Nafarroa: Jose Mari Satrustegi  
Iparraldea: Pierre Charritton

## **ERAGILEAK**

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea  
Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea  
Jose Antonio Arana Martija, liburuzaina  
Ricardo Badiola, argitalpen eragilea  
Pello Telleria, eragile teknikaria.

## V.2. EUSKALTZAINDIKO BATZORDEAK

1995-96 urtebikoa

### IKER SAILA

**Iker** sailburu: Patxi Altuna

#### I. HIZTEGIGINTZA

Batzorde hau bi azpibatzordetan banatzen da:

##### I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Arduraduna: Ibon Sarasola

Idazkari: Iñaki Segurola

Kideak: Arantza Egia, Gabriel Fraile, Elixabet Kruzeta, Ane Miren Loidi, Ainhoa Otamendi, Blanca Urgell, Eduardo Valencia.

##### I.2. Hiztegi Batuko azpibatzordea

Buru: Ibon Sarasola

Idazkari: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Xabier Kintana, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Mikel Zalbide.

#### II. GRAMATIKA

Buru: Patxi Altuna

Idazkari: Patxi Goenaga

Idazkariorde: M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte

Kideak: Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Alan King, Jose M. Larrarte, Jesus Mari Makazaga, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

#### III. DIALEKTOLOGIA-ATLASGINTZA BATZORDEA

Buru: Beñat Oihartzabal

Idazkari teknikoak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain

Kideak: Isaak Atutxa, Ana Mari Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

#### IV. ONOMASTIKA

Buru: Endrike Knörr

Idazkari: Mikel Gorrotxategi

Kideak: Andres Iñigo, Alfonso Irigoien, Jose Luis Lizundia, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

### **Exonomastika lantaldeko kideak**

Andolin Eguzkitza, Inaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, Federiko Krutwig, Xabier Mendiguren Bereziartu.

### **Aholkulariak**

Ricardo Cierbide, Jose Antonio González Salazar, Jose Mari Jimeno Jurio, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel M. Ruiz Urrestarazu.

## **V. LITERATURA**

Buru: Juan Mari Lekuona

### **V.1. Herri Literatura azpibatzerdea**

Arduradun: Antonio Zavala

Idazkari: Pello Esnal

Kideak: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoien, Jose Mari Iriondo, Emile Larre, Abel Muniategi.

### **V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea**

Arduradun: Juan M. Lekuona

Idazkari: Karlos Otegi

Kideak: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Junes Casenave, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Luis Mari Mujika, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

## **VI. BATZORDE SUNTSIKORRAK: EUSKARA BATUA ETA AHOSKERA**

### **VI.1. Euskara Batuko batzerdea**

Buru: Pello Salaburu

Idazkari: Miren Azkarate

Kideak: Patxi Altuna, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola, Luis Villasante.

### **VI.2. Ahoskera azpibatzerdea**

Buru: Lourdes Oñederra

Idazkari: Iñaki Gaminde

Kideak: Jose Luis Alvarez «Txillardegi», Jean-Louis Davant, Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Pilartxo Etxebarria, Jose Ignazio Hualde, Bernhard Hurch, Rosa Miren Pagola, Xarles Videgain.

### **Lantaldea**

Buru: Lourdes Oñederra

Idazkari: Pilartxo Etxebarria

Lankideak: EITBko aholkularia (Manu Arrasate); EAeko IRALEko irakasleak (Jon Kortabarria, Juan Karlos Hernandez, Jon Aurre); Nafarroako IBiko irakasleak (Mariano Galarza eta Josune Urrutia).

## **JAGON SAILA**

**Jagon** sailburu: Miren Azkarate

### **VII. JAGON SAILA**

Buru: Miren Azkarate

Idazkari: Andres Urrutia

Kideak: Erramun Baxok, Andres Iñigo, Federiko Krutwig, Xabier Mendiguren, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Jose Mari Velez de Mendizabal.

#### **Aholkulariak**

Ramuntxo Camblong, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Juan Mari Lekuona, Jose Mari Satrustegi.

## **EGITURAZKO BATZORDEAK**

### **VIII. ARGITALPEN BATZORDEA**

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak: Juan Mari Lekuona, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija, Patxi Altuna, Miren Azkarate, Beñat Oihartzabal.

### **IX. AZKUE BIBLIOTEKA**

Buru: Jose Antonio Arana Martija

Idazkari: Josune Olabarria

Kideak: Andolin Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea, Endrike Knörr, Jose Mari Larrarte, Juan San Martin.

### **X. LEGE-EKONOMI BATZORDEA**

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Juan Mari Lekuona, Endrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija.

#### **Lege azpibatzerdea**

Abel Muniategi

Andres Urrutia

Patxi Zabaleta.

#### **Ekonomi azpibatzerdea**

Jon Castañares

Alberto Elorriaga

Sebastian Garcia Trujillo


Jose Mari Makua Goienetxe

Juan Jose Zearreta.





# EUSKALTZAINDIA



(Euskaltzaindiak 1995eko uztailaren 28an onartua)



## **V.4. AURKITEGIA**

### **EGOITZA**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: 94-415 81 55  
Faxa: 94-415 81 44  
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

### **AZKUE BIBLIOTEKA**

Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Telf.: 94-415 27 45  
Faxa: 94-415 00 51  
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

### **GORDAILUA**

Bilbo-Donostia errepidea, z/g - 4,5 km  
SAGA etxea, 1. solairua  
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)  
Telf.: 94-440 62 58  
Arduraduna: Rosa Mari Arza

\* \* \*

### **ORDEZKARITZAK**

#### **ARABA**

San Antonio, 41  
01005 GASTEIZ  
Telf.: 945-23 36 48  
Faxa: 945-23 39 40  
Ordezkarria: Patxi Goenaga

#### **GIPUZKOA**

Hernani, 15  
20004 DONOSTIA  
Telf.: 943-42 80 50  
Faxa: 943-42 83 65  
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

#### **NAFARROA**

Conde Oliveto, 2-2.  
31002 IRUÑEA  
Telf.: 948-22 34 71  
Faxa: 948-21 07 13  
Ordezkarria: Jose Mari Satrustegi

#### **IPARRALDEA**

37, Rue Pannecau  
64100 BAIONA  
Telf. eta faxa: 59 59 45 59  
Ordezkarria: Pierre Charritton





JARRAI

